Xabier Mendiguren

16 ipuin amodiozko

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2002 Xabier Mendiguren
© edizio honena: Susa

Lehen edizioa paperean: 2002ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Gizon portatu
(hitzaurrea)

Amodiorako Mendigurenen dohain bereziez gozatzeko zoriona izan dugunontzat, ez da ezustekoa liburu hau, batik bat «perbertsio» deituriko moldeez ari dadin: mutilazioa, voyeurismoa, fetitxismoa, intzestu orokorra, bikote-trukatzea baserrian, melodrama, masokismoa...; ipuin hauek guztiok animalien antzera maitatzeari ukoa erakusten dute, edo animaliek bezala maitatzeko ezina. Ez soilik animaliak garai jakin eta mugatuetan jartzen direlako altan, eta gizakiaren maitatzeko ahalmena berriz mugagabea bezain anomikoa delako printzipioz, baizik oroz lehen animaliaren desira *berehalakoa* delako, desiraren eta desiratuaren artean ezin duelako ezer tartekatu, ez bada desira indartsuago bat. Animaliek txintxo-txintxo obeditzen diote naturaren aginduari, zeinak irautea baitu helburu, eta ondorioz beren elkartzeetan ia beti gertatzen da espermatozoidea obuluan sartzea. Zuloa estali eta zuloa estali, hara arrazoibakoen maiteta-

suna, istripuzko taponamendurik ezean behinik behin. Animaliak ezin baitio iraganari muzin egin. Lehen begiratuan geneari muzinak irabazi diola dirudienean ere, bizi agindu gogorrago bat duzu aurretik nagusi.

Esate baterako, zimino arra bero-bero dago zortzi metroko amildegi baten gainean. Halako batean, zimino eme bat agertzen zaio han behean, arra erakartzen saiatzen baita keinu lizunez. Arrak jauziari uko egingo dio. Baina kasu honetan ez, ohi bezala, banakoaren iraupena espeziearena baino bortitzagoa delako, hots, norbera bizirik irauteko grina ugaltzekoari gailendu zaiolako, baizik ziminoek ez dakitelako hil ostean amodioa egiten.

Alabaina, funtsean duzu Mendiguren zimino hori ez bezalakoa, zentzu batean bederen, ziplo kokatzen baita, ezinbestean bezala, ispiluan, jolasean eta matriuskan. Beasaindarraren ikuspuntuak ere, bere pertsonaien eran, desiraren eta desiratuaren artean euskaldunontzat zabalik den zirrikituren batetik alde egiten du. Naturaz at dabil, hortaz: ukitu gabe begiratzen du, porroia lako tramankulu artifizialak erabiltzen ditu

(edo amodio-tramankulu naturalak ebakitzen), espermatozoideak ondorio biologiko gabeko guneei oparitzen dizkie, bizitza konplikatzen du naturaren aginduei ixkin egitearren, guraria gauzatzeko aukera airean zintzilik uzten du («Urak dakarrena urak daroa», «Ene dama maite horri»)...; labur: gizon portatzen da beti.

Eta, kristautasuna nagusi den gure gizartean, bitxi gertatzen da halako jokabide bat, eremu guztietan gizon portatze hori. Izan ere, kristautasunak orotan agintzen baitu animalietatik bereiztea, maite kontuetan izan ezik: maitatzeko orduan ez baitu onartzen piztiek bezala egin dezagun baino. Kontrasteagatik, bitxitasun hori morboz hornitzen du Mendiguren hartzen ari den lekaide itxura kezkagarriak, liburuaren azal hegaleko argazkian nabari.

Edozein gisaz, Mendigurenek desiraren eta desiratuaren artekoari, oro har, begiratzen badio ere, bereziki aintzat hartzen du tarte hori gure gizartean zehazki betetzen ohi duena: irudia alegia. Gurean, maitasuna sentitzearen eta maitasuna egitearen arteko bidean, irudia dugu bitartekari edo itsumutil nagusi, eta ez, beste garai

eta lekuetan legez, usaina, aberastasuna edo kokapena gizartean. Ezta, bestalde, irudimen berritzaileak lekarkeen irudigintza anitza eta nabarra ere, hedarazitako irudiak baino, telebistatik, bideotik, zinematik jasotako irudiak. Sugetzarrak erakusten digu amorosten, pornoak txortan; biziki laguntzen digu kuttuna hobeki maitatzen, Hollywoodeko izar baten antza aurki edo asma diezaiogun. Aurrena serie bateko pertsonaia batez gara maitemintzen, ondotik Institutuko edo Lizeoko haren islarekin gara jotzen entseatzen. Itzelak dira, gainera, zenbaiten depresioak Institutuetan eta Lizeoetan, nagusiarazitako irudi hori ez bezalakoegi ikusten baitute beren burua. Ikerketa eremu honi dagozkio «Nenufare zuria», «Orense bar», «Demagun sexua komunikatzeko beste era bat baino ez dela», «Informazio sexuala», «Porroia», «Pastitxe» eta «Amuña Margarita» (alderantziz, baina bueno).

Aldiz, «Telebistarik ez, inkomunikazioa dakar eta» eta «Txinoen esperoan» ipuinek, irudiaren bitartekaritzari uko egiten dioten letralatra eta mistikoen desgaraiko egoera pintatzen digute: asperkeria frigidoa zein eldarnio paranoidea hu-

rrenez hurren. Ordea, ez pentsa Mendigurenek liburua utzi eta ikus-entzunezkoetan murgiltzea aldarrikatzen duenik: desiraren eta desiratuaren arteko irudiaren bitartekaritza ere desastrosoa baita («Pastitxe», «Demagun sexua...», «Orense bar»...).

Halatan, giza oinaze bat adierazten du liburu honek: desiraren eta desiratuaren arteko tartea desagerrarazteko nahia baina animalia izatera ezin itzultzea, xinplearen nostalgia, gizon jardutearen zaila. Zimino ezin portatuaren mina duzu liburuaren muina. Giza amodio zoriontsuak ez baitu nonbait literaturan balio; horregatik betetzen gaitu bekaitzaz maite kontuen gaineko Mendigurenen diskrezioak bere liburu autobiografikoetan.

MARKOS ZAPIAIN

Montseri,
bizitza sentiarazi,
sentimenduak biziarazi
dizkidazun horri.

SEI IPUIN AMODIOZKO

22 ebaki

Dionisio eta Helena ezkondu zirenean gazteak ziren oraindik eta herriko bikoterik preziatuena. Biek, ostera, nahiago izan zuten basora bizitzera joan, lanean eta maitasunean aritzearen egunerokotasuna. Udaberriak ere agurtzen zituen urtero berotasunezko lehen printzez. Haurrak ere jaio zitzaizkien. Haien etxeak lasaitasun eta bakezko postal bat zirudien.

Behin batean, Dionisio egurra moztetik bazkaltzera zetorrela, emaztea negarretan aurkitu zuen atarian. Dionisio oso larritu zen eta laztankiro galdetu zion:

– Zer duzu?

Helenak ez zion erantzunik eman nahi izan. Gaitzen bat-edo izanen zuela pentsatzen hasi zen senarra eta biziago itaundu zion besotik eraginez; bazitekeen ezbeharren bat gertatu izatea ere, zerbait egin beharra zegoen, jakin beharra zuen, ez baitzen normala emaztea negarrak itoa egotea. Malkoak eskuez sikatuz eman zion erantzuna Helenak, oraindik zotinka:

– Ez nauzu maite.

Dionisiok hasieran ez zuen ulertu. Ez zuen horrelakorik espero. Deus txarrik ez zegoelako alaitu edo zoraturik ote zegoen pentsatu behar zuen ez zekien. Ondo asko entzuten denean galdetu ohi den bezalaxe «zer?» esan zuen eta erantzun bera jaso, bortitzago. Seriotan esaten ziola ikusi ahal izan zuen eta, nondik norakoak eta nola zitekeen konprenitu gabe, berak maite zuela sinetsarazten saiatu zen; alferrik: emazteak arrantzaka ziharduen. Ahal izan zituen arrazoi eta argibide guztiak eskaini zizkion, baina Helenak gogor eusten zion bere temari. Etsirik, esan zion:

– Behatza moztuko banu sinetsiko al zenidake?

Emazteak harrituta begiratu zion baina ez zuen ezer ihardetsi. Dionisiok aizkora hartu eta, ezkaratzetik aldenduz, mendian sartu zen berriro. Jaitsi zenean, ezker eskuko behatz txikiaren lekuan odola besterik ez zegoen. Emazteak laztanez hartu zuen eta barka ziezaiola eskatuz.

Zauria laster sendatu zen eta etxean poza berriro nagusi. Hala ere, handik zenbait hilabete-

tara, elizatik itzultzean, Helena negarrez sumatu zuen senarrak. Beldurrez eta errukiz heldu zion eskua eta galdetu:

– Zer duzu, Helena?

Helenaren negarra areagotu egin zen. Oraingo honetan gehiago kosta zitzaion tristuraren zergatia azaltzea, ez zuen ezer esan nahi eta. Azkenik, burua makurtuz:

– Ez nauzu maite.

Dionisiok mendiak gainera zetozkiola sentitu zuen eta oineko lurra behera. Ez zuen deus esan nahi izan. Hala egon ziren ordu pare batean: bata mutu eta bestea negarka. Amorraturik, isiltasuna apurtuz, hala bota zuen senarrak:

– Beste behatza moztu beharko al dut sinets diezadazun?

Emaztea isilik gelditu zen.

Txikerraren hurrengoan behatzondo odoldua zekarrela ikusi orduko Helena oinak musukatzera jausi zitzaion bat-batean Dionisiori.

Denbora iragan eta gertaturikoa ahantzia zen, noiz eta, ilunabarreko eguzki motelarekin batera, Helenaren begietatik argia ezkutatu eta

distira itzali baitzen. Senarra ohartu zenean, goitik behera astindu zion hotzikarak bizkarrezurra.

– Eta oraingoan zer?

Dionisiok ikaraz espero zituen hiru hitzak entzun zituenean amesgaizto batean murgildurik ez ote zegoen otu zitzaion, ongi jakin arren errealitate eta egia hutsa zela hura dena. Malkoei eusteko, ukabilak estutu zituen min hartu arte: mina hartu kolpeka hasi ordez, eta ondoren, ironia mingotsaz, barrez edo negarrez ari zen bereizi ezinik:

– Eta hirugarrena moztuko banu...?

Horixe esatea espero zuen emazteak, eta, burua jiratuz, eguzkiaren azken errainuak bere ilean pausatzen utzi zituen.

Sendaketa garaian inoiz baino gehiago mainatu zuen Helenak senarra. Bien arteko maitasuna maila goren, gaindiezinetara iritsi zen. Dionisiok bere buruari inor baino zoriontsuago irizten zionean:

– Ez nauzu maite.

Horrela joan zen behatzak galduz, bananbanan, eta bi erortzearen tartean zoragarriki gozatzen zuen bizitzaz. Noizbehinka bururatzen zi-

tzaion, bai, azkenengoa izanen zela hura, emaztea ez zitzaiola gehiago penatuko, eta emazteak ere horixe pentsatzen zuen, aldian behin. Gehienetan, ostera, argitasun oso-osoaz ikusten zuen Dionisiok huraxe zela zoriontasunagatik ordaindu behar zuen prezioa, eta, prezioa garestia bazen ere, lortutakoa estimazio handiagokotzat goresten zuen, zalantzarik gabe: hargatik, emaztea zapuztuta ikusten zuenean, beldur apur bat besterik ez zitzaion nabari, xuxen baitzekien egin behar zuena hitz hauek esaterakoan:

– Behatza mozten badut sinetsiko al didazu?

Eskuetakoak, bai ezker eta bai eskuin, bukatu zitzaizkion halako batean, eta oinetakoekin hasi zen orduan. Ordura arte lana egiten segitu arren, eskuen trebetasunik eskatzen ez zioten zereginetan behinik behin, handik aurrera lastozko aulkitxo batean eserita ematen zuen eguna, mendiei beha, emazteak eta seme-alabek lan egiten zuten bitartean, burua mundua baino jira-bira arinago eta errepikagarriagoan: maitasuna eta bere larrialdiak, sentimenduen oinaze eta plazer nahasiak, grinen oldar jarkiezina, bizitzaren gorabeheren jopua izatea, eta berriro

larrialdien gorabeherak, grinaren oinazea, sentimenduen maitasuna, bizitzaren plazera...

Jesarlekutik oheratzeko besterik ez zen altxatzen egun osoan, eta beste inon ezin zituen indarrak han bai xahutzen zituela, Dionisio eta Helena amorante amorratuagoak ziren-eta egunetik egunera. Amoroski estutzen zuten elkar, hozkatzen, laztantzen; goizaldea arte irauten zuen beti bien amodiozko jolasak, gorputzak, leher eta blai, loak hartzen zituenean. Horren ondoan huskeria zen beste guztia: zer axola zitzaizkien behatzak, lanak, negarrak? Emaztea berriro, Jaungoikoak daki zergatik, hits eta itun zegoenean, senarrak goxo heltzen zion gerritik:

– Helenatxo, kuttuna, zer gertatzen zaizu?

Behatzek ordea, bazuten amaiera. Atzamarrak eta oinetako beste hamarrak bukatu ziren, alafede. Ezusteko egoera horren aurrean Dionisiok etorkizuna igarri nahiko zukeen, baina patuak dakarkiguna aldez aurretik jakitea galarazia zaigu gizakumeoi, eta, burutazioetan aritu eta ahitu arren, ez zezakeen ezer asma.

Zitekeena, iskanbilak betiko ahaztuak izatea. Bizkitartean, ez larritu, gerokoak gero, zer kausi-

tuko ote zuen jakin gabe eman zentzumenei nagusitasuna, bere askatasun osoa. Ezinbestekoa sukaldean gertatu zen, biak afaltzen ari zirenean: Helenari sudurra ximurtu egin zitzaion eta senarrak, kutxilloa eskuondoez hartuz, berebiziko sarraskia egin zuen, hankartean, eta odola irten zitzaion ahotik «hogeita batgarrena, azkena» ahopeka murmurikatzean.

Emaztea, ileak derrepente elektrizatuta, buruz behera joan zitzaion haragi zirpilari, garrasika. Eta senarrak orduan, geratzen zitzaizkion azken indarrez, lepoaren atzealdetik sartu zion kutxilloa, goitik behera. Odolusten ari ziren bitartean, estasian elkar besarkatuz, hitz bakarra zuten biek ezpainetan, muxuetan:

– Maite zaitut, maite zaitut.

[1983]

Udak dakarrena udak daroa

-I-

Play:

Pun catapun chimpún, cómo me gusta el verano.

Pun catapun chimpún, pa levantarnos temprano.

Stop. Bela zuri urrunek eta windsurfzaleen koloretako hurbilagoek han-hemenka eteten dute tiralineaz marraztutako horizontearen ertz infinitua, paisaiaren harmonia eta monotonia gupidagabeki birrinduz eta ezabatuz. Play:

Ir a la playa al sol, para bañarnos tranquilos.

y si no vamos solos vamos con tos los amigos.

Stop. Uretan plisti-plasta ari diren ume eta ume handien garrasi histerikoak baino askozaz ere proportzionatu eta atseginagoak dira, dudarik gabe, beren hegada pausatu eta ero samarraz zeru-sabaian lorratz ikusezinak intsinuatzen dituzten kalatxorien txilioak. Play:

Tacatacataca tacatacatá, tacatacataca tacatacatá
tacatacataca tacatacata tacatacá.

Stop. Apar lehertuak plai ertzeko hondarrean lagatako itsasbelar, konpresa, plastiko eta lata hutsak, Neptunoren opari; berotasunak arintzearren zihoazenen eta freskatu zirelakoan zikinago zetozenen harat-honat aspergarri eta funsgabea; salda goritan kiskaltzen ari zirenen izerdi, neke eta hitz alferrak; ezer egin gabe ari nintzen galtzen denbora, ea berriro heltzen nion:

Si quid est in me ingenii, iudices, quod sentio quam sit exiguum, aut si qua exercitatio dicendi,

in qua me non infitior mediocriter esse versatum, aut si huiusque...

Argi zegoen, Zizeron eta hondartza ezin bat egin. Jarrera komodo bat bilatzen saiatu nintzen, baina lauegia zen zorua, edo koska gehiegi nire hezurrek; kontuak kontu, ez goraka eta ez beheraka. Eserita geratu nintzen, eta orduantxe azaldu zinen zu; bueno, lehenagotik zeunden hor baina ordura arte ez zintudan ikusi. Begitartea alderik alde zeharkatzen zizun irribarre zabalaz galdegin zenidan: Do you want latin...? edo Are you latin student? edo antzeko zerbait, ingelesaren ezagutza latinarena bezain urri eta kamutsa baitut, baina «latin» hitzari erreparatu nion, eta sinpatia komunikatu nahiko zuen barre eta poztasun kontagiatuaz Yes erantzun nizun ahoa zabal-zabal eginda.

–II–

Play:

Un rayo de sol uo o o
a mi corazón uo o o

Stop. Cherild zenuen izena, eta Scotland deritzan herri urrunetik zentozen. Hurrengoetan egunero elkartu ginen hondartzan, eta toallak elkarren ondoan ipini. Latin askotxo zenekien, itxura zenez, eta hor jarduten zenuen, inolaz ere ezin uler nezakeena esplikatu nahian: This is the subject because... and... the nominative. Ez zenuen nire erdara ezagutzen, nik zurea ere ez, eta grazia egiten zidan nola ahalegintzen zinen ikusteak; nik baietz egiten nizun buruaz, eta benetan eskertzen nizun, bihotz-bihotzez, hartutako ardura. Azkenik, zu ere konturatzen zinen ez nuela piperrik ere entenditu eta, apur bat haserretzen zinen arren, barre algaraka bukatzen genuen, lehertzeko zorian. Play:

Y quiero ser algo tuyo
cerca de ti siempre estar
ser algo tuyo
de tu alegría y felicidad.

Stop. Nik ere zerbait irakatsi nahi nizun eta, besterik ezean, abesti plaieroak jartzen nizkizun:

«Eva María se fue buscando el sol en la playa, con su maleta de piel y su biquini de rayas» eta halakoak, eta zuk, adi-adi entzun ondoren, protesta egiten zenuen: Oh! very bad! esaten zenuen, esku eta mutturrez muzin eginez. Nik ez nuen amore eman nahi izaten ordea, eta, temoso, beste batzuk entzunarazten nizkizun: «Et j'ai crié, Aline, pour qu'elle revienne» eta abar, eta subkultura berezi horren lilura ezkutuaz, melodramaren gaurkotasunaz konbentzitu nahi zintudan. Play:

Shala la la la, uo o o
Shala la la la, uo o o

Stop. Ez ginen haserretzen hala ere. Egia esan, zaila izango zen, elkarri irainik esateko hitzik ez genuela. Harrigarriena, nolanahi ere, elkarrekin ederki konpondu ez ezik dibertitu ere egiten ginela ikustea zen: espezial pasatzen genuen zuk niri «Nam quod longissime potest mens mea respicere spatium praetereti temporis» eta nik zuri «Ella se marchó y sólo me dejó recuerdos de su ausencia, sin la menor indulgen-

cia Eva María se fue» suak hartuta dastatu eta are maitarazten.

–III–

Play:

Cuando calienta el sol
allí en la playa

Stop. Barrezka ez zenean elkarri begira aritzen ginen, jolas sekretu batean bezala, algaraka nor hasiko edo begirada nork aldenduko. Horrelakoetan, ordea, serio jartzen ginen biok, halako zera esplikagaitz bat genuela buruan. Azkenean, etsirik kilimak edo atximur egiten ez banizun, uretara joango zinen ez good bye ez come on esan gabe, burutazio estrainio haiek olatu artean itotzearren agian, ni azala erretzen zidan eguzkipean eta barruak jaten ari zitzaidan zomorro harekin utziz. Play:

Siento tu cuerpo vibrar

cerca de mí í í í

Stop. Uretatik irtetean zure titi borobilek, lehortzeko ahuspez jarritako kafe-kikarak ematen zuten, goitik behera zipriztintzen zituzten tantoak eta guzti. Dardarizoak hartzen zuen nire larruazal osoa zure busti berria ondoan sentitzen nuenean, bustitzean hozkia ematen zenidalako zela esaten banizun ere. Bainatu ondoko berotasun goxoan berriketarako gertu egoten zinen berriro, eta nik pozik entzuten nizun, keinuei erreparaka hitz batto ere jasotzen saiatu gabe. «I love you» esan ez esan borrokan aritzen nintzen neure buruarekin: pelikuletako amerikanokeria artifiziala iruditzen zitzaidan eta, azken batean, ez nengoen oso seguru hori esan behar ote nizun, nola erreakzionatuko ote zenuen, zer nolakoak ziren nire sentimenduak edo zer eragingo zuen horrek gero. Brometan bezala, eta zipitzik ere konprenituko ez zenuela jakinik, nahiago izan nuen «maite zaitut» doinu eta keinu neutroez esan, ariketa katartiko gisa apika, nerabearen herabetasunaren iruzurra akaso. Play:

Es tu palpitar, es tu cara
es tu pelo, son tus brazos
me estremezco o o o
cuando calienta el sol

Stop. Gaizki pasatu nuen momentu haietan. Zirrara eta egoneza eragiten zizkidan zama moduko bat neukan sabelean, eta hitz egin nahi nuenean listua galarazten zidan traba eztarrian. Ez dakit ezertaz konturatzen zinen: alde batetik irrikan nengoen, baina bestetik lotsa, ahalkea eta barre egingo edo mespretxatuko ninduzulako beldur ikaragarria nagusitzen zitzaizkidan. Ezer esan gabe besoetan hartu eta muxu luze bat ematekotan ere egon nintzen, begi-bistan neukan tentazioa uneoro, baina ez nintzen atrebitzen, eta nire esperientzia kaskarrak barregarri uztea ere ez nuen nahi. Ez nintzen, ez, veni vidi vinci esan zezakeen play-boy bat, baina, hala ere, zein erraz egin nintzakezun zoriontsu –irriño bat, xera bat–, eta zein aise kondenatzen ninduzun desesperantzaren zorigaitzetara!

-IV-

Play:

La playa estaba desierta, el sol bañaba tu piel
tocando con mi guitarra para ti María Isabel

Stop. Sekula ez genuen elkar ikusi hondartzatik kanpo. Inoiz aipatu gabeko paktu tazitoa bide genuen, kalean topo eginez gero gure bizitzaren alderdi ezkutuarekin aurrez aurre geratzeko beldurrez, lazgarria izango zelakoan edo. Hobe zen bakoitzaren imajinazioaren baitan uztea dena. Horrela, egun batean elkarrekin afaltzea proposatu zenidanean, munduko gauzarik normalena izan zen gure otordu hori plaian bertan egitea, oraingoan ere ituna isilpean gorde genuen arren. Play:

Coge tu sombrero y póntelo
vamos a la playa calienta el sol

Stop. Iluntzen ari zuen eta hondartzan ez zen geratzen haur pare bat baizik txakurrarekin jolasten. Jantzita azaldu zinen eta horrek harritu egin ninduen, hasiera batean, berehala konturatu bainintzen ni ere jantzita etorri nintzela. Hello esan eta esertzearekin batera mahaspasazko plumcake zoragarria atera zenuen xorrotik. Nik bokadilloak eta ardoa jarri nituen hondar gainean zabaldutako toallan. Berez nahikoa genuen botila bakarrarekin baina nik bi ekarri nituen, badaezpada baino gehiago maltzurkeria pittin batez, ea edan ostean ausartzen nintzen, edo zu animatzen zinen. Ez genuen bigarren botilaren beharrik izan, lehena amaitu orduko moxkortua baitzinen: begietan txinpartak zenituen piztuak, eta mihia aldi berean arin eta baldar. Ni ere alegera samar nintzen. Itsasertzean oinak bustiz hasi ginen ibiltzen, bokadilloen erdiak eta botila hutsa uretara bota genituen, zeru-sabaira begiratzeko esan zenidan eta gau izartsuak babesten gintuela ikusi nuen. Ingurune erromantiko perfektu harekin ligatzen ez banuen lur zabaleko lerdorik ergel eta inozoena izango nintzela esaten nion behin eta berriz neure buruari, eta hala

ere ez nuen eskutik heltzea baino balentria handiagoetarako ausardiarik izan. Zu izan zinen pausoak geldiarazi, eskuak estutu eta begiak itxiz ezpainak nireetara eraman zenituena. Ia-ia ezin nuen sinetsi, kanpotik ikusten nuen dena, beste bati gertatzen ari balitzaio bezala.

Chiviriviri Porompompón
Chiviriviri Porompompón

Stop. Zoritxarrez, nire ametsak betetzeko bidean eta zorian zirela uste nuenean, goragalea etorri zitzaizun eta botaka hasi zinen berehala. Ahal izan nuen neurrian lagundu nizun nik, ez dakit gutxi edo asko izan zen. Ez nuen ezer askotarako adorerik behinik behin. Azkenik, zure onera etorri eta gero etxera zindoazela esan zenuen, eta nik ez nuen lagunduko nizula esateko kemenik ere izan, damurik.

–V–

Play:

El final del verano
llegó y tú partirás

Stop. Hurrengo goizean azaldu zinenean biharamunaren arrastoak ezagun zenituen aurpegiaren kolore beilegian, betzuloetako ilunean. Egun hartan bertan bueltatu behar zenuela Eskoziara bota zenidan ziplo. Sor eta lor gelditu nintzen, baina nire erreakzio ahalmen murritz eta berankorrari egotzi behar litzaioke hori; izan ere, normala eta bidezkoa zen zure itzulera hilabetea bukatzen ari zelarik, baina niri ordura arte bururatu ere ez zitzaidan egin joan egin beharko zenuenik. Tristeziazko lanbroa sumatu nizun begien sakonean, baina aurpegiaz irribarre egiten saiatzen zinen. Nire harriduratik irten ezinik, hitzik ere ez nuen esan, ez nuen esaterik. Eskua luzatu eta ilea laztandu nizun; zuk orduan burua makurtu, nire eskua belarriaren eta sorbaldaren artean harrapatuz. Isilik geratu ginen, unibertso osoa geratu zen isil eta geldirik, itsas txorien karranka urrunak edo bertako umeen errekerimendu ozenak gorabehera. Play:

Yo no sé hasta cuándo este amor tú recordarás
Pero sé que en mis brazos yo te tuve ayer
Eso sí que nunca, nunca yo, olvidaré

Stop. Orduan etorri zitzaidan burura gogoeta beltz hura. Afaltzera gonbidatu ninduzun baina despedidakoa zen hura, azken afaria, eta emandako muxua Judas Iskarioterenaren antzekoa. Gorroto nizun horregatik. Nik ez nuen artean ikusten eskuzabal jokatu zenuela, bihotz onez; nire ilusioen gaztelu fantasmagoriko ez oinarri ez haberik gabea zapuztua zenuen eta ez nuen besterik jakin nahi. Malko batzuk etorri zitzaizkidan begietara eta zuk, kontsolatu nahian, besarkatu egin ninduzun, hitz goxoak esaten hasi, my darling eta horrelakoak. Baztertu egin zintudan: zu ere triste zeunden. Altxatu eta korrika joan nintzen ihesi, korrika, ihesi, korrika, ihesi. Play:

Dime dime dime dime dime amor
dime dime si es verdad
lo que sientes en tu corazón

¿es amor en realidad?

Stop. Akitu arte egin nuen korrika, eta gero ere ez nintzen atzera itzuli. Azken asteetako zera guztia nerabilen gogoan, eta argitu ordez gero eta nahasiago nengoen, gero eta ageriago nahigabe eta arrangurak, urratu arte bere zaurian hazka dabilenaren antzera. Ilunabarrean hondartzara bueltatu nintzen eta bazter batean kausitu nituen neure toalla eta bestelakoak, zoko batean ahazturik, ni bezalaxe.

–VI–

Play:

En la playa estoy tumbao, o o o o
Mari Pili está a mi lao, o o o o
y una nube bajo el sol va diciendo qué calor

Stop. Bakar bakarrik nago. Ez dut inor ondoan. Joan zait nire latinezko irakasle partikularra.

Hemendik aurrera bakarrik estudiatu beharko dut:

Quodsi haec vox huius hortatu praecepstisque conformata nonnullis aliquando salutis fuit, a quo id accepimus quo ceteris opitulari et alios servare possumus...

Jasanezina oraindik ere. Ezin naiz inolaz ere kontzentratu. Nire bakazioak bukatzeko beste pusketa bat geratzen zait, baina latineko azterketa gero eta hurbilago. Zu gero eta urrunago. Zergatik izan ote nintzen horren zozoa, horren umea? Azken momentuan ihes egin eta helbidea emateko astirik ere ez. Beharbada hobe da horrela. Ez luke zentzu handirik horrelako zera batekin segitzeak. Bueno, ez dakit. Play:

Mi cigarrillo emboquillao, o o o o
Una toalla y un helao, o o o o

Stop. Hutsago dago hondartza azken egunotan. Soiluneak nabarmenagoak dira, belaontziak urriago, umeen zarata motelagoa. Lehenago iluntzen du eta arratsetako hozkirriak jertsea erabiltzera behartzen du. Freskoagoa izango da

Eskozia seguru asko. Kasualitate handiegia litzateke berriz ere elkar ikustea, ezta Cherild? Gainera, dena izango litzateke diferente; edo ez, auskalo! Uste ez bezalakoa suertatu zait uda hau. Zuk ere ez zenuen holakorik esperoko. Esan beharreko gauza asko geratu zaidala uste dut. Uda bat laburregia da den-dena esateko. Baina dena esan beharrik ere ez dago. Play:

No, no, no, Mari Pili no, no, no
No, no, no, no me excites por favor.

Stop. Barrezka sumatzen ditut kalatxori asaldatuak eta kasete herdoildua. Badirudi trumoia izango dugula gaurkoan. Ortzia behintzat hodei beltzez ari da betetzen. Ni ere banoa. Pena ematen dit, halere, kanta hau erakutsi ez izanak. Polita da, ironikoa, diferentea eta, era berean, tradizio iragan baten azken alea. This is the last summer song, esango nizun nire ingeles petral honekin. The last summer song, Cherild, the last summer song.

[1985]

Nenufare zuria

edo Ishmir eta Guzmuden ipuin zorigaiztoko eta moralexa mingotsa

Aurreko batean M.-txikirekin nenbilen paseoan, eskutik helduta biok, arboletako txori kantariei entzunez eta zoruko harrixken artean nabarmentzen zen lata bati ostikoka. Kilimaka eta barrezka gindoazen biok, eta, meriendarako ordua zuenez, alboko jesarleku batean eseriko ginen galdetu nion. Bertan jarrita, nocilla bokadilloarekin batera tabako paketea ere atera nuen, zigarro bat erretzeko asmotan. «Kontaidazu ipuin bat» eskatu baino gehiago agindu egin zidan. Txanogorritxorena, hiru txerritxoena, Errauskinerena edo zein nahi zuen galdetu nion, baina berak ezetz, neronek asmatua behar zuela. Lepogainera eraman nuen eskua, hazka. Zaila jartzen zidan egitekoa, eta ez zitzaidala ezer bururatzen aitortu nion. Halaz ere, ez zuen amore eman eta bere temari eutsi zion, kontatzeko eta

kontatzeko. Ogitartekoa jango bazuen eta zigarroa bakean erreko banuen zerbaiten asmatzen hasi behar, eta, bestelako biderik ezean, horrenbeste aldiz jorratutako ildotik jo nuen. Holaxe:

«Nik kontatuko dizudan gertaera aspaldi oso aspaldikoa da, txoriek artean hitz egiten zutenekoa edo gizakumeok beren solasa ulertzen genuenekoa. Eta urruti, oso urruti gertatu zen, hara heltzeko hiru urtetan zehar hamaika itsaso nabigatu behar baitziren itsasontzi handi batean. Urte osoan elurrez horniturik zeuden mendiek inguratzen zuten lurralde hura, mendi arteko haranetan ibai garbietako ur jostalariek freskatzen zituzten urertzeko limoiondoak, eta hauek beren itzal goxoa eskaini nahi zuen orori.

Lurralde zabal eta jori hartako parajerik ederrenean jauregia zegoen eraikia. Handik erresuma osoko bazter eta txokoak ikus zitezkeen, eta bertako ortu oparo eta txori zoragarriek herritar guztien ikusgarri bihurtzen zuten. Jauregian Abdali ul-Areah patxa gorena bizi zen, zeinak herritar guztien bizitzak gobernatzen baitzituen eta

denen begikotasun eta maitasuna jasotzen. Ez ziren hara helduak gure gizarte hau joa duten gaitz eta izurriteak, bai baitzekiten anartean bakean, elkartasunean eta adiskidetasunean bizitzen.

Gure istorioa euriteen sasoiaren ondoren ihintzak loreak oro zuriz jantziak zituen goizalde hozkirrian hasten da; eguzkiak bere irteera egin aurretxoan, ekia bera baino ere ederrago, politago eta beroago zen umetxo txiki bat jaio zen Jauregiko dorre handiko gela nagusian. Ab-dali patxaren andre gaztea alaba muxugorri batez erdi zen. Denak zeuden pozak txoratzen. Festa handia ospatu zen erresuma osoan. Arroz-ardoa edaten zuten herrikideek ere, berentzako osasuna ez ezik, nexka jaioberriarentzako zoriona opa zioten elkarri topa egitean.

Umeari Ishmir eman zioten izena, hiazinto eta nartziso petaloak baino xuriagoa zelako. Jauregia opariz bete-bete eginda geratu zen: gorteko jaun-andereek oro beren erregaliak ekarri zituzten: zeinek harribitxiak, marfilezko apaingarriak, zeinek aspaldiko artistek egin pintura miresgarriak. Auzoko eta ez horren hurbileko enba-

xadoreek ere eskumuinekin batera ehun preziatu, kaobazko edergailu eta urrezko idunekoak eskaini zizkioten. Izan zen, halere, gehienentzat oharkabean geratu zen opari bat: esku trebeek landutako ederlan suntuos haien guztien artean, naturak berak bere sabel eta magaletik emandako nenufare zuri bat ikaragarri handia zegoen, ederretan ederrena. Lorea Guzmud gazteak, Jauregiko ipotx konkortu itsusiak ekarria zen idoizulo sakon beltz batetik; berak ez beste inork ezagutzen zuen basorako bidean aurkitzen zen putzu usaintsu ezkutu hura, zeina, euri-jasen ostean eta berauen ondorioz, inon diren nenufare eskerga eta zoragarrienez betetzen baitzen. Opariak opari, Ishmir ez zen orduan den mendrenik ere ohartu inguruan gertatzen zenaz.

Urteak aurrera egin ahala haziz joan zen Ishmir gurea, ttaka-ttaka ikasi zuen oinez, baita esku txikiekin edozer gauza heltzen ere, eta gero eta maiteago zuten etxekoek eta herrikoek; edonori eskaintzen zion bere irribarre zabala, denak jartzen zituen barrez lehertzen bere ateraldiekin, zorionezko malkorik ere isurarazi zuen bihozberen artean abere eta landareengana era-

kusten zuen arreta eta ardura zirela medio. Denek on bazeritzoten ere, Guzmud bufoia zen maiteen zuena, kapritxo guztiak betetzen zizkiona, maina gehien egiten ziona, jolasean ari zela kuttuntasun eta are mirespenez begiratzen ziona. Euriteen sasoiaren ondotik Ishmirren urtebetetzea zetorrela, herritar guztiak joan ohi zitzaizkion jaki, janzki eta espeziak eskaintzera, eta Guzmudek, urtero legez, nenufare zuri ezin ederragoa eramaten zion bere osin sekretutik. Berau zen printzesak gehien espero eta estimatzen zuen oparia, eta, inori esaten ez zion arren, bazekien hori Guzmudek berak ere. Izan ere, bazen bien arteko komunikazio ahalmen berezi bat, Guzmudek isilpean gordetako bihurrikeriekin landua eta batak besteari belarrira esandako kontu txikiekin trebatua.

Samurki maite zuten elkar nexka txikiak eta ipotx konkordunak. Guzmudek hegaztien lumak eta kantuak bereizten, kilkerrak eta ipurtargiak harrapatzen eta aspaldiko doinu zaharrak kantatzen irakasten zion. Ishmirrek, berriz, Patxaren mahaiko janari gozoenak eraman, ziren eta ez ziren arazo eta burutazioak kontatu, eta egiteko

zeuzkan galdera guztiak zuzentzen zizkion. Izan zen neskatxa pollit eta munstro gizagaixo haren arteko adiskidetasuna batere egokia ez zela esaka ibili zenik, baina ez zuen inork aintzat hartuko halako esamesarik haurraren begirada alai eta bozkario lausogabea ikusiz gero.

Eurite eta lehor, hamabosgarren urtea bete behar zuenekoa heldu zen eta, ohi zen legez, alabaren esku eske etorriko zitzaizkion berehalaxe Patxa Gorenari herrialde eta bazter orotako printzerik dotore, prestu eta aberatsenak. Urtebetetzeko festa eta ospakizunen prestaketan buru-belarri sartuta zebiltzan denak, inoiz inon ikusi gabeko jaiak, ikuskizunak eta oturuntzak burutu nahi baitzituzten. Erresuma osoan burumakur zebilen bakarra Guzmud gaixoa zen, baina bere inguruko jendea lanpetuegi zebilen ezertaz konturatzeko, eta jabetzen zirenek ere ez zioten kasu handirik egiten, denbora faltaz edo berehala pasako zitzaion goibelaldia iritzita. Guzmudek berak ere ez zuen bere egoneza nabarmenarazi nahi, eta besteek bezalaxe zihar-duen jo eta ke lanean, gortinak garbitzen, tapizak astintzen, zoruari argizaria ematen edo suzi-

riak pronto jartzen, baina begiak zuri geratzen zitzaizkion, ezerezean finko, eta esku artekoa lurrera jausten zitzaion bera ohartu ere egin gabe. Sufritzen ari zen Guzmud, eraman ezinezko dolorea zuen bihotzean sartua, eta Ishmir ikusten zuen bakoitzean ihes egiten zion, neskatxa kontura ez zedin, berau baitzen bere sufrikario eta pairamenen iturri eta sorburu. Guzmudek, bere kondizioari egoki litzaiokeen baino areago eta suharrago maite baitzuen Ishmir. Ordura arte berea uste zuen printzesa, jolasetan bederen, bere-berea zuen ametsetan, eta ez zuen pentsatu nahi ere zer jazoko zen umetxoa hazten zen egunean: etorkizuna ez zen existitzen. Oraingoan, ordea, Gorte osoa senargaiez mintzo zelarik, begien bistakoari ezin zion ez uko ez itzuri egin. Bere ameskizun eta asmakizunak oro lurrunduz eta airean ezabatuz zihoazen, tximeleten lorratzen antzera. Tximetatik tiraka aritzen zen, ero moduan, minaren minez torturaturik.

Egun handia iritsi zen. Zaldi zuriek gidatutako karroza distiratsuetan ari ziren printzeak iristen. Jendetza bide bazterretara bildua. Kapeluak airera botaka. Jauregiko sukaldeetan azken or-

duko prantaketak. Ishmirren geletan jostun eta otseinak azken momentuko txukunketetan. Zarata eta koloreen eztanda txundigarria. Guzmudek eskaileretan aurkitu zuen Ishmir, sekula baino zoragarriago eta liluragarriago, begiak pozaren pozez. Konkorrak burua apaldu zuen, oinetara begira. Printzesak, zer zuen galdetu zion eztiki. Guzmudek ezkutuan zekarren nenufarea erakutsi zion, berau ere ordura artekoetan handien, zurien eta ederrena. «Lorerik ederrena neskarik ederrenarentzat» esan, eta berriro begiratu zuen lurrera. Ishmirrek, pozarren, pot eman nahi izan zion, baina ipotxak atzera egin zuen. Biak elkarri begira geratu ziren, printzesak goitik eta bufoiak behetik. Guzmud larri zegoen, izerditan blai, eta hizketan hastearekin batera zotinka ere bai: «nik... nik...» esaten zion, eta azkenik, negarrez edo purrustaka ari zen nabaritu ezinik, «maite zaitut» esan eta mailadian behera joan zen, oker-oker eginda baina ahalik eta azkarren, atzera begiratu gabe.

Basora joan zen lasterka, gelditu ere gabe, eta hiritik urruti zenean geratu eta orduan egin zuen negar: aise, gogotik, luzaro. Aspaldi zen

ohartua bere amodioaren ezintasunaz, baina zauri sendagaitz hark okerrera egingo zuen Jauregian zegoen bitartean; basotik irten gabe biziko zen aurrerantzean, bera zen piztitzar beldurgarriari zegokion legez.

Kobazulo bat aurkitu zuen lo egiteko, eta han geratu zen handik aurrera. Hostoz atondu zuen ohantzea, eta arboletatik hartzen zituen fruituak zituen janari bakar, ez baitzuen basoko animaliarik hil nahi. Soinean zeramatzan arropak urratu zitzaizkionean biluzik ibili zen. Bizimodu hura latzegia ote zen bururatzen zitzaionetan, halako munstro batek besterik ez zuela merezi ziotson bere buruari. Piztien artean bizitzearen poderiozedo, berez ohi zuen baino makurrago eta okerrago hasi zen ibiltzen hara eta hona, eta, inoiz edo behin inguruan gizakumerik sumatuz gero, korrika bizian ezkutatzen zen bere leize zuloan. Ez zekien zer gertatu zen Jauregian, ezta jakin nahi ere. Aitorpena egin eta gero Ishmirrek zer aurpegi jarri, zer pentsatu ote zuen zetorkion gogora, baina laster uxatzen zituen burutazio haiek: berak ez zuen esperantzarik ezta edertasunera-

ko eskubiderik ere, eta ondo egin zuen atzera begiratzeke ihesari ematean.

Euriteen sasoia iritsi zenean, bere eguneroko bazka osatzen zuten bihi, ale eta ezkurren bila zebilela, orein ttiki bat ikusi zuen, uholdeak lurrera botatako enbor handi baten abarrek harrapatua. Bizirik zegoen eta auhenka. Guzmud bertaraino joan zen eta, bere indar guztiez, abar artetik irteten lagundu zion. Oreintxoak orduan, hau ustekabea!, gizakumeon hizkuntza garbian adierazi zion baso haietako intxixua zela, Guzmud baso hartara iritsi zenetik ezaguna zuela, eta, abereenganako bere jarrera eta jokaera zintzoagatik eta, batez ere, abelera gaizto hartatik bera libratu eta salbatzeagatik, aukera ematen ziola berak nahi, desio eta gura zuen mesedea eskatzeko, orein-intxixuak hantxe bertan bihurtuko baitzuen egia Guzmuden guraria.

Ipotxa aho zabalik zegoen, ezin sinets zezakeen amonaren kontakizunetan azaltzen ziren intxixu haiek egiazkoak zirenik, are gutxiago berari azaldu eta nahi zuen gutizia beteko ziotenik. Bere harriduratik atera zenean edozer gauza eska al zezakeen galdetu zion, agerpen miraga-

rri hura erabat egosi eta irentsi ezinik, nonbait. Oreinaren baiezkoa jaso bezain laster, bere gorpuzkera trakets eta nazkagarriaren ordez gizaseme galai baten itxura besterik ez zuela nahi adierazi zuen Guzmudek, gehiegi eskatzea eta atrebentzia ez bazen bederen. Intxixuak barrearri eutsi eta keinu bat egin zion ipotxari, uhar nahasiak han ondoko soilune batean egindako putzu barean bere buruari begiratzeko. Zangoak dardarka zituela jo zuen Guzmudek putzu aldera, ikaraz beteta begiratu zuen ugaldera, eta ur azalean ikusi zuena ez zen ez konkortua ez itsusia, ezpada gazte lerden, eder eta sasoikoa, elefantearen ehizan ibiltzen direnetakoa. Pozak zoratzear, jauzika joandako orein ttikiari eskerrak emateko aukerarik gabe eta bere biluztasunari erreparatzeke, haranetarantz abiatu zen maldan behera saltoka, arrapalada bizian. Landa-lur zabalak hasten ziren gunean, bere zain bezala, zaldi beltz gihartsu bat eta zeta zurizko janzki batzuk zeuden. Zaldira igota, honen zelan kutxatxo bat ikusi zuen, eta beronen barnean harribitxi sorta polita. Oreinaren azken fabore osaga-

rria zela konprenitu zuen, eta eskerrak eman zizkion bere artean.

Kezka berri bat zuen halere Guzmudek, alegia, ez ote zen ordurako ezkondua izango bere Ishmir bihotzekoa. Ziztua baino bizkorrago zuzendu zituen zaldiaren oin eta hankak hirira, eta are arinago zebilkion burmuinetako salda nahasi hura: eta Ishmir urrunera joana baldin bada, pentsatzen zuen, edo ezkonduta baldin badago, edo hartu nahi ez banaute? Gauza bakarra zeukan garbi Guzmudek: zer gerta ere, ez ziola inola esango bera nor zen, edo, zehatzago, nor izana zen. Izen berri bat ere asmatu beharra zeukan, eta Azmal etorri zitzaion burura.

Jauregi ingurura ailegatzean, herritar batzuei galdetu eta –hura asturuaren ona, Jainkoen bedeinkazioa!–, Ishmir gaztea oraino ezkongai zegoela jakin ahal izan zuen. Printze boteretsu, aberats eta mardul askoak aurkezten zizkioten arren, hark ez omen zuen arras bere gogokorik aurkitzen, guztiei antzematen omen zien joera txarren bat, edo bestela ezdeusak sumatzen omen zituen, zer edo zeren faltan baleude bezala. Aita gaixoak ez omen zekien zer egin alaba-

rekin, baina, nolanahi dela, oraindik ere eusten zion esperantzari, hari-izpi mehe batez besterik ez bazen ere.

Jauregian azaldu zen, bada, lehengo Guzmud orain Azmal bihurtua, eta Patxa Gorenaren aurrera eraman zuten. Beroni esplikatu zion herrialde urrun batetik etorria zela Ishmirren edertasun eta adeitasunaren ospeak erakarrita, eta, horretarako baimena ematen bazion eta ongi baldin bazeritzon, emaztetzat galdatzen ziola alaba, hori esateaz batera printzesarentzako zekartzan opariak erakusten zizkiolarik. Ab-dalik ihardetsi zion oso begiko zeritzola haren pertsonari eta egoki honen proposamenari, baina baimena, onespena eta oniritzia alabak eman beharko zizkiola, berak ez baitzuen hor zeresanik, ez ezer esaterik; suerterik onena opa ziola, baina beldur zela halere ez ote zitzaion aurreko guztiei bezalatsu gertatuko.

Gazte biak aurrez aurre egon zirenean, ordea, dena izan zen erraza. Azmalek ederki asko ezagutzen zituen Ishmirren gurari eta zaletasunak, eta honen begien aurrean atsegin, xalo eta gizabidetsu agertzen ederki asmatu zuen,

ederki asmatu zuenez. Kontentu zebiltzan biak eta kasik kontentuago Patxa Gorena, ia urtebeteko nekeen ondoren bere ametsa burutua ikusi ahal izango zuela pentsatze soilaz. Berehala nahi zuen ezkontza, eta gazteek bere onespena eman zutenez, neskaren urtebetetze egunean egitea erabaki zuen, Ishmirrek hamasei beteko zituen egunean hain zuzen. Aurrekoak handiro ospatu bazituzten oraingo festa hauek sekulakoak izango ziren, fastuosoak, zeruaz beheitiko guztiak txunditzeko modukoak.

Itzalik gabeko maitasun ezti eta irmoa sendotu zen Ishmir eta Azmalen artean. Elkarren beharrean eta mirespenean bizi ziren, ezin bata bestea gabe moldatu. Egunsentitik ilunabarrera etengabeko irri eta jolasean aritzen ziren Jauregi inguruko ortu eta lorategietan.

Baina...».

Eta momentu horretantxe konturatu nintzen ezin nuela ipuina amaitu, edo ezin niezaiokeela behintzat nahi nuen bezalako happy end-ik eman. Hara, arazoa hauxe da: Ishmirren urtebe-

tetzea datorrenez, Azmal-Guzmudek erregaluren bat egin beharko dio, eta, jakina, hamabost urtez nenufare zuri bana oparitu ondoren, hamaseigarrenean ere usain gozo freskoa zerion beste nenufare handi bat ekarri nahiko zion osineko urgainetik. Besterik egitea bere buruari –Guzmudenari– eta barren-barrengo sentikizunei uko egitea zatekeen; berebiziko alienazioa, era zientifikoago batez esatearren. Hartara, zer posibilitate geratzen zaizkigu? Egin dezagun analisi kasuistiko bat:

Lorea erregalatzen ez badio, ezingo da lasai egon ez gau eta ez egun. Beti itxurak egiten bizi beharko duela pentsatuko du, eta horretarako ez duela merezi amodio-lilien ahogozoa dastatzea, ez dohainez betetako gazte eder eta sendoa izatea. Ishmirrek bere bihotzagatik ez baina itxura hutsagatik maite duen susmoari ihes egin ezinik ibiliko da, egia jakinez gero aurpegira berriro begiratuko ez liokeen beldurrez. Bere katramila eta buruhausteak isilpean gorde beharko ditu Guzmudek, eta horrek goibeltasun eta bakardadezko bizitza ilunera eramango du ezinbestean. Azmal eta Ishmirrek ezingo dute zoriontsu izan.

Lorea erregalatzen badio, berriz, bere nortasuna ere salatua dio. Orduan Ishmirrek esango dio Guzmudi horrek ez duela batere inporta, honen bihotz zabal eta dohain apartengatik maite baitu berak, eta ez denborak eta eritasunek beraiekin eramango duten edertasun iheskorragatik. Guzmudek sinetsi egingo dio Ishmirri, beharbada, edo esplikazio hori errukiak eragina dela pentsatuko du bestela; nolanahi dela, halako susmo bat geratuko zaio betiere. Erabat sinetsita ere, Ishmirrek ezingo du sekula jakin Guzmudek zinez sinetsi dion ala andrea lasaitzeko esan dion sinetsi duela; hala, bada, ezin itzuri nolabaiteko kezka horri. Batera nahiz bestera, elkarri minik ez egitearren sortutako gupida bihozbera horren errezeloek bien zorigaitza erakarriko dute, halabeharrez.

Beraz, ipuina ondo bukatzeko ezintasuna aitortu beharko. Badirudi ez dela posible iraganaren ahanztura pragmatiko bat, erregenerazioraako tarte gutxi geratzen dela, susmo txarren kutsu hori ezin daitekeela guztiz aratz, xahu eta purifikatua laga.

Beharbada, eta ondorio gisa, itsustasuna errotiko injustizia dela esan behar. Konponduko al luke ezein iraultza sozialek bidegabekeria lotsagarri hau? Ala etsipena baino ez zaigu geratzen?

M.-txiki noski, ipuinaren bukaerarik gabe geratu zen.

[1985]

Perla beltza

Herbert Raas, Iparreko itsaso hotza eta Nederlandeko ubide lasaietako ur bareak utzita Timorreko irlara etorri zenean, Sawu, Timor eta Sondako itsaso epel eta tiburoiez betetakoetan perlak bilatzera bultzatu zuena ez zen izan diruzaletasun edo aberasgogoa, inondik ere, bizitzaren ikuspegi erromantikoa eta abenturarako joera ezin neurtuzkoa baizik; eta hargatik hain zuzen, abenduaren zortziko eguerdi sargori hartan eskumutur itxia bezain handia zen perla beltz ikaragarri hura aurkitzean ez zitzaion bururatu ere zenbaterainoko dirutza irabaz zezakeen perlaren salmentarekin. Begi-niniak ezohiko argiaz piztu zitzaizkion eta behatz artean jira eta bira zerabilen bere aurkikuntza miragarria, koska eta kamer guztiak laztanduz, haren azalaren orografia osoa buruz ikasi nahi balu bezala.

Yatean bertan atontzen zituen Herbertek orduak gehiegi errespetatzen ez zituzten janari legeak, berak harrapatu ezean inguruko arrantzaleei erosten zizkien arrainez eta inguruko ortue-

tako barazkiez osatuak; izan ere, itsasontzia zuen etxe bakarra Timorrera iritsi zen egunaz geroztik, eta oskol hartan bertan egiten zituen Kupang eta Dilirako noizbehinkako bidaiak, non aurreko aste edo hilabeteetan lortutako perlak gaizki saldu eta ontziarentzako gasolina eta beharrezko zituen beste hainbat gauza erosten baitzituen, bidenabar mahaian eserita bazkaldu eta itsasoaren kulunkaren arabera mugitzen ez zen ohe batean lo egiteko aprobetxatzen zuela. Jakarta hiriburu urrunera ere joana zen inoiz, Javako itsaso luzea osorik zeharkatuz, Mendebaldean utzitako lagun eta ahaideekiko tratuari eusten zioneko garaian, baina aspaldi etena zuen harreman hura eta ahaztua haienganako ardura, itsasgainean zanbuluka zebilen ontzi huraxe baitzuen aberri eta errealitatearekiko lotune bakarra. Itsas hegiko etxola mixerableetan bizi ziren arrantzaleekiko erlazio estuegirik ere ez zuen, aipatu erlazio komertzialak salbu, eta horientzat ere arrotza zen atzerritar larruzuri perla-bilatzaile bakarti hura, hizkuntza estrainio batez mintzo zena.

Eguzki galdatan perla beltzak eragiten zituen distira zuri-zurien mirespenaz hordi eta kontzentraturik zegoela, harribitxiaren dir-dir hori kostaldeko bizilagunen batek ikusiko ote zuen kezka barruntatzen hasi zen, eta, horrekin batera, patrikatik ateratako musuzapi zurian bil-bil eginda bere gelatxora sartu zuen eta ohe azpian gorde, aztoraturik. Atzera kubiertara irtetean alkandora eta oinetakoak erantzi eta argi-errainuek trabeskaturik bere azpi geldo eta nabarra ikusten uzten zuten uretan murgildu zen, igeri ari zela hobeto funtzionatzen baitzuten bere burmuinek eta edozein egoeraren ikuspuntu zabalago eta argiagoa eskaintzen: une hartatik aurrera bere bizimodua sustraitik eta erabat aldatuko zela sentitu zuen, nahiz eta berak ezingo zuen esplikatu zergatik edo nondik zetorkion zehazki susmo hori, ezta zertan gauzatuko zen aurreikusitako biraje behin betiko hori ere, antzeman ezinezko sentsazioa baitzen berak beti bezala segitu nahi izan arren bizitza halabeharrez kanbiatuko zitzaiola ziotson hori. Beste alde batetik, bere buruari lur zabaleko eta ozeano mugagabeetako gizonik zoriontsuena irizteko arrazoi aski bazue-

la iruditzen zitzaion, asturuak bera baitzuen aukeratua gizakume hilkor gaixoen artean, ezein begik ikusi gabeko, gizaldi eta gizaldietan sekula santan izandako harri puska harrigarrienaren jabe izateko. Tunika purpura besterik falta ez zuen jainko olinpiarren pareko senti zitekeen, adurraren esku aldakor eta haizeen menekoak seinalatua, bere bide noraezekoan mugarri izango zen hura agerrarazteaz batera. Badaezpadako zorion hari eutsiko bazion, nahitaezko zuen, zernahi gertatzen zelarik ere, perla beltza bere mendean gorde eta mantentzea behin betiko, handik edo hemendik azal zekizkiokeen arerio posible eta etsai ikusezinen aurkako borroka meniarik gabean.

Haragi fresko eta odoltsuaren usainaren presentzia hurbila aditzen duten tiburoien gisa, ontziaren inguruan aritzen zen igerian gero eta zirkulu estuagoetan, harik eta zangoez edo besoez metalezko kasko gogorra jo eta berriro kubiertaren gainera igotzen zen arte. Igerialdi labur eta kontrolatu haiek ziren bere buruari zilegitzen zizkion atseden une ia bakarrak, gainerakoan, lurpean gorde duen hezurraren zaintzan dabilen

zakur amorratuaren gisa, bueltaka aritzen baitzen ontziaren barruti estuaren ertz batetik bestera, gosearen zimikoak sabelean kosk egiten zionean kanabera hartu eta bertatik eginez ahal zuen arrantza, zeina ozta-ozta iristen baitzen bizitzeko beharrezkoa zuena osatzera. Arrantzale ilun eta hits haien etxola mixerableetara ere ez zen geroztik hurreratu zeren, haiek erotzat bazeukaten ere, zitekeena iruditzen baitzitzaion susmo arraro batek hartuta, edo inbidiak, goseak nahiz jakin-minak jota, bere barkura etortzea ahal zezaketenaren lapurreta zekena burutzeko, eta beldur horren kariaz ia loak hartu gabe iragaten zituen gauak oro, begiak erdi hertsirik, edozein zaratots edo marruma entzun bezain pronto itzarririk, erne, ohoinak zitezkeelakoan gaueko mamuen zelatan, inoiz erabili gabeko errebolber herdoildua magalean eta ontziko labana eta ganibet guztien aho zorrotz biluziak eskura. Yatea ere ainguraturik zeukan lekutik apenas eta oso noizean behin mugiarazten zuenez, ez zuen Dili eta Kupangera gasolina bila joan beharrik izango, bidaia hura arriskuz beterik ikusten baitzuen orain; zer esanik ez negoziante zuri,

gaizkile makur eta abenturazale lapurrez mukurutu eta kutsatutako hiri zatar beldurgarri haiek.

Gaztelu garaiezin eta are gotorleku bihurtutako barkutik mugitzeke, Damaskoko Kalifak bere emazteen harema gordeko zukeen mesfidantza eta maltzurkeria berberaz begiratzen zuen bere altxor preziatua, nahiz eta bere buruari eskaini ez marabilla hura une oroz ikusi, dastatu eta miresteko egokierarik, zeren, agerian utziz gero, nonahi ezkutaturik egon zitekeen izterbegiren baten begi-bistan geratuko baitzen bere sekretua, eta haizearekin berarekin, eguzkiaren ñir-ñir kiskalgarriekin eta itsasoaren ur tanto gaziekin bere ondasunaren kontenplazioa konpartitu behar hutsak ernegarazi egiten baitzuen senarrik jeloskorrena baino are jeloskorrago bihurtutako Herbert marinel perla-bilatzailea. Inoiz edo behin beste perla batzuen bila abiatzeko ideia tximistaren gisa burutik pasatzen bazitzaion, bere zaintza-lan astunak buruari zekarkion zama nekagarria apur batean arintzearren batik bat, halako alferlan batean ahalegintzea hutsal eta antzutzat joaz urruntzen zuen azkarki bere garunetik asmo inozo hori, zeren eta, itsa-

soan zen perlarik eder eta handiena bere eskumenean baldin bazeukan, ez zuen ezertarako behar berearen aldean bideetako harri-txintxarren gisakoak ziren horietako alerik, are gutxiago horren ondorioz bere barkua eta batez ere perla beltza hutsik, abandonaturik eta ager zitekeen zeinahi gaiztaginen menpean utzi behar bazituen.

Ontziaren alde batetik bestera mila buelta eman ondoren eta bere gelatxoko ohe meharrean hamaika jira eta biratan aritu ostean egunaren tentsio eta unaduraren poderioz loak azkenik bere menean hartzea lortzen zuenean berehala hasten zitzaizkion bere lokamuts torturatzaileak, non behin eta berriz azaltzen baitzitzaizkion lapur multzoak eta ebasle andana, denak ere bere perla beltza ostu nahian, eta zeinetan, batarekin eta bestearekin gatazka gogor eta amaigabeetan odolusteraino borrokatu eta gero, azken finean beti eramaten baitzioten perla gutiziatua begien aurretik, bera eginahalean saiatu arren ezin zitekeelarik higi, ez ezertxo ere egin. Bere desesperazio eta oihu aldi berean ozen eta entzunezinen artean izkina eta

bazter guztietatik aditzen ziren barre algara zalapartari eta tematiez amaitzen ziren amesgaizto izugarri eta errepikakor hauen ostean, loaldi llabur bat besterik egin gabe baina izerdi patsetan itzartzen zen Herbert, lehen baino askozaz artega eta urduriago, eta, sukarrak hartuta bailegoen zangoak zanbuluka, perla beltza gorderik zuen lekura amiltzen zen, bizia bera arriskupean balu bezala, eta, behin perla eskuetan zuela, adiadi geratzen zitzaion begira, ahoa zabalik eta begiak zabalduago, zeharo liluraturik.

Kutuna edo talismana baino areago bere bizitzaren estigma bilakatua zen perla hura aldamenean eduki ezean ezin zitekeen harrezkero momentutxo batez ere lasai egon gure gizona, eta hargatik eramaten zuen beti aldean, zela patrika zuloan, zela altzoan edo esku ahurretan. Horrela ematen zuen egun osoa, zeren, gero eta gutxiagotan mugiarazten zuten soinaren premia ezinbestekoek besterik eskatzen ziotenean izan ezik, gainerakoan itsasoak egunak aurrera egin ahala jasaten zituen aldaketa nabariezinei erreparaka eta beha egoten baitzen: goizean goiz, zeru sabaian izarrak ezkutatzen ari zirela, mendebal-

dean more koloretik urdin ilunera eginez eta ekialdean argi mehe batek hodei bakan meharrak zeharkatuz eta gorritasunez beteaz eguzkia irten orduko, itzalen erresumatik jaio eta bere mugak zedarritzen ari zen itsasoaren ur azal berdeari zer kresal usain gozoa zerion!; eguerdiko labe gorietan, ekia bere jaurgoaren gailurrean eta ponperiaz horniturik meneko guztiei bere nagusitasuna krudelki ezagutarazten eta betiereko umiltasunari zin eragiten ari zitzaiela, irakiten ziruditen uretan arrainak berak ere kasik sabel gora jartzen zituela, hura itsasoaren gardena!; arrastirian, landareak oro ernarazi eta gizonemakumeak oro lastozko teilatuetako etxola mixerableetan ezkutarazten zituen zaparrada jausi eta urgaina arreagotu ostean, ur beltzen misterio erakargarria belarrira xuxurlatzen zuen murmurio iluna aditzen nolako lanak!

Noizean behin, patrika zulotik mukizapi bildua atera, fardelaren korapiloa askatu eta perla beltzari aldi batez so geldi geratzen zitzaion, mugimendu sumagaitzen bat antzeman nahiko balio bezala, lurraren sabel zulatuetatik meatzari esklabizatuek lanaren izerdiaz erauzitako ika-

tzarena zirudien belztasuna eta eguzkipean adats hori joria orrazten ari den neskatxaren ispiluarena ematen zuen argiaren islatzea erlijiosoki eta debozioz miresteko. Perla basa haren koskor ximurren ukimenak zemaion sentsazio atsegina asetzeko asmoz, lurralde jelatuetako hartz zuri handien larruaren leuntasuna zuen gainazal zakarra ferekatzen zuen neurrian belarriaren ondo-ondora eramaten zuen eta haren kontra jarri, adi-adi entzuteko keinuaz, haren barreneko kantu apala, musika isila edo soinu emeren bat banaro nabari eta entzun nahirik-edo, baina, halere, egunez egun entzutearen poderioz isiltasun nagusiaren pareko bilakaturiko itsasoaren zurrumurru taigabearen oskola apurtu eta gero bereiz zitzakeen soinu bakarrak lehorreko abere gautarrek beren harrapaketa eta ehiza saioetan egindakoak ziren, damurik.

Egunak zeramatzanez horrela, bai itsasoari bai perla beltzari begira, jatea ere ahantzia zuen, eta, horrek gorputz osoaren ahuldade eta makalaldia ekarri bazion ere, okerragoa izan zen urik ez edatearen ondorioa, zeina, gesalak sortutako egarriarekin eta egun osoa eguzkipean higitzeke

ematearekin elkartuz gero, hilzorira eramateko modukoa baitzen. Haluzinaturik zegoen erabat Herbert, itsasoa eta ortzia hodeiertzaren ardatzaren inguruan jiraturik eta alderantziz sumatzen zituela, eta gogoeta estrainioek betetzen zuten haren buru nahasia, hala nola perla hura hezur eta haragizko emakume bilakatua zitzaiola uste zuenekoa. Konturatzen zen horratio, argitasunezko une batzuetan, heriotza eta akabua zetorkiola laster bide horretatik, eta gurtu beharreko idolo ohoragarri hura madarikatu egin beharko zukeela, erlikia agurgarri eta sakratu hura bere aldetik bota, baina argi eta garbiago zekusan behin perla beltza norberaren eskuetan eduki eta gero ezin zaiola itzuri patuari, ezin zela haren sorginkeria exorzizatu, zeren, perla beltza itsasora jaurtikiko balu, berriz ere uretan sartzean ez bailuke beste pentsamendu eta ardurarik izango hura berreskuratzea baino; izan ere, zer ziren, zer balio zuten, zertarako nahi zituen beste perlak oro, galdetzen zion bere buruari etsipen argitsuzko irribarre batez.

Horizontearen atzean ezkutatu aurretik eguzkiak eskaintzen duen azken errainuaren gisa ari

zitzaion bukatzen, ahitzen bizitza, bereak egina zuen, eta ez zuen damutzeko arrazoirik ez beharrik, baina bere zorion eta eromena izan zen perla beltza berarekin batean eramango zuen, heriotzakoan ere lagun izan zekion, eta altxor magiko hori jende zatarraren eskuetan eror ez zedin. Geratzen zitzaizkion indar apurrez yatearen motorra martxan jarri eta gasolina bukatu zitzaion arte utzi zuen joaten, ozeanoan barrena, eta han, ontzia urperarazteaz batera, burdinazko pisu bati loturik eta perla beltza kolkoan, salto egin zuen uretara, tiburoien bazka eginik, bai bere burua, bai zoriak berari ez besteri emandakoa inork aurkituko ez zituelako esperantzan.

[1985]

Un petit cadeau pour madame

korte askotako pelikula

– Madame, pakete hau heldu berri da zuretzat.

– Niretzat? Aber, ekar ezazu.

Letizia andrearen esku artegak lore koloredunetako papera bihurritzen hasi ziren, ez baitzuen lazoa askatzeko behar hainbateko patxadarik. Blasen presentziaz ohartzean geldirik geratu zen, dignitatez, eta hotzean geratu zitzaion begira.

– Zerbait esan behar diot edo...?

– A! Tori, emaiozu propina.

Urrats txiki eta arinez bere gelara itzuli zen. Atearen danbatekoaz bat, esertzeko astirik hartu gabe, xorroa apurtu, lurrera bota eta kaxa zapal bat aurkitu zuen. Hura ezin eskuez hautsi; belarri ondoan astinduz, zer ote zitekeen pentsatu eta berehala joan zen sukaldera, kutxillo baten bila. Harriturik begiratu zion Josefinak, inolako

esplikaziorik gabe harakinaren antzera atea bere atzean ixten ikusi zuenean.

(KORTEA)

Taxia hartu beharrean berak gidatuz joatea erabaki zuen egun hartan. Atea irekitzean eskularruak atera zituen guanteratik, rubio bat piztu, eta azeleradorea indarrez eta azpiraino sakatuz arrankatu zuen.

Arma museoaren aurreko parkean zuen orduko zita. Garaiz zihoan baina ez zuen goizegi iritsi nahi eta, gogorrarena egitearren-edo, hamabost minutu berandu ailegatu zen, inguruko kaleetan bueltaka eta zigarroak erretzen aritu ondoren.

Hantxe zegoen Jean Claude, deskapotablearen kapota estalian apoiatuta, lerden, garai, dotore. Espigazko traje gris perla sobrioa zeraman, eta ile gominaztatuan tangero itxura ematen zioten onda batzuk zituen eginak.

– Asko itxoin al duzu, maitea?

– Ez.

Jean Clauderen kotxea hartu beharrean Letiziarena hartu zuten, baina Jean Claude jarri zen

gidariaren lekuan. Gizonki gidatzen zuen, oso, eta ez zuen hizketa gehiegirik egiten bolantean zihoala. Bestela ere ez, baina orduan gutxiago. Letizia, ordea, berritsu zegoen, eta Blasen mozolokeria, Josefinaren baldarkeriak, pelukeriako azken berriak, Clubeko atsoen esamesak eta antzekoak kontatzen zizkion. Jean Claudek moztu egin zion bere jario alferra.

– Zer egingo dugu gaur?

– Zuk nahi duzuna, maitea. Pentsatu al duzu zeozer?

– Chez Martin-en egin dezakegu bazkaria. Ez da jende askorik izaten.

– Konforme.

Iritsi zirenean Jean Claudek beti asmatzen zuela pentsatu zuen Letiziak. Dotorea zen baina diskretua. Han ez zuten ezagunik ikusiko. Erreserbatura pasatu ziren eta, kartako aukera zabalean galdu ondoren, maîtreak gomendatu ziena eskatu.

Jostalari zebilen Letizia, eta mahai azpitik belauna ukitzen zion Jean Clauderi. Honek irribarre serio samarra egiten zuen. Gero, takoidun sandalia bat kendu eta hankarteraino eraman zion

oina, maleziazko irriño batez. Jean Claudek ere beste irri batez erantzun zion, eskuaz harrapatu zion oina eta min pittin bat egin arte estutu; behatzak bihurritzen zizkiola, beste eskuaz ardo kopatik xurrutada laburra edan eta hala esan zion:

– Gero ere izango dugu nahiko denbora eta leku egokiagoa.

(KORTEA)

Hoteleko habitaziora heldu bezain laster toilettera joan beharra zeukala esan zuen Letiziak. Ximurrak ezkutatzen, ilea ondo txukuntzen, ezpainen gorria retokatzen, begietako pintura berrezartzen eta perfume gehixeago botatzen aritu ondoren irten zenean, arrosa sorta bat eta xanpain botila hotza ikusi zituen.

– O!, Jean Claude, zoragarria zara! –atera zitzaion bihotzetik.

– Zu bezalako dama batek merezi duena baino ez da hau –erantzun zion Jean Claudek, bi esku gihartsuez gerritik heltzen ziola.

Kopa bana xanpain hartzen ari zirela disko bat jarri zuen Jean Claudek, eta dantzan hastean berak ez bestek zekien bezala egiten zion koska lepoan, belarri ondoan, eta soinekoaren hebilla askatuz eskua beherantz labaintzen utzi.

(KORTEA)

Jean Claude dutxatzen ari zen kanilaren hotsak adierazten zuenez. Letiziak poltsikotik zigarro paketea eta kartera atera zituen. Paketetik azazkal gorriez zigarro bat hartu eta piztu zuen, eta karteratik billete mordoxka bat zenbatu zuen. Larru bizitan komunera abiatu zen. Dutxatik atera berria zen Jean Claude, eta prakak jantzita zituela kolonia botatzen ari zen. Letiziak bizkarretik heldu eta, bi besoez bular zabala inguratuz, muxu eman zion lepondoan.

– Tori, maitea. Propina eta guzti jarri dizut, horren ondo portatzeagatik.

Jean Claudek esku trebez kontatu zituen, eta orrazten hasi zen ondoren bere kopetako ondak.

– Ez da nahikoa.

Letiziak lasaitasunezkoa nahiko zukeen keinu baldar samarra egin zuen besoak askatzean.

– Gastu asko daukat eta gehiago behar dut –erantsi zuen Jean Claudek, bere ahotsean aitzaki doinu apurrik nabari ez zela.

– Barka. Ustekabean harrapatu nauzu eta momentu honetan ez dut beste dirurik hemen.

Urduri antzean, Letizia eskuak bihurritzen hasi zen eta logelan bertan jantzi zen, Jean Claude toilettetik atera baino lehen. Berriz ere kotxean, umore onera itzuli zen eta bromak egiten zizkion Jean Clauderi, berarekin ez zenean zer andre klaserekin ibiltzen ote zen eta abar. Deskapotablea utzi zuten lekura itzuli ziren zuzenean.

– Hemendik egun batzuetara deituko dizut, maitea.

– Nahi duzun arte.

(KORTEA)

Gauean, afaltzerakoan, senarra egun hartako negozioen gorabehera ari zitzaion kontatzen kasu askorik egiten ez zuen Letiziari.

– Diru gehiago eman behar didazu, Arturo.

– Gehiago? Eta zer egin duzu bada herenegun emandakoarekin?

Letiziari ezusteko argia piztu zitzaion burmuinean.

– Picassoren litografia bat erosi dut. Begira, oraintxe erakutsiko dizut.

Arturok baietz esan zuen, oso polita zela, baina ezagun zuen gauza haiek ez zitzaizkiola gehiegi gustatzen. Ohera aurretik, krema garbitzailea ematen ari zela, erregaliak nork bidaltzen ote zizkion hasi zen pentsatzen; ezin asmatu ordea: senarraren negozio lagunen batek?, Club Marítimoko kideren batek?, urrunetik baizik ezagutzen ez zuen miresle ezkuturen batek? Zena zela, gogoko opariak egiten asmatzen zuen, eta beti zen pozgarria berrogei urte paseak zituen bera bezalako emakume batentzat, oraindik zaharkitua ez egonik ere, halako maitale sekretu bat izatea, aurrena esmeralda eta rubiekiko eraztuna eta ondoren Picassoren zera hura erregalatu zizkiona.

(KORTEA)

Gosariko tostada bukatu eta laranja zumoa edaten ari zela erabaki zuen Martari deitzea. Marítimon elkartuko ziren edo bestela tenisean jokatzera joango ziren, segun eta zer nahi zuen Martak. Lehen opariarekin beldur zen inori kontatzeko, batez ere edonoren senarra izan zitekeelako, eta lehen-lehenik amorante ezkutuaren nortasuna ezagutu nahi zuelako. Bigarrena jaso ondoren, ordea, bazirudien emaileak ez zuela agerian azaltzeko asmorik, eta joko bat zela hura guztia. Martari, lagun ezkongai bakarrari kontatuko zion dena, eta bien artean saiatuko ziren misterio ilun hura argitzen. Seguru zegoen Martari ikaragarri gustatuko zitzaiola abentura moduko hau, jolas guztiz berri eta nobedosoa baitzen.

Telefonoa hartu behar zuen momentuan, beti bezala katu baten antzera, Blas sartu zen.

– Madame, mutiko batek zuretzako pakete bat ekarri du.

– Itxoin ezazu, esaiozu mutiko horri... edo, hobe neroni joaten banaiz.

Blas betiereko aurpegi inpertsonalaz atzean utzita, atera joan zen. Hamasei urteko mutikoak larrutegi ezagun bateko txaketa zeraman jantzita, eta etxe bereko pakete handi bat eskuetan.

– Ba al dakik nork erosi duen hau?

– Ez dakit, andrea. Mandataria besterik ez naiz.

(KORTEA)

Tennis Clubeko saunan, toalla zurietan bilduta eta izerdia kopetatik behera ibaika zeriela, erregaluen asunto guztia kontatu zion Letiziak. Martak, begietan txinparta bi, pozik begiratzen zion, eta mihia ezpainen ertz batetik bestera eramaten zuen etengabe, entzuten ari zen bitartean. Batzuetan xehetasunak eskatzen zizkion, baina ez zegoen ezer askorik kontatzerik, informazioa berez baitzen laburra.

– Hau morboa! –esan zuen Martak, listua eta sudurretik behera zetorkion izerdia irentsiz.

Martak esan zion bere eskuetan uzteko. Enkargatuko zela bera, enteratuko zela nola edo hala nor zebilen haren atzetik. Eta, ezer berririk

gertatuz gero, deitzeko lehenbailehen, bestela ez ziola sekula barkatuko. Bere inbestigazioen berri emateko, gauean bertan edo bestela biharamun goizean telefonatuko zuela sinfalta.

Berriro etxean, Letiziak barre egiten zuen Martaren emozio adoleszentea gogoratzean, baina bera ere eszitatua sentitzen zen, urduri, azken hogei urteetan ez bezala hunkitua, buruan mila amets, suposizio, burutazio txoro... haien ezintasunaz oharturik momentuan bertan baztertzen zituenak segidan antzekoak asmatzeko berriz ere. Aztoraturik zegoen, etxean ere ez zuen egitekorik aurkitzen: libururik irakurtzeko ezin kontzentratu, telebisioa gogaikarri zitzaion, zeramika egiten hastea rollo bat zen eta puntua berriz, Jesus, puntua!

Telefonoa hartu eta Jean Clauderi deitu zion; ordura arte ez zuen sekula horrelakorik egin: aste berean bi aldiz; baina beharra sentitzen zuen, bere emakume grinak, sentimenduak norbaiten altzoan ase beharra, eta Jean Claude baino ez zuen ezagutzen horretarako. Bazuen halako zera bat beste inork ez zuena –gogortasuna? seguritatea?–, bere katramilak ordu batzuez

zeharo ahantzarazten zizkiona eta abere apasionatu edo printzesa maitale sentitzea posible egiten ziona.

Atea ondo itxi eta atzean inor ez zegoela ziurtatu ondoren altxatu zuen aparailuaren aurikularra eta zenbakia markatu.

– Allo!

– Jean Claude? Letizia naiz. Behar zaitut.

– Zertarako?

– Oi, Jean Claude...! Ez zaitez gaiztoa izan. Ikusiko gara?

– Konforme. Zer ordutan?

– Seietan?

– Bale. Non?

– Zeuk esan.

– Independentziaren plazan?

– Han egongo naiz. Gero arte, maitea.

– Agur.

(KORTEA)

Hotel aurreko kafetegian, Jean Claudek kafe hutsa hartzen du, azukrerik gabe. Letiziak tea li-

moiarekin, koilaratxoaz kikara hutsaren kantoietan konturatu gabe joka.

– Ai, Jean Claude, ez dakizu zenbateraino behar zaitudan –isilunea–. Bete egiten nauzu, emakume osatua sentiarazi –isilune luzeagoa–. Igual pentsatuko duzu erridikulu samarra dela hau dena –isilune laburxeagoa–. Bueno, eske guk ez dugu gehiegi hitz egiten, eta hitz egiteko gogoa nuen, edo dut.

– Zertaz hitz egin nahi duzu?

– Ai, baina ez ezazu horren modu «profesionalean» esan –histeriko samar.

– Barkatu, ohitura izango da seguru asko –hoztasun lanbroak nahi gabe iragazten utzi duen tristura usain batez.

– Ez, ez –lasaitu nahiz, ileetara eramanez eskua, lotsarekiko borrokan–, zuk barkatu behar didazu, ez dakit zer esaten ari naizen, txoratuta nagoela ematen du, baina eske gauza asko ari zait gertatzen, ez dakit nola esan...

(KORTEA)

Bizkarra almohadan jarrita, Jean Claudek bi zigarro hartzen ditu Letiziaren paketetik, ahora eraman eta piztu egiten ditu, ondoren bat Letiziari emateko. Isilik daude, kea botatzean sortutako figura atzemanezinei begira.

– Zertan ari zara pentsatzen, Jean Claude?

– E? Ez, ezertan ez.

Beste kalada pare bat ematen diete beren zigarroei, lehen batak bestearen ahoa estutu eta xurgatu duten intentsitate ia-ia berberaz.

– Zer gustatzen zaizu zuri, Jean Claude?

– Niri?

– Bai: futbola, zinea, liburuak irakurtzea...?

– Pss! Denetik pixka bat.

– Horren gutxi ezagutzen zaitut...!

Letizia maindirean bildurik altxatzen da komunerako asmoz, baina bere poltsa hartzeaz batera uzten du erortzen, aurreko lotsaz damu edo efektu optikoaren bila. Dirua aurrez aurre emateak sortzen dion egonezari itzuri nahian bidet ondoan uzten ditu billete doblatuak.

(KORTEA)

Independentziaren plazan, Letiziaren kotxe barruan geldirik eta leihoak itxita.

– Zergatik eskatzen didazu berriro diru gehiago? –urduri, oso.

– Gauza asko ditut, zereginak, konpromisoak –aurreko estatuari axolagabe begira.

– Baina zuk zer uste duzu, ni diru-makina bat naizela, ala? Istiluak ditut senarrarekin diru hori dena lortzeko. Trauma bat zara nire bizitzan!

Jean Claudek ez du erantzuten, ispilu erretrobisorea okertu eta gorbataren korapiloa bere lekuan zuzen jartzen du. Atea ireki eta kanpora ateratzen da, txistuka.

– Hurren arte –gorputza aterantz eramanda.

– Jean Claude... esaidazu maite nauzula.

Jean Claude beste zerbaitetan pentsatzen ari balitz bezalako irribarre neutroaz urruntzen da, bi behatzez muxu bat bidalita.

(KORTEA)

– Arturo, diru gehiago eman behar didazu.

– Txoratuta zaude ala? Ez nizun bada atzo bertan eman azkeneko aldiz?

– Bai, baina bisoizko abrigu bat erosi dut.

– Bisoizkoa? Oraindik irailean sartzea egin dugu eta!

– Beti iruditzen zaizu gaizki nik egiten dudana –mutur beltza jarriz–. Diru putzutan itota zabiltza, eta ez dakit zertarako nahi duzun –maina bila dabilen katutxoaren trazak hartuz–. Arturo, maitea, ez al duzu zoriontsu egin nahi zure andretxoa? Oso bakarrik nago egun osoan zu gabe, eta erosketa batzuk egitera ateratzen naiz. Bekatu al da hori? Beste batzuek amoranteak eta guzti izaten dituzte, ni ordea beti txintxo-txintxo zure zain.

Senarra periodiko atzean dago ezkutatuta, haserre samar eta gogaitua, antza.

– Bale, bale, konforme, nahikoa da.

– Nahi al duzu abrigua erakustea? –begiak pizten zaizkiola eta salto txikiak ematen hasteko gogoari ozta-ozta eutsiz.

– Bueno, nahi baduzu –indiferentzia gaizki disimulatuaz.

(KORTEA)

Club Marítimoko solariumean goxo-goxo daude eguzkipean Marta eta Letizia. Ez du gehiegi berotzen; epel dago. Martak bikinia darama eta Letiziak bainujantzi ilun samarra. Bainujantziaren tirak bularraren azpiraino jaisten ditu aurrena, eta txilborreraino geroxeago.

– Ez nagon horren gaizki, ezta? –erdi harro, erdi herabe.

– Keba, neska, oso ondo hago oraindik.

– Oraindik inori gustatzeko moduan, uste dun? –emozio apur batez.

– Ez al dun ikusten? Nolatan bestela hainbeste erregalu eta komeria?

– Ez zekinat, txororen bat... –Martak bitartean bikini argiaren goiko aldea kendu egiten du eta bazter batean utzi–. Hi, ordea, ni baino askoz argalago hago, tipo hobea dun.

– Ez pentsa!

(KORTEA)

Mandatari gazte bati propina ematen diote eta badoa bere vespan, arin, eta arinago hasten da Letizia paketetxoa askatzen bere gelarako bi-

dean. Pasilloan barrena, eskuetatik ihesi zoruan erortzean klin klin klin amaigabea egin du perlazko idunekoak. Zaratak erakarrita Blas agertzen da pasillo bukaerako atean.

– Madame, laguntzarik behar al duzu?

– Ez, ez, ez, joan zaitez –isilune labur batean elkarri begira geratzen dira makurtu eta aztoratuta dagoen señora kiriobera, eta esfinge baten aurpegiera inperterritoa beti-bat mantentzen duen maiordomoa–. Joateko!

Blas joan eta gero perlak jasotzean hauekin batera papertxo bat ikusi zuen, nota bat. Bertan helbide bat besterik ez zegoen idatzita, apartamentu batena. Hura ezin zitekeen kasualitatea izan, hura zita bat zen, inondik ere.

Zoratzear zegoela hartu zuen kotxea eta frenoa existituko ez balitz bezala gidatu. Hura emozioa! Nor ote zen, nor, nor, nor? Semaforo gehientsuenak bere horretan pasatu zituen, berdean egon zein gorrian. Azkenik ezagutuko zuen. Istripu bat izateko zorian egon zen. Zer poza! Baina, hala ere, susmo txar bat zuen, ez zekien zergatik ezta nondik etorri zitzaion ere. «Txorakeriak» esan zion bere buruari mamu haiek uxa-

tzearren eta bere burua lasaitzearren, helbide hartara iristen ari zela amonatxo bat ia-ia harrapatzen zuen bitartean.

Eskailerak ere korrika bizian igo zituen, azentsorea bazegoela konturatu gabe. Ateraino ailegatzean tinbrea jo bezain laster ohartu zen ez zegoela itxita. Hatz-koskoez jo ondoren inork erantzuten ez zuenez, atea pixka bat zabaldu eta dei egin zuen:

– Bai...? Ba al dago inor...? Letizia naiz...

Isiltasuna. Zerbait erostera aterako zen. Bai, seguru. Bihotz taupadak azkartuz zihoazkion. Broma bat ere izan zitekeen; baina ez, ez zuen uste. Ia etxe osoa korritu zuen badaezpada ere, eta aztarrenik ere ez zuen aurkitu. Ur jario mehe baina etengabe hartaz ohartzean komunekoa bilatu zuen ate guztien artean; zegokiona aurkitzean ikusitako espektakuluak zorabiatu egin zuen ia.

Baineran zegoen Jean Claude odol putzu zabal batean, begiak eta ahoa zabalik. Bere gainean, ur eta odolez bustitako billete mordoxka bat eta zenbait paper zituen; begiratu ondoren erreziboak zirela jakin zuen: joieriakoa, pelete-

riakoa... Azkenean baino ez zuen begiratu ispilu aldera. Bertan ikusi zuen, akaso odola irudikatu nahirik baina karminez idatzita, azken mezu ez-kutua bide zen hura: «Puta bat bezala tratatzen ninduzun eta ezin nuen eraman».

Malko isilak, perla epel eta gaziak, iduneko berrira erortzen zitzaizkion kokotsetik behera, eta aspaldian entzundako esaera bat etorri zi-tzaion burura: perlak erregalatzeak beti dakar suerte txarra.

[1985]

Amuña Margarita

Triste zegoen gure amuña. Triste edo ez dakit nik zer esan. Ezin esan goibel eta kopetilun zebilenik, baina galdua zuen garai bateko bizitasuna, berriketarako gogoa. Aspaldian ez zitzaidan hau zela eta hura zela errietan etortzen, ez zen gurekin haserretzen, baina jadanik ez zen gure katramilen berri jakiteko irrikan egoten ere. Ez dakit nola esan; elkarrizketari ihes egiten zionik ere ez nuke esango, itzuri ez baina, lehen ordutan aritzen zitzaizun txutxumutxuka gelditu ere egin gabe, zirenak eta ez zirenak nahastuz, harako haren eta honako honen kontu eta komeriak gora eta behera; azken aldian, ordea, hizketan ari zintzaizkiola, begiak lauso eta burua beste zerbaitetan bezala sumatuko zenuen, eta zer zuen galdetuz gero «e, e, zertan ginen?» erantzungo zizun siestatik jaiki berria balitz bezala.

Leiho ondoko siloian jarrita ematen zituen arratsalde osoak, bere txokoan kuxkurtuta, gantxillo edo puntuaren orratzak esku artean. Erreparatuz gero, beheko ezpaina noizean behin dar-

darka izaten zuela konturatuko zinen, ez ordea halako tik edo zera horietakoren bat zuelako; bazirudien isilpeko marmarrean aritzen zela, halamoduzko bakarrizketan edo erantzulerik gabeko elkarrizketaren batean galduta.

Arratsaldeko sei eta erdietako asperdura hezur-mamietaraino sartua nuen batean, telebisorearen botoiari sakatzeko gogoari eutsiz eta zer egin ez nekiela amuñarenera joan nintzen aspaldiko partez. Atzealdetik hurbildu nintzen isil-isilik, eta ez zen konturatu ere egin. Jolaserako gertu, begiak tapatu nizkion eskuez.

– Zertan ari haiz, txepetx halakoa? –esan zidan askatuz; baina gero irribarre herabe bat eskaini zidan. Ez, amuña ez zegoen gurekin haserre.

Gantxilloz apaindutako siloiaren besoan eseri nintzen eta nire bi besoez amuñaren lepoa inguratu; maina bila nenbilen nonbait, mainetarako adina pasea izan arren; ea norentzakoa zen egiten ari zen jertsea galdetu nion.

– Ez dun jertsea, Asierrentzako galtzerdiak ditun. Baina ken hadi gainetik, tuntuna, ez didan uzten lanean eta.

Gure amuña, udaren bukaera aldetik puntuari lotzen zitzaion, zetorren neguari aurrea hartu nahiz, guztiok babestuko gintuzten jertse eta antzekoak egiteko. Hori urtero-urtero. Nik ez nuen bakean uzteko gogorik, ordea. Gogaiturik egoteak eman ohi duen mutirikeriaz ziri eta ziri aritu nintzaion. Amuñak bere kontu zahar horietako bat kontatzea nahi nuen: osaba Pedro Kubara joan zenekoa, Maritxu lehengusinari markesen etxean neskame zegoela gertatutakoak eta beste hainbat pasadizo. Hamaika aldiz entzunak nituen, baina ez nintzen aspertzen hala ere. Fotografia horituen bidez baino ezagutzen ez nituen haien guztien istorioak pozarren eta txoratzen entzuten nituen, bestelako garaietako janzkera, izen eta pentsamoldeek burua berotu egiten baitzidaten, beste sasoi bateko ohituren oihartzunak, bitxiaren bitxiz, nire imajinazioa lurralde zabal eta ezezagunetara hegan eramaten. Beste batzuek barre egin ohi zioten estreinako automobila ikusi zuteneko larrialdia kontatzen zigunean; ni, berriz, neure burua haren lekuan eta garaian kokatzen saiatzen nintzen, ke eta zarata hark sortutako iskanbila eta estutasuna

imajinatzen, eta neronek ere halako zirrara moduko bat nabaritzen nuen.

Egun hartan, ordea, bazirudien amuñak ez zuela nire kutixia bete nahi, eta Asierren galtzerdiekin segitzen utzi behar nion, noiz eta, bat-batean, bestetan ere sumatutako begirada tristeaz, zera esan baitzidan:

– Garbiñe, joango al gaitun aurrekoan izan ginen pelikula ikustera?

Erabat harrituta, baietz erantzun nion, periodikoan begiratu behar nuela ea oraindik botatzen zuten edo kendua zuten. Sor eta lor nengoen: amuñak ez zuen sekula zinera joan nahi izaten, eta oso parada bereziak aprobetxatu behar izaten genituen hara eramateko, bere urtebetetzea esaterako, pelikula hori ikusi genuenean bezala. Amayan botatzen zutela esan nionean argi berri batez piztu zitzaizkion begiak eta janztera abiatu zen.

Nik sumatzen nuen bazela hor zer edo zer berezia. Arraroegia zen. Zerikusiren bat izan behar zuen azken aldiko goibelaldi horrekin. Ezin nezakeen seguru esan baina, amuña Margaritaren tristura bolada hori pelikula lehendabizikoz ikus-

tearekin batera hasiko zitzaion, beharbada. Milaka ideia zetorkidan burura, bor-bor egiten zuten horrenbeste burutaziok nahasian, baina ez nuen ezer argirik ikusten. Gainera, zenbat eta ilunago agertu hura guztia, hainbat eta jakingurago nintzen.

Bidean ez genuen hitzik egin halere. Amuña berriz ere bere gogoetetan murgilduta zegoela ematen zuen, eta niri ez zitzaidan bururatzen nondik hasi hizketan.

Pelikula ikusten ari ginela, zeharka begiratzen nion amuñari: adi-adi sumatzen nuen aldika, begiak pantailan tinko, kliskaren bat egiteko besterik apartatu gabe. Filma ezaguna nuen eta ez zen, egia esan, sobera interesgarria. Beraz, haren erreakzioak hauteman ahal izateko edo, amuña Margaritari so geratzea erabaki nuen, filmarekin zerikusi zuzena zuen zerbait baitzen, dudarik gabe, amuñaren jokaera arraro haren jatorria. Eta ez zen alferlana izan behaketa hori, berehala ohartu bainintzen pelikulako protagonistetako bat azaltzen zen bakoitzean, gizaseme galaia berau, orduan estutzen zuela amuñak eskuen artean zuen musuzapia. Horrez gain, peli-

kulak aurrera egin ahala begiak malkoz ari zitzaizkion betetzen gure amuñari.

Bukatu zenean gorri-gorri eginda zituen begiak, eta aitzakia bota zidan badaezpada:

– Antiojorik gabe etorri naun-eta, horrenbeste denbora begira egoteak kalte egin zidan.

Nik baietz egin nion buruaz, eta kafesne bat hartuko al genuen galdetu. Han inguruko kafetegi kaskar batean sartu ginen eta kafesne bana eskatu, nik croissant batekin eta amuñak suizoarekin. Mila gauza nituen esateko, galdetzeko, jakiteko, baina, gezurra badirudi ere, hitzik ere ez nuen esan, nola hasi ezin erabakiz. Halere, isiltasun hori berriketa baino emankorragoa suertatu zitzaidan, psikoanalisten isiluneak bezala-edo, eta agian apropos egin nuen, ni konturatu ere gabe. Kafesnea bukatu zuenean, serbilletaz muturra garbitu eta mukizapiaz begiak sikatu ondoren, hizketan hasi zitzaidan, poliki samar hastean, bizkorrago gero, nire eskari hitzik gabea ulertu balit bezala.

«Ni orduan gaztetxoa nindunan. Zenbat urte ote nuen bada? Hamazortzi?, hemeretzi? Hor nonbait. Honezkero nahastu egiten zaizkidan fetxak buruan. Kosturera nindunan ni, Doña Rosaren etxean. Kategoriako etxea zunan hura, ez pentsa gero. Nik botoi-zuloak egiten nitinan, eta botoiak josi ere bai. Doña Rosak esaten zidanan nolako zuloak nahi zituen, handiak edo txikiak, goitik behera edo zeharretara, eta nik berehala egiten nitinan. Berealdiko poza hartzen ninan gero señorito guztiak nik jositako botoiekiko trajeekin ikusten nituenean. Eta ez pentsa Donostiakoak bakarrik zirenik Doña Rosaren trajeak eramaten zituztenak, Madrilgoak ere bai asko, eta urrutiagokoak ere bai, estranjeroak eta guzti, makina bat paristar-eta. Ia-ia esan liteken munduko gizon dotoreenen trajeetako botoi-zuloak nik josten nizkiela, eta horrek harro-harro uzten nindinan. Ez zekinat, haien ospe, dotorezia edo zera horren pixka bat nirea balitz bezala, parte, eta neronek ere haien itxura eder eta etxe oneko izate horretan zerikusia izango banu bezala edo. Txorakeriak ditun horiek, bazekinat, baina ilusioa egiten zigutenan, eta halaxe bizi gintunan,

burua txoriz betetako nexka gaztea bainintzen ni artean.

Egun batean gazte bat etorri zunan harentzat egiten ari ginen trajea probatzera eta, ez zekinat nola, ni ez naun jostuna baina, ni egokitu nindunan lan horretarako, trajea ere ez zunan garestiegia-eta. Eta, horretan ari nintzela, ez zaidan sekula santan ahaztuko, neurriak hartzeko-eta erabiltzen genituen orratz haietako bat sartu nionan izterrean. Han hasi zunan mutikoa garrasika, eta, italianoa zenez, ez zitzaionan tutik ere entenditzen. Niri hasieran barregura ematen zidanan, halako gizasemea xixtada batengatik oihu eta arrantzaka, eta gainera inortxo ere enteratuko ez zen zakurren zaunka harekin, baina gero doña Rosa etorri zunan, eta hark berriz errieta egin zidanan suak hartuta, eta orduan, zeharo lotsaturik, negarrari eman nionan. Pentsa ezan, kliente bati orratza sartzea gaizki badago, zer ez ote den izango gainetik hari barre egitea. Gozoa jarri zunan doña Rosa, eta ni erabat beldurtu nindunan, lan hura galdua nuelakoan. Orduan, badakin, errazago botatzen zitenan langilea bere lanpostutik ezer gaizki eginez gero, eta

sarritan ezer txarrik egin gabe ere bai. Zer esanik ez langilea nexka koxkor bat baldin bazen. Eta isildu egin behar, orduan ez zegonan sindikatu eta antzekorik, edo baldin bazen ez gintunan gehiegi enteratzen. Esaten ninan bezala, beldurtuta nengonan sesio harekin; beste lanen bat bilatzea ez zunan horren zaila, baina nahiko gustura ari nindunan doña Rosarenean, eta halako izen oneko etxerik nekez bilatuko ninan seguru asko. Orduan gazteak, italianoak, frantsesez eskatu zionan doña Rosari, frantsesez hitz egiten baitzuen honekin, zigorrik ez jartzeko mesedez, nik ez nuela kulparik eta barkatzeko arren deskuido hura, gazteegia bainintzen, eta berari ez zitzaiola axola orratzaz zulatu izana. Halako gauzak esaten zizkionan, antza, ezin jakin seguru, nik ez bainekien ia ezertxo ere frantsesez. Hala, bada, mukizapiarekin sikatu begietako malkoak eta lanean segitu ninan, ezer gertatu ez balitz bezala. Baina gero, lanetik ateratzean, seiak aldera irteten gintunan gu garai hartan, urte sasoi hartan ilundu gabe zegonan artean, eta hara non ikusten dugun italianoa bestaldeko espaloian, nire zain nonbait, niregana etorri baitzen kami-

noa pasatuz, eta nirekin batera ateratako beste neskak iji eta aja, barre algaraka elkarri ukondoarekin joka. Orduan bai gorritu nintzela, bihotzeko dinbi-danba hark zart egingo zidala ematen zinan. Niregana ailegatu zenean hizketan hasi zitzaidanan, eta lagunek han utzi ninditenan, irri maltzur batekin «hori dun suertea, hori» esan eta gero. Poste bat bezalaxe geratu nindunan txutik, zer esan asmatu ezinik. Italianoak Giulio zuela izena esan zidanan, eta nik Margarita nintzela erantzun. Besoa eskaini zidanan, paseoan abiatzeko-edo, baina nik ezetz esan nionan; pentsa ezan, ezagutu besterik ez eta besoa emanda elkarrekin paseatzen! Auskalo zer esango zuen gero jendeak! Garai batean ez gintunan zuek bezalakoak, ez horixe, txintxo asko ibili behar izaten geninan, eta agudo etxera gainera, eta isilik geratu. Eta, holaxe, kasik iheska egin ninan etxerakoa, baina ez zekinat bada nik, begitarte alaia erakutsi nionan edo zer, hantxe zegonan biharamunean ere irteterakoan. «Txoratu zain oraingoan» eta «hau erabat enamoratu dun hirekin» esaten zidatenan lagunek albotik, eta ni han tente, piperra baino serioago, disimulatuz beza-

la baina barrutik berealdiko barregura ninan, eta gustatzen ere hasita nengonan Giulio harekin. Guapo askoa zunan, izan ere. Bigarren honetan oso bestela jokatu zinan, bezperakoaz damu zelako edo jokabide berriarekin bere asmoak hobetoxeago burutuko zituelakoan-edo; eta, hala, denak heladu bat jatera gonbidatzen gintuela esan zigunan, eta besteek baietz aho batez. Orduantxe hasi nindunan barren-barrenetik suminzen: «gizon hau nire atzetik hasi eta beste guztiak aprobetxatzekotan ala?» esaten ninan neure artean; eta hala uste dinat hasi nintzela beste era batera begiratzen, hola, ez zekinat, xamurrago edo. Eta etxerakoan utzi nionan laguntzen, heldu gabe baina.

Holaxe hasi gintunan. Geroztik egunero egiten geninan etxerakoa elkarrekin, eta asteburua etorri zenean ea harekin aterako nintzen galdetu zidanan. Ni artean sekulan mutilekin atera gabea nindunan, eta ez nekinan zer egin. Izugarrizko lotsa ematen zidanan, baina burua irakiten ninan, eta tripak berriz kri-kra egiten zidanan, eta azkenean, buelta eman eta ihesari ematen niola, baietz esan nionan. Ama-eta jakinaren

gainean egoterik ez ninan nahi, eta horregatik esan nionan Kristinari, nire lagunari, etxetik irteten laguntzeko, eta berak baietz, baina gero den-dena kontatu behar niola, eta hala, atera gintunan. Gero Kristina, Giulio eta hirurok elkartu ginenean Kristinak esan zigunan enkarguren batera joan behar zuela eta bakarrik geratu gintunan biok. Hura larrialdia, zorabiatzeko modukoa! Giuliok gelditu gabe hitz egiten zidanan, eta nik baietz egiten nionan, ezer askorik entenditu gabe baina. Nik banekinan frantses apurtxo bat, ezer gutxi azken batean, baina gutxi hori erabiltzen saiatzen nindunan. Ez zekinat Giulio ere gehiago jabetzen zen, baina barre behintzat egin geninan gogotik. Paseoan genbiltzala, nik poltsan neramatzan bi eskuetako bat altxatu eta behatzaz hau zer zen eta bestea zer zuen seinalatuz bazterrak erakusten nizkionan; batzuetan, broma moduan, euskaraz egiten nionan eta ikustekoa izaten zunan haren aurpegia. Ez zinan piperrik ere entenditzen. Nola entendituko zinan bada, Italiatik bazetorren? Halere, soinua-eta gustatu egiten zitzaiola esaten zidanan. Plaiarako girorik ez zegonan eta oso jende gutxi zebile-

nan bainatzen. Hala eta guztiz, itsasertzean ibiltzeko gogoa zuela eta han ibili gintunan oinetakoak kenduta. Noizbehinka zipriztinak botatzeko keinua egiten zidanan eta ni garrasika hasi, soinekoa zikintzeko beldurrez, baina gero ez zidanan ezer egiten. Handik atera eta gero barkillo bana erosi geninan, bueno, nik erosi ez, berak gonbidatu baininduen, eta hura bezalako barkillorik sekula jan gabea nintzela pentsatu ninan. Gero bailera joan gintunan, portuko edo hor nonbaiteko jaiak zirela-eta dantzaldia egiten baitzuten, eta orduan modan zeuden kantak-eta jotzen zitiztenan, zer esango dinat bada nik, txarlestona edo, foxtrot edo, tangoak edo, baina ez zekinat seguru, akaso beranduagoko kontuak ditun horiek. Hasi gintunan dantzan, eta oso ondo egiten zinan, nik baino askozaz hobeto, eta edozein dantza klasetan gainera; ezagun zinan bazuela hartarako etorria, eta ni baino arituagoa zela. Hor ari gintunan bada dantzan, eta Giuliok estu samar heldu nahi izaten zidanan baina nik ez nionan uzten, ez horixe! Pentsa ezan, han nonbait izango zitunan nire ahizpak, gazteena ez bazen zaharrena, baita lehengusuak ere, eta

hauek bai okerrak eta malapartatuak, ahotik gaiztakeria zerien kontakatilu itsusiak. Eta hola, nola lagako nionan bada, bazter guztietan mutil estranjero batekin nenbilela zabaltzeko aukera emanaz maripurtzil haiei? Neskazahar geratu ditun, eta ondo merezita gainera.

Dantzan aritu ondoren zerbait hartu behar genuela-eta, eztarria freskatzeko asmotan limonada edan ninan nik, eta Giuliok berriz ardoa; ez ardo beltz baldar horretakoa ez, bestelakoa, oporto edo jerez edo halamoduzkoren bat. Oso fina zunan hura, Jesus! Gero zerera abiatu gintunan, kasino aldera. Niri izugarri gustatzen zitzaidanan señora eta señoritoak nola irteten ziren ikustea. Haien abrigu eta, sonbrero eta, bastoi eta... Haiek ez zutenik ez zen Donostia osoan izango. Hura zunan festa; niretzat ere bai, gero. Nik primeran pasatzen ninan haiei begira. Inozo samarra dun beharbada, baina nik gozatu egiten ninan hala, batzuetan barre pixka bat ere egiten genienan, baina haiek konturatu gabe badaezpada ere, eta maleziarik gabe gainera; Kristinarekin-eta, «begiraion harunzko aza hosto aurpegi hari» eta kar-kar-kar algaraka denak, baina

zerarik, intentzio txarrik gabe. Guk inbidia genienan, ez hola gaiztakeriazkoa, umeek izaten dutena baino: izaten ditun ba umeak, auzoak duena nahi izaten dutenak? Bada, holaxe gu ere. Atso haien pitxi eta joiak-eta ikusten genitinan eta aho zabalik geratzen gintunan, zer esan jakin gabe, eta horregatik egiten geninan barre, ipurtandiak zirelako edo aza itxurako moñoa zeramatelako. Orduan ez geninan zinerik eta. Gainera, botoi-zuloak ikusteko aukera ere izaten ninan hartara. Joan gintunan, esan bezala, Giulio eta biok; nik ez zekinat harena izan zen idea ala nik botatakoa. Ailegatu gintunan kasino aurrera bada eta, ni aho zabalik banengoen, Giulioren ahoa bi aldiz zabal. Haren begiak! Biribil-biribil eginda, beren zuloetatik irteteko zorian zeudela esango niken. Eta badakin nolakoak garen emakumeok: min eman zidanan horrek, sutu erabat; nirekin atera eta gero goitik behera pitxiz jositako andre handi usteko haiei begira, begiak apartatu ere egin gabe? Horretarako aritu al nauk ni, pentsatzen ninan neure artean, nola orraztu pentsatzen, soineko berriena ahal bezain ederki plantxatzen, zapatei lustrea behin eta berriro

ematen? Ustez apain-apain jantzita atera eta gero kasurik ere ez egiteko? Ezta pentsatu ere! Hartu poltsa galtzarbean eta tipi-tapa tipi-tapa joan nindunan handik. Atzetik etorri zitzaidanan gizajoa, zertan ari nintzen galdezka. Ez ninan besterik behar orduan! Bereak eta bi esan nizkionan, batere gorritu gabe. Ez zekinat ezertaz enteratu zen, baina jarri nion mutur beltza ikustea nahikoa izango zinan brometarako gogorik ez nuela konturatzeko. Epelak entzun behar izan zitinan, eta bota beharrekoak bota ondoren arineketan joan nindunan etxera. Han bai, han lasai eman nionan negarrari, eta painelu franko utzi ninan malkoz blai. Errukarria ni, esaten ninan; hura nahigabea eta tristura. Sekula ez zitzaidala pasako pentsatu ninan.

Halere, malko edo barre, astelehenean berriz ere lanera joan behar. Doña Rosaren etxean sartzea egin eta han hasi zitzaizkidanan lagunak zirika: «Margarita, zer moduz atzo?» eta «goxogoxo helduta ikusi zintuztedan» eta «xirri egiten ere ibili omen zineten» eta «hik ere muxuren bat emango hion ba?» eta. Hura amorrazioa eman zidana! Sutan nengonan, sutan. Hartu eta lepoa

bihurrituko nienan banan-banan ahal izanez gero. Gero, berriz, pasatu zitzaidanan haserrea, eta barre pixka bat ere egin geninan denon artean. Nik esaten nienan Giulio hura inozo samarra zela, ez zuela zipitzik ere entenditzen erdaraz, eta ahoa zabal-zabal eginda geratzen zela euskarazko hitzik entzunez gero, bibotea gelditu ere egin gabe igurzten zuela behatzekin, eta oinak gainera zabal samarrak zituela eta kanpo aldera begira. Barrez lehertzen geundenan denak, eta doña Rosak errieta ttiki bat ere egin behar izan zigunan; baina nik ez ninan hura dena pentsatzen: pena ematen zidanan eta barrutik triste nengonan, baina demontre!, esaten nionan neure buruari, nik ere hartu beharko diat bengantza! Ez bainintzen isilik eta apal-apal burua makurtzen duten horietakoa, ez alajaina.

Sorpresa geroago etorri zunan: lanetik atera ginenean han zegonan, aurreko espaloian tente, lore sorta zuela eskuan. Zuri-zuri geratu nindunan, eta lagunek erdi barrezka alde egin zutenean nik ere haiekin batera joan nahi izan ninan, baina ez ninan asmatu, ez zekinat bada, lurrean iltzez josita geratu banintz bezala hantxe espa-

loian zut, arbola baten antzera. Bestea etorri zitzaidanan eta nik astakeriaren bat esan nahi nionan, baina ezer bururatzen ez eta isil-isilik geratu nindunan, eta bestea berriz parra-parra frantsesez. Nik ez nionan entenditzen baina umil-umil ari zunan, begiak gehiegi altxatu gabe, eta horrek poztu egin nindinan, poztu egin nindue-nez. Etxeraino lagundu zidanan eta horrela egunero-egunero, hurrengo igandea iritsi zen arte.

Igandean elkarrekin atera gintunan berriro; ordurako etxean zer edo zer susmatzen hasita zeudenan, eta bertan geratu ez geratu egon nindunan, baina azkeneko momentuan pentsatu ninan ez zela itxurazkoa loreak eta guzti erregalatu zizkidanarekin hala jokatzea, eta horrez gainera ni ere deseatzen nengonan Giuliorekin egoteko. Oraingoan, gainera, lehen baino arrimatuxeago dantzatzen uzteko asmoa ninan, baina azkenean ez gintunan bailera joan, zerera joan gintunan, xexenetara. Konstituzio plazan zitunan xexenak, eta gazte jendea biltzen gintunan batez ere bertan, neskak bazterretan oihuka eta beldurrez, eta mutil balienteenak xexenen aurrean, neskok izututa utzi nahiz. Ni behintzat

guztiz ikaraturik utzi nindinan Giuliok: xexenaren adarren pare-parean jarri eta han ibili zunan, haren aurrean dantzan bezala, saltoka eta korrika. Beste batzuk kapotearekin etortzen zitunan baina niri hori ez zitzaidanan batere gustatzen, bestea bai, xexenaren muturraren aurrean mukiak kentzeko moduan jartzea. Horrek jartzen zidanan odola bor-bor. Orduan bai bihotza lehertu beharrez. Ez zunan ikara bakarrik. Nola esango niken? Maitetasuna-edo sentitzen ninan nik hor, bihotz zuloan, mutiko hura handik atera eta bularrean estututa ume txiki bati bezala ro-ro eginaz lo eragiteko gogo bizia. Barre egiten dun baina holaxe zunan; zer uste dun, nik ez haudala makina bat aldiz beso artean erabili ro-ro esanaz loak hartu arte ala?

Zorionez aldendu gintunan noizbait handik, eta neronek heldu nionan Giuliori besotik. Harrituta geratu zunan, ez zinan halakorik espero nonbait. Berriro ere limonada hartu ninan nik eta ardo goxo edo zera hura berak. Gero paseoan abiatu gintunan; berak gerritik heldu nahi zidanan baina nik ez nionan uzten. Gustatu bai, gustatzen zitzaidanan, baina, pentsatzen jarriz gero,

ez nekinan ezertxo ere mutil haren gainean: Giulio zuela izena, eta Italiako bazterren batetik zetorrela, hori bai, baina hortik aurrera ezer ez. Ez nekinan non bizi zen, zer ogibide zuen ere ez, ezta zer egiten zuen Donostian ere. Eta okerrena ez zunan ez jakite hori, ezin jakina baino. Nola galdetuko nionan bada, elkarri hitzik ezin egin-da? Ni ahalegintzen nindunan nola edo hala galdera horiek edo antzekoak konpreniarazten, baina ez zekinat berak ez zuen entenditzen edo ez entendituarena egiten zuen, hori ere izan liteken. Zena zela, ezin jakin haren berri. Hark nire berri ordea bai, nik ez ninan ezkutukorik: etxea, familia, lantokia, denak zekizkinan; ez atzetik jakin nahian ibili zelako, ez: berez ezagutu zinan hura guztia. Eta nik ez ninan gehiegi lotu nahi ezezagun batekin. Gizon formala ematen zinan baina ezin nindunan hola, besterik gabe, fiatu. Amak-eta jakinez gero, Jesus!, berehala esango zidatenan ez ikusteko berriz mutil hori, ezta erretratuan ere. Haiek zaharrak zitunan eta ez zitiztenan gazteen zerak ikusten, baina gure ondo izatea begiratzen zitenan, hori bai. Ni ere ez nindunan horren txoriburua eta konturatzen nindu-

nan mutil harekin ez nuela etorkizunik eta beraz ez nuela aurreraegi egin behar, badaezpada ere. Horregatik esaten nionan ezetz kale ilunxeagoetara eraman nahi izaten ninduenean, argia genuen bitartean bai, baina hortik aurrera ezetz. Gero, ez zekinat nola, ez zunan apropos izan behintzat, kasino parean bukatu geninan, nahi gabe, eta ni susmo txarrekin hasi nindunan berriz ere; berak ere ez zekinan nora begiratu, baina handik ateratzen ziren andreei-eta begiratzen zienan, eta neure artean esan ninan «lotsagabe halakoa: bigarrengoz ere berdin? Ez dik bada honek izango hirugarrenik» eta hala, ospa egin ninan handik ahal bezain azkar, eta atzetik arrenka etorri zenean ere ez nionan kasu izpirik egin. Irudipenak ez ote ziren ere pentsatu ninan, baina ez: zuzen-zuzen joan zitunan haren begiak joan behar ez zuten lekura, dudarik gabe.

Hurrengo astelehenean han zegonan berriro ere, espaloian tente, baina oraingoan begiratu ere ez nionan egin. Geroztik ez ninan ikusi, eta ahazten ahalegindu nindunan. Eta ahaztua ninan benetan, harik eta pelikula hori ikusi genuen arte, horko mutil hori igual-igualekoa baita,

haren erretratua bera. Baina hauek amona xahar baten txorakeriak direla pentsatuko dun; barka ezan, ez ninan hau dena kontatu behar, honezkero aspertuta egongo haiz; hi gainera gazteegia haiz oraindik eta ez zaizkin halako pasadizoak komeni. Estudiatu egin behar dun orain, estudiatu».

Berandu zen oso amuñak bere kontakizuna bukatu zuenean. Etxekoak seguru asko larritzen hasiak ere bai, afaritara agertu ez ginelako.

– Ene! Konturatu gabe pasa zaidan denbora –esan zuen amuñak. Begiak gorriturik zeuzkan beste behin.

Nire imajinazioa hegan ibili zen amuñaren eskutik, eta kosta egin zitzaidan gure errealitate honetara itzultzea. Ea geroztik Giulio horren berririk izan zuen galdetu nion amuñari etxera bidean.

– Bai –esan zidan serio; eta poliki hitz egin zuen–: periodikoan azaldu zunan, handik hilabete batera edo. Giulio zinan benetako izena, eta ez zekinat zer apellidu. Italiakoa zunan, baina

zera: lapurra! Joiak-eta lapurtzen omen zitinan. Hori bizibidea, hori. Orduantxe konprenitu ninan zergatik begiratzen zien atso eta gazte aberats haiei; eta ni haserre, emakume ederragoei begiratzen zielakoan... Dena dela, hobe horrela. Pentsa ezan bestela, lapur batekin formal eta serio hasi banintz. Eskerrak!

Azken hau esatean barre txikia egin zuen amuñak, baina begiak triste zituen oraindik ere, eta luzaroan izango zituela horrela konprenitu nuen.

[1985]

BESTE SEI PERBERTSIO

Sudurraren dardara

Malanttoniren sudurra, benetan sudur itzela; ez ordea handitasunagatik –ttikitto eta biribila baitzen– bere mugimenduarengatik baizik: haserretzen zenean sudur zuloak ireki eta itxi egiten zitzaizkion errinozero amorratu baten antzeko soinua eginez: brmmrr, brmmrr; eta Malanttoniren aharrak errinozeroarenak bezain beldurgarriak ziren, zinez.

Azken garaiotan haserre hauen zergatia beti bera izaten zen: etxeko mutilak: Amunabarro baserrian hiru mutiko zeuden gizon izateko bidean: bata Fermin, 20 urtekoa, bigarrena Anjelmari, 17koa, eta hirugarrena Inazio Jabier, 16koa; eta hiruren pentsamendu, ardura eta tema bakarra neskak ziren: neskatilak ezagutu –ahalik gehien–, berbetan aritu, dantzan egin... azken finean –ororen jomuga– larrua jotzea; eta ezin esan gure gazteok gaizki moldatzen zirenik: dohain berezi bat zutelako-edo, neskatxa askotxo ziren amunabarrotarren besoetan jausten zirenak, eta horixe zen gure Malanttoni kezkatzen

zuena, beldur baitzen, hainbeste urdanga eduki ondoren, ezkontzeko orduan behar bezalako neska fin eta kristau bat faltako ez ote zitzaien.

Hau dela-eta, hor zebilen beti amona gaixoa, bilobak nola edo hala bekatutik libratu nahiz: bazterrak miatzen zituen –ea horietako lotsagaberen bat aurkitzen zuen–, infernuko kondenazioaren minak eta zoritxarrak aldiro aipatzen, oilategia arakatzen zuen, baserriaren inguruan neskatoren bat ikusiz gero ez zuen unetxo batean ere bakarrik uzten, bilobei astirik ez ematearren ahal zuen heinean lanpetzen zituen, igandero mezetara berarekin eramaten, mutilen logelen ondoko zorua lapikoz, pertzaz eta aulkiz josten zuen gauez norbaitek irteteko saioa eginen balu bera garaiz konturatzeko, errosario saindua ere errezarazten zien... Hiru morroskook, ordea, tontoak ez nonbait, eta amonaren trabak gainditzean jartzen zuten beren jakintza osoa: behiak jetzi egin behar zirela, ahuntzak etxera ekarri, lastoa metatu, ximaurra eraman, albaitariari deitu, apaizari gazta bat bidali, etxekonean lagundu, sekretarioari eskakizuna egin, alkateari zergak ordaindu... Horrenbestez, bata

ez bazen bestea, ia beti lortzen zuten norbaitek alde egitea.

Gainera, amonak jakin zuenez, ez ziren inguruko neskak bakarrik bilobekin ibiltzen zirenak: kalekume batzuk ere etorriak ziren, gazteen ospeak erakarrita-edo, eta hura bai zela beldurgarria, kalekumeek ez baitzekarten ezer onik baserrietako mutilentzat. Etxeko ondasunak xahutuko dizkidate etxekalte hauek! pentsatzen zuen Malanttonik, eta kontu hura bukarazi egin behar zuela nola edo hala. Apaiz jaunagana jo eta eskatu zion, arren, esan zezala sermoian ezkondurik ez dauden mutilekin joaten diren neskak elizatik kanpo eta Beltzeburen eskuetan daudela; apaizak, berriz, ezin zuela horrelakorik esan, garai haiek iraganak zirela, hori esango balu herriko neskak ez liratekeela gehiago elizara hurbilduko, atso kontuak ahazteko, gazteak etorriko zirela urteekin bide zuzenera eta antzeko lelokeriekin erantzun ondoren, ea bromuroarekin proba egin al zuen galdetu zion. Halako erantzun eskas eta izutiaren ondotik galdera zozoagorik! Zer uste ote zuen abade zahar horrek, bere bilobak katakumeak edo gizagaixoak zirela, haien

gizontasuna hori eta horrenbestez itzaltzeko? Eta hori pentsatzerakoan mutilen aitona zetorkion burura, bere senar zena: hura bai gizona! Haiek erauntsiak! Ustekabean, harrotasun apur bat sumatu zuen bere artean, biloben ahalmena zela-eta.

Baina Malanttoni ez zen lasai gelditu; hura ezin zitekeen izan, eta bestelako ekintzetara jo zuen orduan: oilategiko eta beste toki apropositako txokorik ezkutu eta leunenetan –bere iritziz txortaleku ederrak zirenetan– zepoak jarri zituen; bazekien baldarregia zela, mina egin zezaketela, baina inor ez zen hilko, eta izualdi on bat poliki etorriko zitzaien, ea zentzatzen ziren behingoz.

«Zenbat sufriarazten didaten mutilok, ene! –pentsatu zuen amonak zepoak jarri ostean oherakoan–. Txikiena jaio eta ama erditzean hil zenetik zenbat aldiz ez ote dizkiet eman ipurdiko onak, eta hala ere ezin sosegatu. Aita egun guztian kalean, tabernaz taberna, hordi arraila, eta ni hemen, astakilo hauek zaindu eta zuzendu nahian; nahi eta ezin: ni geroz eta ahulago,

haiek urtetik urtera basapiztiak baino okerrago. Ai San Antonio Urkiolakoa!»

Horiek zituen gaueroko salmoak baina, nahiz eta ahul zegoela esan, ez zen guztiz egia: urteak zituen, bai, baina osasunak ez zuen oraindik uzten; zamak garraiatzeko edo ganbarara igotzeko bazuen indar aski, baita sukaldeko lanak egiteko, bilobei errieta emateko edo beste edozein betebeharretan laguntzeko ere.

Hurrengo egunetan zepo guztiak begiratzen ere izan zuen nahiko lan, nahiz eta ezer aurkitu ez –gazta pixka bat jarri balu sikiera, saguren bat eroriko zen agian–; hala ere, hobe zukeen deus aurkitu ez balu ikusi zuena ikustea baino, halako batean zera topatu baitzuen: horietako galtzerdi bat, bai, plastikozkoa-edo, barruan berak ongi ezagutu arren aspaldian ikusi barik zuen esne lirdinga hura zeukana, eta harrapagailuan nahita sarturik zegoen gainera. Han etorri ziren izua eta ondoeza, ai nire bihotza arnasa hartu ezin dudala!

Bi egun pasa behar izan zituen ohean, galtzerdiaren gaitzak jota. Gazteek irri egiten zuten, aita gehixeago agertu zen etxe aldean eta eda-

nari zeharo laga ez zion arren, botilari ez zion hain maiz oratzen. Baina Malanttoniren ordua luzaroko zihoan: amona sendatu zen, aitaren zintzurrak berriro ezagutu zuen ardoaren goxoa, eta hiru mutikoak ba... betikora.

Halako batean, Inaxio Jabierren galtzontziloak lisatzen ari zela, Tia Juana etorri zitzaion Malanttoniri, izerdi patsetan. Lasterka hitz egiten hasi zen baina, mihi punttan garatxo eder bat edukitzeaz gain totela zenez gero, lanak izan zituen Malanttonik auzoak esandakoa zuzen ulertzen. Azkenik, ordu laurden baten buruan jakin zuen dena: Tia Juanak, marrubiak biltzen ari zela, ustekabean entzun zuen nola Anjelmarik agintzen zion Errekaldeberriko Eukeniri arratseko zortzietan Bordatxuriko lastategira joateko. Malanttonik eskertu zion mesedea, nahiz eta bere artean pentsatu jende gehiegi zegoela jakinaren gainean.

Egun hartan, zortziak jo aurretik, Martinen goldea konpontzera joan behar zuela-eta etxetik irten zen Anjelmari. Malanttonik zera esaten zion bere buruari: «Alu hori, ondo asko zekiat nik nolako goldea konpondu nahi duan alproja horrek,

baina espero ez duana aurkituko duk oraingoan, lotsagaldu horrek, ez nauk berriro izorratuko, ez.» Eta, mantala kenduz, Bordatxuri aldera abiatu zen Malanttoni.

Amona lastategian sartu zenean ilunpean zegoen dena; ez zen zipitzik ikusten; haztamuka mugitzen zen, isilka, lasto tartean ia-ia etzanda. Bat-batean, esku bat jarri zioten sorbaldan; ikararen ikaraz ez zen zentimetrorik ere mugitu; beste esku batek heldu zion besotik, estuago orain, eta, arnasa etenda bezala, zur eta lur gelditu zen; gero, ukondoan zuen eskua beherantz joan zitzaion izterreraino eta gizon baten hatsa aditu zuen belarri eta masailean; hiltzear zegoen amona. Izterreko eskua azpiko gonan gora zihoakion bitartean Anjelmari salatzen zuen ahots adurti batek «Eukeniii» esan zion mutur ondoan; beldur bizia amorru basati bihurtu zitzaion eta sudur zuloek, ireki eta itxiz, berebiziko orroa egin zuten: BRMMRR, BRMMRR, BRMMRR. Izutua Anjelmari izan zen orduan, kakalarri ahotsez oihukatu zuenean: AMONA??!!

[1983]

Melodrama

Ezkerretara, gugandik hiru mahai harantzago eserita zegoen bikoteari begiratu nionean, neskaren azal morenoari, kaobazko adatsari baino ez nion erreparatu. Berriro so jarri nintzaienean isilik zeudela konturatu nintzen, eta oso serio gainera: haserrezko espresioz, bakoitza bazter batera begira; aurrean baso bana hutsik, pentsatzekoa zen denbora franko zeramatela hor.

Ez zuten ezer esaten baina, bien artean zerbait gertatu berria zela nabaria zen bezala, beste zer edo zer ere bazetorrela asma zitekeen. Zeharka behatzen zioten elkarri aldizka, baina, inoiz begiez topo egiten bazuten, azkarki erretiratzen zuten burua.

Luze iraun zuten horrela. Halako batean, ez batak ez besteak begirada urrundu ez zutelarik, neskak, kopeta ilun eta serioz, pena apur batez ere bai, zerbait esan zion mutilari:

– Ezin dut horrela segi, ezin dugu horrela segi. Gureak egin du... aspaldian egin zuen –ho-

rixe esan ziola pasatu zitzaidan burutik, beharbada zerbait oso diferentea esan zion baina.

Mutilaren erreakzioa zeharo histrionikoa izan zen, deskarga elektriko batek astindu berri zuela pentsatzeko modukoa: bere aulkitik ia-ia saltatuz, neskaren besoari heldu eta, ezezka eginez, haren errua adierazi nahi zion nonbait:

– Ez, ez duzu arrazoirik! –esango zion.

Gauza bera behin eta berriro esanez, neskari eragiten zion, urjentziazko larritasun batean dagoenaren imintzioak aurpegi eta soinean. Honen aurrean neskak besoa askatu zuen zakarki, zer edo zer esanez:

– Utzi nazazu bakean! –eta, burua beste aldera itzuliz, norbaitek begiratzen ote zien konprobatu nahi izan zuen, lotsagatik-edo.

Mutilaren kuraia burbuila baten antzo ezabatu zen eta burua makurtu zuen, lur jota. Isiltasuna nagusitu zen beste behin: bata serbilleta-ontziarekin jostalari, bestea azazkalez mahaian joka, elkarrekiko mututasun eta ihesketan tematsu. Mutila pixkanaka madalena-itxura hartuz zihoan: lehenxeagoko furia ahazturik, begiak lausotu egin zitzaizkion erabat, malkoak ere ba-

zetozkiola aise antzeman zitekeen. Arrautzaren zuringoa ziruditen kolore argiko begi haiek.

– Badakizu herra diedala melodrama merkeei –bota ziezaiokeen neskak, bera ere aurki zotinka hasteko beldurrez.

Mutilak goiko hortzez beheko ezpainari kosk egiten zion, itxura pairakorraz, aldi berean ukabilak estutuz, handik pixka batera uholdeka etorriko zitzaion agresibitateari eusteko edo. Neskak, orduan, burua jiratu zuen eta paretetako irudiei beha jarri zen. Parisko kabaretetan Toulouse-Lautrec-ek egiten zituen dibujoek bat-bateko interesa sorrarazi baliote bezala. Sudurra pittin bat gorritu ez balitzaio edonork pentsa zezakeen koadroetan murgildurik zegoela, halako arretaz begiratzen baitzien.

Mutilak zerbait esateko keinua egin zuen, baina, hobeto pentsatuz edo, atzera jo eta hasperen sakon bat besterik ez zuen bota. Hasperen honek bere kontenplaziotik atera zuen neska. Begira jarri zitzaion, hasieran gupidazkoa zen baina gero gogortu zuen espresioz:

– Zer, hasi al zara hasperenekin? Badakizu horrela ez nauzula konbentzituko; gehiegitan en-

gainatu nauzu modu horretan –edota antzeko zerbait esan ziola imajinatu nuen.

Mutilari begiak ireki egin zitzaizkion, are gehiago, amorraturik balego bezalako eskukada bat eman zion mahaiari eta atzaparrak oldarkor erakutsi, basapiztien antzo, baina istant batez besterik ez zuen iraun bere horretan, hitz gotorren bat jaurtitzeko saio antzu bat egin eta gero burua bularrean erortzen utzi baitzuen, etsipenez. Bost minuturen buruan neskaren eskurantz luzatu zuen berea, maitekiro; honek, erretiratu; geroxeago, berriro luzatu zuen mutilak, eta neskak oraingoan, nekaturik, baldarki errefusatu zion. Horregatik-edo, aurpegia altxatu zuen mutilak, bere begi gorritu eta negartiak ikus zitzan besteak. Itxura barregarria zuen benetan, baina neska hark oso bihozbera izan behar zuen, ilundu egin baitzitzaion begitartea.

Mutilak, ahultasun une horri probetxu atera nahian, hitz bat esan zion neskari, izena besterik ez nire iritziz:

– ...

Ima, Marian, Ane, Bego edo antzeko zerbait. «Maitea» ere izan zitekeen.

Neskak mutu zirauen oraingoan.

– ... –izen bera errepikatu zuen mutilak.

Erantzunik ez.

– ... –hirugarrenez.

Aski duenaren jestu gogaitua egin zion neskak. Bestea, berriz, bere estakurua entzunarazteko indarberritua nonbait, hitz goxoz mintzatzen hasi zitzaion, konbentzimendua begitartean grabaturik:

– ... –izenaz hasi zen, ziur–, ez, ez didazu ulertu, gaizki ulertu dituzu gauzak eta okertu egin dituzu, edo okertu egin zaizkigu, ez dakit... Nik ez nuen... –aldizka pausaldiak egiten zituen diskurtsoan–. Ai, ez zaizkit hitzak ateratzen... Nik inolako asmo txarrik gabe egin nuen, gaizki jokatzen ari nintzen kontzientziarik gabe... Eta oraindik ere ez dut uste gaizki egin nuenik... –beste eten bat–. Beste hori, berriz, nik ez nuen halakorik esan nahi, baina zerorrek bultzatu nauzu.

– A, bai e? –argudioa ez zen hain biribila izan, itxura denez; haserre jiratu zuen burua, jauzika–. Mutil gaixoak ez zuen halakorik esan nahi, baina esan egin zenuen! Ez zuen deus txarrik egiteko

asmorik, beti asmo onak ditu, baina izorratua ni izan naiz, beti bezala!

– Ez duzu horrela hitz egiteko eskubiderik –aurreko lasaitasuna galdurik eta zotinka hasiz, hitz egiten zuen heinean negarralditik gero eta gertuago–. Ni naiz beti kabroia, betiko alua, eta ez da egia; zuk ere min ematen didazu askotan zure hitzekin –zotinaren etena, malkoak libro–, eta niri agoantatzea tokatzen zait.

– Gizajoa halakoa, mutiko mindua! Dialektikarako ahalmena ez zaizu kamusten behintzat; beti daukazu hitz aproposen bat zeure burua zuritzeko.

– Ez esan halakorik...

Eta mutilaren arrantza berri batekin amaitutzat jo zen elkarrizketa adiskidetsu horren beste kapitulu bat.

Esaldien neurriagatik eta haiei laguntzen zieten keinuengatik halako zerbait esan bide zuten, politikaz edo angulen prezioaz ez zen solasa behintzat.

Kontzertu baten antza hartuz zihoan hura: gaia beti bera izaki, bazituen bariazioak, eta baita fortissimi eta pianissimi zatiak ere. Orain-

goan mutilak, bi eskuekin tximetatik helduta, mahaia blaitzen ziharduen, pixkanaka soseguzkoa egin zen negar erritmiko batean, noizbehinka buruari alde batera eta bestera eraginez, ezer konprenituko ez balu bezala. Neska ere, lagunaren arrangurak indartu ahala, urduriago jartzen ari zen, gogoz kontrako egoera hartan trankiltasuna mantentzen saiatu arren.

Impasse berriari irtenbide orijinala eman nahian-edo, neskaren izena errepikatzen hasi zen mutila beste behin, erantzuna jasotzeko baino gehiago terapia katartiko gisa, begiak neskagana zuzentzeke, edalontziari eusten zioten bere eskuetan finko, etengabe esaten baitzion:

– ... –bi silabatakoa zirudien izenak– ..., ..., ..., ..., ...

Neskak, halako errekerimendu nekagarriari ihardetsiz, zerbait galdetu zion:

– Zer? –aspertuxea.

Mutila, zozo moduan, isilik geratu zen; gero, zer esan ez zekiela erakutsiz, lelo bera ahoratu zuen berriro.

– ...

Isilik geratu ziren. Neskak mahai gainetik kendu zituen eskuak eta, apenas sumatzen zen mugimenduagatik, ahopetik zerbait kantatzen ari zela pentsatu nuen, infernu horretatik alde egitearren-edo. Mutilak, efektistago, beso bat bestearen kontra estutzen zuen, azazkalak haragian sartu nahian bezala, sabaira begira; seguruenik martiri sentitzen zen une horretantxe.

Laster, jertsearen manga ukitu zion mutilak emeki, besteak mahai azpian baitzeuzkan eskuak, eta, larruazala bezain goxoa ez zen arren, mahukaren ehunean korapilatu zituen bere hatzak. Hala egon zen luzaz, kotoiari xera eta xera, laztan antzuetan, begi argiak hainbatgarren aldiz anpuluen distiraz edertzen zitzaizkion bitartean.

Laranja erdi konplexua edo elkar islatzeko joeraren bat zuten nonbait, bataren malkoei bestearenek erantzuten baitzieten, oboe eta pikoloaren arteko joko musikalaren antzekoa osatuz.

Mutilak, bere arranguren oihartzuna ikusirik, arrantzen arteko irribarre herabetia egin zuen, baina ez zuen ematen neskari negarrontzien sin-

fonia gehiegi gustatzen zitzaionik, painelua eskatu baitzion mutilari nahiko haserre.

– Utzidazu sikatzeko zerbait.

Hori pentsatu nuen esan ziola, besteak ezezkoa eginez paperezko serbilleta bat luzatu zion eta.

– Negar eginarazten didazu eta beti bukatzen dugu berdin.

Nahiko interpretazio librea da baina horixe otu zitzaidan esango zuela neskak.

Mutila baretu zen, lagun hurkoaren penak eman ohi duen arinduraz beharbada, eta, aurreko serbilleta mela-mela eginda zuenez, beste bat eskaini zion neskari; atzamarrak ere endredatu zizkion ilaje naroan; oraino negarrez zegoena kontsolatu nahian zebilen:

– Ez ezazu negarrik egin, polit horrek, nire neskato kuttun horrek...

Halako zerak esaten zizkiola irakurri nuen eite maitakorrean. Gauza gehiago ere bai gero, adiskidetzeko asmotan itxura denez:

– ... –izena–, maitea, ez egon horrela –besarkatu egin zuen–. Elkar maite dugu, ezta? –azken hau esatean begietara begiratu zion, eta ondo-

ren berriro sorbalda gainean jarri zion bere kokotsa–. Nire azukre koxkorra, zergatik haserretzen gara egunero?

Neska, oraindik bere onera etorri gabe, ez zen mutila bezain ponpox eta alai jartzen, sobrare, eta zerbait esan zion, doinu aski neutralez, ikusi ahal izan nuenez.

–Beti gauza bera egingo ez bazenu ez ginateke hola ibiliko.

Mutilak, burua sabairantz altxatu eta suspirioka ekin zion berriro, ozen. Solaskideari begiratu gabe, bere artean marmarka hasi zen; gero, marru baten antzo, neronek ere entzuteko moduan, galde esperantzagabea:

– Ez al nauzu sekula konprenituko?

Espektakuluaz bastante nekaturik, handik alde egitekotan nengoen; hala ere, ipurdiaren itsaskortasunagatik edo zerbait hobea ikusteko irrikaz, bertan geratu nintzen azken momentuan, fedea ez baita hain erraz galtzen.

Argi zegoen bietatik inork ez zuela erretzen, bestela erreak zituzten ordurako zenbait zigarro, edo, tabakorik gabe baleude, erre nahi izatearen trazak egingo zituzten behintzat.

Neska bere onera etorria zen; haatik, desesperoan zirauelako edo barrena erretzen zion guztia kanporatu gura zuelako, zer edo zer jaurtiki zion, jotzeko asmotan:

– Noiz izango ote dut bakea behingoz? Hobe elkar ezagutu ez bagenu, edo betirako joango bazina.

Showra bultzatu zuten hitzok mutila: arrenkari erakutsi zuen bularra, esaldi solemneren bat zioela:

– Bukatu nahi baduzu, hartu ganibeta eta hil nazazu!

Neskak barre egin zuen, eta mutilak, barne muinetan minduta, suplikatik bortizkeriara joz besoa altxatu zuen, kolperen bat ematekotan edo.

– Bai, orain hori –neskak, asaldaturik–, jo nazazu, aprobetxa ezazu indar gehiago duzula, hori bakarrik falta zitzaizun.

Mutilari berehalaxe damutu zitzaion laguna jo nahi izana eta barkamen eske hasi zitzaion jarraian, iruditu zitzaidanez:

– Barkaidazu, … –izena–, barkaidazu faborez. Nik ez nuen jotzeko asmorik, baina aztoratu egin

nauzu, nik guztiz seriotan esan eta barre egin didazu, pailazotzat hartu nauzu, baina nire sentimenduak benetakoak dira, nik ez dut itxurarik egiten, ... –izenaz amaitu zuen, eta halaxe segitu, eskuak airean mugituz–. Ai, ..., zergatik ibili behar ote dugu horrela beti? Nik maite zaitut –bi eskuetako behatzak elkartuz, otoi egitera balihoa bezala eta su handiagoz–, ez daukat zurekin pozik bizitzea beste asmorik; zuk ere maite nauzu, zergatik liskar hauek? Zer dela eta elkar mintzen aritu?

Makina bat minutu eman zuen era horretan, hizketa etengabean ezti, neska ere beratzen zihoan bitartean, hitz andana horrek hunkiturik nonbait, aldizka zerbait adieraziz erabat konforme ez zegoela agertzeko.

– Zerorrek duzu kulpa, ez nik.

Hala eta guztiz, notatzen zitzaion adiskidetzeko gogoa. Mutila ere amore emateko pronto zegoen:

– Ez da berriz halakorik gertatuko –burua apurtxo bat makurtuz.

Nabari zen ondo amaituko zutela afera, musutxo bat ere emango ziotela laster elkarri, beldur eta errezelo guztiak behin betiko uxatuz.

– Aurrerantzean halako gehiagorik ez –esango zuten biek, eskuak lotuz, itxaropena eta zoriona begi gorrituetan.

Aldamenekoak eta biok, kafetegi hartan egoteaz asperturik, beste tokiren batera edo paseo bat ematera joatea erabaki genuen; gu altxatzearekin batera, hiru mahai harantzago zeuden bi haiek ere aulkitik jaiki ziren, gureen antzekoak ziren abriguak jantzi zituzten, eta, gu joatean, ezkerreko ispilu handia ere hutsik geratu zen.

[1984]

Demagun sexua komunikatzeko beste era bat baino ez dela

zinema-gidoia

OHARRA SOINUAZ: hemen, ikusiko denez, ez da hitzik egingo. Une batzuetan erabil liteke musika egokia: kamera abiadura bizkorrez dabilenean, adibidez, zinema mutuko piano soinua eta abar, nahitaezkoa ez bada ere. Garrantzitsuena hauxe da: sexu kontaktu bat dagoen bakoitzean, horrek hots ozen eta berezia sorraraziko du, kontaktu bakoitzak bere hots zehatz eta partikularra: txanpon makinen zaraten modukoak, txintxarriak, joareak, kanpaiak, turutak, bozinazoak eta antzekoak. Noski, ekintza eta hotsa ondo lotzen asmatu behar: esate baterako, titi txiki batek txintxarri hotsa izan dezake, eta ipurdi

handi edo pakete nabarmen batek bozinarena edo mok-mok durundatsua.

Iluntasuna. Iratzargailuaren txirrina. Hotsa gelditu eta mesanotxeko argia pizten denean berrogei urte inguruko gizon batek egin duela konturatzen gara. Logale aurpegia. Gogo txarrez musu tornilloa ematen dio ondoan duen andreari eta hau ere esnatu egiten da, logalez.

Gizona atxur elektrikoz bizarra mozten. Sukaldean jantzita gosaltzen, emaztea zutik lanean. Seme-alabak –10 urte inguru– sartzen dira elkarri hankatarteak ukituz, jostalari. Bakoitza aitarengana doa eta ezpain-jate laburra, mihi eta guzti. Denak gosaltzen. Gizona altxatzen da, presaka, hirurei ipurdia igurzten die eta kanpora ateratzen da.

Igogailuan, Gizona, beste bi gizon eta emakume bat. Seriotasun osoz, izterrartea ukitzen diote denek elkarri, laburki. Gizon trajedun batek kosk egiten dio belarrian ondoko gizonari, eta ordainez honek ipurmasailetan barrena sartzen dio eskua.

Autobusean, txoferrari bi musu ematen dizkiote denek sartzean. Bidaiari gehienak geldirik doaz. Zenbait halere –ez dio axola gizon edo emakume diren– ondokoaren ipurdia edo hankartea igurtziz. Amona xahar bat Gizonarengana joan eta paketea ukitzen dio. Honek bere magalean hartzen du atsoa eta, gerritik helduz, titiak igurzten dizkio, haren irribarrez.

Lantokian fitxatzerakoan, ilaran daudenak eskua aurrekoaren hankarteari loturik daude denak. Ofizinan bertan kristoren mutur-janak denek elkarri, harik eta jefea etorri arte. Orduan eseri egiten dira denak eta jefeak banan-banan deitzen die, mihiaren keinu lizun batez. Beragana doazenean, prakak jaitsiarazi eta atzetik ematen die aldi labur batez, batzuek gozamenezko irribarrea egiten dutela, besteek kalkulagailuarekin lanean segitzen dutela.

Txirrinak jo eta denak irteten dira arrapaladan, egundoko zirri eta igurtziak eginez. Igogailuetan lagun asko doaz, eta denen eskuak gurutzatzen dira elkar laztantze horretan.

Jantokian, plater konbinatuak jaten dituzte lankideek. Bazkaltzen duten bitartean, sutsuago-

ak dira bere hartu-emanak: bi lagun elkarren ondoan jarri eta ia etzanda ari dira, alkandorak askaturik, prakak jaitsita, gonak altxaturik. Gizon-emakumeek ere jardun dezakete, baina batik bat gizonak elkarrekin eta emakumeak ere beraien artean.

Besotik eta gerritik helduta, muxuak emanez itzultzen dira lanera, baina ofizinan lanean aritu beharrean larrutan ari dira: neskak gizonen gainean hanka zabalik eserita, kuleroak eta sostenak gizonaren buru gainean jartzen dituztela. Gizon bat besteari zakila miazkatzen; andre bat larru bizitan, gizon bat titiak igurzten eta beste norbait alua jaten ari zaizkiola, eta abar eta abar, zenbakiak, jarrerak, partaideak, ekintzak eta nahi den guztia aldatuz eta trukatuz.

Une horretan sartzen da jefea, sadikoen larruzko arropaz jantzita, zakila gorri eta zut agerian geratzen zaiola, zigorra eskuan. Hasten da batzuk eta besteak zigortzen, gupidagabe, eta haren oinetan txilipurdikatzen da jendea, adurra dariola, artean estalita zeuzkan gorputz atalak biluztuz.

Kalean, gizon koadrila bat, eskuak besteen paketeetara eramanez. Taberna batean sartzen dira eta neska tabernariari titiak zanpatzen dizkiote. Neskak ere eskuak luzatu, eta denen hankartekoa ukitzen saiatzen da; denak alai.

Etxean, afalorduan, haurrak elkar ukitzen ari direla, pitxerra lurrera bota eta hautsi egiten da. Aitak hartu seme-alaba biak, prakak jaitsi eta atzetik ematen die banan-banan. Emakumeak ere zakiltxoan eta pottottan atximur egiten die; ondoren, atzetik jartzen zaio Gizonari eta, azazkalez sorbalda urratzen dion bitartean, pepino moduko zer edo zer sartzen dio ipurditik.

Telebista aurrean: telebistakoek oso azkar hitz egiten dute, ezer ulertzen ez dela. Laurak besaulkietan jarrita, hari begira ari dira. Gizona masturbatzen eta Emakumea ere bai. Haurrak, begiak telebistatik kendu gabe elkar masturbatuz; telebista amaitzearekin orgasmora iritsiko dira laurak.

THE END

BESTE OHAR BATZUK: Lan hau pornografikoa izateko arrazoirik ez dago, baina pornografia baztertzeko ere ez, egia esan. Esan nahi dudana zera da: genitalik erakutsi nahi ez bada horrela ere egin daitekeela, keinuak bestela ere aski adierazgarriak izan baitaitezke.

Beste alde batetik, ekintza sexual ugari bateratsu agertzen da, baina garrantzizkoa da banaro eta bereizirik erakustea horiek guztiak, beti ere soinu batez lagundurik agertu behar baitute, eta plano orokorretan galdu egingo litzateke ekintzaren eta soinuaren arteko lotura. Azkenik, sexu ekintza ugari dagoenean komenigarri litzateke kamera bizkortasunez erabiltzea batetik bestera.

[1986]

Telebistarik ez, inkomunikazioa dakar-eta

zinema-gidoia

Etxe bateko egongela dotorea. Paretetan liburuak, ugari eta era askotakoak. Arte-irudi modernoak ere bai, erreprodukzioetan. Landare berde handiren bat edo beste bazterretan. Leiho handiak. Argia, ordea, artifiziala da, ilunabarrean baikaude. Altzari modernoak. Han-hemen apaingarri zenbait baina ez gehiegi. Oro har, gustu oneko dekorazioa. Kultur maila altuko eta ekonomi maila ertaineko jendea bizi dela nabari da.

Mahai baxu baten inguruan simetrikoki elkarrengandik pare bat metrora-edo dauden bi besaulki erosotan eserita gizona eta andrea. 30-40 urte bitartekoak. Etxeko arropa komodo baina dotorez jantzirik. 68ko maiatza bizi izandakoak. Liburu bana eskuetan, irakurtzen ari dira isilik.

Kamerak xehetasun guztiok erakutsi dizkigu poliki-poliki, musika bat entzuten dela: Tete Montoliuren piano-lan hotz eta geldo samarren bat, edo antzeko doinuren bat.

Azkenik, gela osoa eta bikotea erakutsi ondoren, musika-aparailua agertzen zaigu: diskoa jiraka ari da eta bere amaierarantz iristen. Halako batean diskoa amaitzen da eta Montoliuren musika bat-batean isiltzen.

Andreak esaten du orduan: «Entzun, entzun hau», eta bere liburutik irakurtzen hasiko da. Kamerak, irakurtzen ari den emakumearen eta itxura kontzentratu eta interesatuaz entzuten duen gizonaren aurpegiak eskainiko ditu aldizka.

Hau irakurriko du:

> De un modo análogo, el concepto de masoquismo reúne todas las actitudes pasivas con respecto a la vida erótica y al objeto sexual, siendo la posición extrema la conexión de la satisfacción con el voluntario padecimiento de dolor físico o anímico producido por el objeto sexual. El masoquismo, como perversión, parece alejarse más del fin sexual normal que la perversión contraria; es dudoso si aparece originariamente o si más bien se desarrolla siempre partiendo del sadismo y por una transfor-

mación de éste. Con frecuencia puede verse que el masoquismo no es otra cosa que una continuación del sadismo, dirigida contra el propio yo, que se coloca ahora en el puesto del anterior objeto sexual.

ANDREA: Ta? Zer iruditu zaizu?

GIZONA: (aurpegi serioz) Oso interesgarria; oso interesgarria.

Andreak baiezko keinu bat egiten du eta altxatu ondoren disko-jogailurantz doa; bertara heltzean esaten du: «Beste aldea jarri behar dut».

GIZONA: (geldiro) Ipin ezazu bolumena bajuxeago, faborez, kontzentrazioa galarazten dit eta.

ANDREA: Aurikularrak ipiniko ditut orduan.

GIZONA: Bale.

Andreak diskoari buelta eman, tresna martxan jarri eta aurikularrak jantzita berriro eseriko da bere liburuarekin. Kamerak andrea enfokatzean Montoliuren musika entzungo dugu. Baina gizona enfokatzen duenean isiltasun osoa nagusi.

Gizona irakurtzen saiatzen da, baina urduri antzean ikusten dugu, ez dago erabat gustura; mugitu egiten da besaulkian; andrea, berriz, irri-

barre batez ari da irakurtzen. Gizona halako batean altxatu egiten da eta armairu bateko atea zabalduz irratikasete handi samar bat ateratzen du. Ondoren zintak dauden apalean bila arituko da eta bat aukeratu.

Bere besaulkira doa eta ondoan jartzen du irratikasetea. Zinta zabaldu, sartu eta martxan jarri ondoren Pucciniren *Madame Butterfly* opera entzungo dugu. Barne poz eta baretasunezko keinua egin eta irakurtzeari ekiten dio berehala.

Kamerak bat edo bestea enfokatzean dagokion musika entzungo da. Aurrena andrea enfokatzen du, bere aurpegia eta esku artean duen liburua txandaka. Irakurtzen ari den pasarte bat entzuten dugu, andrearen barne ahotsez, hau da, bere buruarentzat ari dela. Irakurri ahala mihia ezpainen artean erabiliko du, txistu ugariz, desioz urtzen bailegoen, eta kitzikadura nabarituko zaio ahotsaren gorabeheretan.

Hauxe irakurtzen du:

> El empleo de la boca como órgano sexual se considera una perversión cuando los labios o la lengua de una persona entran en contacto con los genitales de la otra, y no, en cambio, cuando ambas mucosas labiales tocan una con otra.

> En esta excepción yace la conexión con lo normal. El que abomina de las otras prácticas, usadas quizá desde los más primitivos tiempos de la Humanidad, considerándolas como perversiones, obedece a una bien definida sensación de repugnancia que le protege de la aceptación de tal fin sexual. Los límites de esta repugnancia son, sin embargo, puramente convencionales: individuos que besan con pasión los labios de una bella muchacha no podrán emplear sin repugnancia su cepillo de dientes, aun no teniendo razón ninguna para suponer que su propia cavidad bucal, que no les produce asco, está más limpia que la de la muchacha..

Ondoren gizona enfokatzen digute, bere musikarekin, aurpegia eta testua txandaka. Hau ere irakurketan arituko da, barne ahotsez, baina diferentzia batekin: irakurri ahala loak hartzen du, begiak ixten zaizkio, lausotu, eta ahotsa makaldu, trabatu. Musikaren kolpe ozen batek iratzartzen du eta berriro hasten da erritmo biziz irakurtzen, berriz ere moteltzeko.

Hau irakurriko du, esan dugun moduan:

> Las ideas de Platón y las formas, esencias y definiciones de Aristóteles, son muestras de esta transferencia de la realidad desde el objeto a la fórmula verbal, exactamente repetible y,

> en consecuencia, aparentemente permanente. Una esencia, en realidad, no es parte de un objeto, sino parte de su definición. Creo, también, que las bien conocidas nociones de substancia y de cualidades atribuibles pueden derivarse de esta dependencia operacional de las exactamente repetibles descripciones y definiciones verbales, porque el mismo orden lineal en que han de ser utilizadas las palabras se traduce en un análisis cronológico-sintáctico de cualidades que en realidad son simultáneas y están entremezcladas y relacionadas entre sí de tal modo que ninguna cualidad puede ser separada del haz de cualidades que llamamos objeto sin que queden alteradas ella y las demás cualidades.

Berriro emakumea. Lehengo teknika bera. Diferentzia batekin: oraingoan mihia alde batetik bestera erabiltzeaz gain, izterrak ere igurtzi egingo ditu bata bestearen kontra, besaulkian jarreraz birritan aldatuz, eta eskua ere estutuko du sabelpearen kontra. Kamerak, beraz, hankak eta beste gorputz atalak ere filmatu beharko ditu. Kitzikaren eragina, dexente nabarmenagoa ahotsean.

Hauxe da irakurriko duena:

> Entre las zonas erógenas del cuerpo infantil hállase una que, si ciertamente no desempeña

el papel principal ni puede ser tampoco el substrato de las primeras excitaciones sexuales, está, sin embargo, destinada a adquirir una gran importancia en el porvenir. Tanto en el sexo masculino como en el femenino se halla esta zona relacionada con la micción (pene, clítoris), y en los varones, encerrada en un saco mucoso, de manera que no pueden faltarle estímulos, producidos por las secreciones, que aviven tempranamente la excitación sexual

Las actividades sexuales de esta zona erógena, que pertenecen al verdadero aparato sexual, constituyen el comienzo de la ulterior vida sexual «normal».

La situación anatómica, el contacto con las secreciones, los lavados y frotamientos de la higiene corporal y determinadas excitaciones accidentales (como la emigración de los oxiuros en las niñas), hacen inevitable que la sensación de placer que puede emanar de esta parte del cuerpo se haga notar en los niños ya en su más temprana infancia y despierte en ellos un deseo de repetición. Si consideramos el conjunto de circunstancias antes apuntadas y pensamos que la aplicación de las reglas de higiene corporal produce resultados excitantes iguales a los que la suciedad produciría, habremos de concluir que el onanismo del niño de pecho, al cual no escapa ningún individuo, prepara la futura

primacía de esta zona erógena con respecto a la actividad sexual. El acto que hace cesar el estímulo y determina la satisfacción consiste en un frotamiento con la mano o en una presión de los muslos, uno contra otro. Este último acto es el más frecuente en las muchachas. La preferencia de los niños por el frotamineto con las manos nos indica qué importantes aportaciones proporcionará en lo futuro el instinto de aprehensión a la actividad sexual masculina.

Berriz ere gizona. Lehen bezala. Orain, ordea, lo sakonagoetan murgiltzen da eta ia-ia besaulkitik erortzen.

Hona hemen irakurtzen saiatuko den testua:

Así, cuanto más estrechamente podamos limitar nuestros datos para razonar acerca de las cosas o datos que nos vienen a través de uno y el mismo canal sensorio, tanto más capaces seremos de alcanzar la exactitud de nuestro razonamiento, aun cuando éste será mucho más restringido en su alcance. Una de las cosas más interesantes en la moderna práctica científica ha sido la invención y el perfeccionamiento de los métodos mediante los cuales pueden los científicos adquirir muchos de sus datos básicos a través de uno y el mismo canal sensorio de conocimiento. Entiendo que, en física, por ejemplo, los científicos se sienten más felices cuan-

do pueden obtener sus datos con la ayuda de una esfera graduada u otro dispositivo que pueda leerse visualmente. Y así, el calor, el peso, las longitudes, y otras muchas cosas que en la vida ordinaria son aprehendidas a través de sentidos distintos a la visión, se han convertido para la ciencia en objetos de conocimiento visual de la posición de indicadores mecánicos.

Hurrena andrea enfokatzen digute. Aurikularrak kentzen ditu (Puccini entzuten dela) eta zutitu. Sukalde aldera abiatzen da eta esaten dio gizonari: «Nahi duzu kafe bat prestatzea?».

Ia lozorroan zegoen gizona itzarri-edo egiten da, eta aurrena grogi samar marmarrez «e?, e?» galdetu ondoren, «bai, bai; bai» erantzuten du, aztoratuta baina bizkor.

Sukaldean andrea kafea prestatzen ari da; urrunxeago entzuten da musika. Gizonaren ahotsa entzuten da egongelatik: «Entzun ezazu hau, entzun».

Eta ondoren, emakumea katiluekin ari dela, gizonaren ahotsa entzuten da; urrun dagoelako edo, oso ozenki eta poliki, zenbait hitz eta esaldiri enfasi berezia emanez arituko da irakurtzen:

El medio frío por excelencia de la actual época electrónica es la televisión, que produce

un espíritu antitético al del alfabetismo. «Los jóvenes que han visto televisión durante un decenio –afirma McLuhan– han absorbido automáticamente de ella una tendencia a la implicación profunda que hace que todos los objetivos lejanos, visualizados por la cultura dominante, les parezcan no sólo irreales sino insignificantes, y no sólo insignificantes sino anémicos...»

Así, contrariamente al distanciamiento y a la potenciación de una conciencia individual que produce el libro –medio caliente–, la televisión –medio frío– implica a todos los sentidos en una especie de simultaneidad que tienen algo de alucinatorio y que presenta siempre intersticios, configuraciones escasamente definidas: «la imagen televisiva es, visualmente, pobre en datos...»

Gizona pasartea bukatzen ari dela, kafea prestatuta, bi katilurekin itzultzen da egongelara andrea. Bi besaulkien aurreko mahai baxuan jartzen ditu. Esertzen da eta bakoitza bere katiluarekin hasten da: azukrea nahastuz, zurrupadaren bat emanez edo koilaratxoarekin jira-biraka.

GIZONA: Eskerrak guk ez dugun telebistarik, ezta?

ANDREA: Bai noski, telebistak inkomunikazioa dakar-eta.

GIZONA: Eta gizakiaren jarrera pasiboa ere bai, azkenerako norbera alienatu eta aspertu besterik egiten ez duena.

ANDREA: Bai, eta teleikusleek ez dute sexu harreman oparorik, aberasgarririk izaten. Bizitza sexuala zapuztu egiten du telebistak.

GIZONA: Bai, hala da.

ANDREA: Bai.

[1986]

Txinoen esperoan

Sorbaldaren pisua aprobetxatu nuen burdinazko ate astunaren kontra jarri eta zabaltzeko. Txorien txilioek festa giroko alaitasun berezia ematen zioten klaustroari. Nonahi ari ziren kantari, baina asko zorroztu behar zen begirada txori haietakoren bati argiki antzemateko. Itzaletik eguzkitara irtetean, argi errainuek itsuturik utzi ninduten une batez, ezer ikusteko gauza ez nintzela, baina berehala etorri nintzen neure onera, eta hantxe zegoen, Anaia Alfredok esan zidan bezalaxe, patioaren erdi-erdian aulki batean jarrita, bazkalondoko eguzkiaren goxotasunean lo-kuluxkan edo.

Poliki-poliki hurbildu nintzaion, zaratarik egiteko beldurrez –beldur inozoa, egia esan, txoriek nire zapata zolek baino askoz ere hots ozenagoa egiten baitzuten–, eta bere ondora iritsitakoan adi-adi geratu nintzaion so.

Burua alde batera zuen eroria, modu harrigarri batez: lepoa bihurrituta zeukala esango nukeen arnasaren lasaiari erreparatu ez banio.

Kaskoaren erdialdeko soilunea alde batetik bestera estaltzen zioten ile bakan zuriek, ordea, araztasun perfektu baten itxura ematen zioten, beti izan baitzen oso txukuna bere orrazkeran. Urre koloreko antiojo kaxkarrak sudurrean behera zituen labainduak, eta ezpain erdi zabalduen artean ageri zen mihi muturretik listu hari mehe bat zegoen zintzilik.

– Anaia Martin! –esan nion apalkiro, ez bainuen bortizki iratzarri nahi.

Sakona bide zen haren loa, ez baitzen amiñi bat ere mugitu. Manta koadrodun batean bil-bil eginda zegoen, urte sasoiko giroari eta orduaren berotasunari kasurik egiteke. Mantaren azpitik esku txuriak ageri zitzaizkion: axal fina eta ondo zaindua zuten gainean nahiz azpian, baina hatzmami zartatuetan igar zitekeen urte askotako klarionaren arrastoa.

– Anaia Martin! –kokoriko jarri nintzen haren buruaren mailan egoteko.

Ahoarekin eta bekainekin zenbait keinu egin zituen, esnatzen ari zelako seinale. Begiak zabaldu baino lehen, hatzen artean zeukan Kempisa irristatu eta magalean geratu zitzaion itxita.

– Anaia Martin! –ozenxeago esan nion ordukoan.

Begiak klis-klas zabaldu eta itxi aritu zen une batez, lozorroan jositako makarrek erabat zabaltzea galaraziko baliote bezala. Ahoarekin ere gauza bera egin zuen, listua bizpahiru aldiz irentsiz, loaldi laburraren ostean geratu ohi den ahogozo mikatz hori kentzearren. Kokotsetik behera geratu zitzaion listu-hariaz ohartu eta, beso dardartia astiro jasoz, artilezko jertsearen eskumuturreko aldeaz sikatu zuen. Operazio horien guztien ondoren betaurrekoak behar den lekura eraman eta tinko geratu zitzaidan begira, aurrean zeukan aurpegi gazte haren oroitzapena garuneko artxibategietako armiarma-sareen artetik erreskatatu nahi balu bezala. Baina naufragiotik ez zuen ezer salbatzerik izan.

– Neu naiz, Anaia Martin. Ez al nauzu ezagutzen?

Kristal osteko begirada lausotu hartako barrenean argi izpirik piztuko ote zen zain geratu nintzen aldi batez; alferrik: aspaldi ziren itzaliak su hartako txinparta guztiak. Nire buruaren

atzealdean zegoen zer edo zeren kontenplazioan galduta sumatzen nituen haren begiak.

– Neu naiz, Anaia Martin, Joxekruz.

Berriro saiatu zen, oroimenaren kaiolan, aurpegi eta izen horiek berak ezagututako errealitateren batekin josten. Bekozko zimurtuak ematen zidan haren lanen berri, eta laguntzen ahalegindu nintzen.

– Joxekruz Oiarbide, Zarauzko ikastetxekoa.

Oraingoan zerbait esan behar zuela zirudien; izugarrizko lana nonbait; aldi batean zintzurra gora eta behera erabili eta gero, nekez baina ahots garbiz atera zitzaizkion hitzak:

– Badakizu... hainbeste ikasle izan ditut honezkero. Zuek gazteak zarete... eta gu, berriz, zahartuta... gero eta zaharrago.

Orakuluaren gisa, isilik geratu zen hitzok bota eta gero, nik hausnartzeko eta haien mamiaz jabetzeko denbora izan nezan edo. Mingarria zitzaidan isiltasun hura, eta lehenbailehen bukatzeko gogo bizia sortu zitzaidan.

– Misioetara joan behar dut, Txinara. Anaia guztiei agur esatera etorri naiz.

Lehendik ere urrun begiratzen zuten begiak askoz urrunago finkatu ziren, urrutiko izarren baten kokaleku zehatza igarri nahian balebil bezala.

– Txinara... Txinara...

Oroimenaren gurpila jira-biraka hasi zitzaion, aspaldian lanik egin gabeko errotak ohi duen baldarkeria eta makaltasunaz; bere hitzen oihartzun fonikoak behialako errealitate ahantzira eraman ninduen ni ere, eta urtetan geldirik egondako ur paduratsuetan murgilarazi.

Anaia Martinek maiz aipatzen zigun Txina. Txina komunista, ni bestera banindoan ere. Beti esaten zigun Txina ez zegoela benetan haserre Errusiarekin. Itxura besterik ez zutela egiten, mendebaldea engainatzeko, haien artean zatiturik zeudela sinets zezaten europar inuxenteek. (Lastima vietnamdar eta kanputxearrek ez jakitea haserre hori itxurazkoa zela, bestela ez zen galduko hainbat milioi lagunen bizitza).

Komunistek, beraz, estrategia argia zuten: ziren baino ahulago ageri. (Gauza bera egiten

omen zuen deabruak: ez azaldu gure aurrean, ez dezagun sinets existitzen dela, hartara haren atzaparretan errazago erortzeko). Baina, benebenetan, komunistak –errusiar nahiz txinatarrak– ez zeuden geldirik, plan argi eta maltzur bat zuten, Anaia Martinek desmaskaratu zuena.

Baina ez dezala inork pentsa Anaia Martin politikoa zenik. Bera gure kristautasunaz arduratzen zen batik bat. Bekatua gure bizitzetatik deserrotu eta aienatzeaz. Eta ez da zaila asmatzen zein zen bekatu ohizkoena gure hamahiru urte haietan. Eta bekatu horren sua harrotzen zuen egurrak ere izen ezaguna zuen: pornografia. Bai, pornografia iritsia zen gure esku artega eta herabeetara.

Nor zegoen ordea pornografiaren atzean? Nork zuen zikinkeria hori bultzatzeko interesik eta zer lortu nahi zuen horren bidez? Horra hor garrantzizko galderak, eta hona hemen erantzunak: pornografia komunistek zabaldu zuten mendebalde guztian –errusiarrek eta txinatarrek–. Zertarako? Oso erraza da: mendebaldeko gazteak hondatu eta ezertarako ez zirela uzteko.

Hori horrela esanda, irudi lezake komunisten gaiztakeriak ez zuela arrazoirik, edo debaldekoa zela haien maltzurkeria guztia. Ez pentsa halakorik! Haien asmo eta helburuak askoz ere makurragoak baitira. Ikus ezazue haien epe luzerako estrategia, konfabulazio unibertsal erraldoia: behin mendebaldeko gazte guztiak pornografiak jota utzi eta gero, Txinak eta Errusiak zera egingo dute: mendebaldeko herri libreei gerra deklarazioa egin. Orduan, tarteko nazio guztiak bilduko dira, eta honako elkarrizketa hau izango dute:

– Arma atomikoak erabiliz egingo al dugu gerra? –galdetuko du norbaitek.

– Ez, ez –erantzungo dute denek–, hori mundu osoaren akabera izango bailitzateke.

Hartara, denak bat etorriko dira gerra konbentzionala egitearen komenigarritasunaz; eta hor, gerra konbentzionalean, benetan erabakigarri suertatzen dena soldaduen indarra eta adorea da.

Hemen dator beraz komunisten planaren bigarren partea: hasiko dira gerran, eta alde batetik etorriko dira milioika erruso eta txino: osasun onekoak, sasoikoak, kementsuak, edozein ekin-

tzatarako gogoz eta gorputzez prest daudenak (zeren, lehen esan ez badugu ere, komunistek galarazi egiten baitute pornografia –noski baino noskiago– beren herrialdeetan); eta nor dago horiei aurre egiteko? Bada, mendebaldeko gazteria: gazte ustelak, pornografiaren bizioak eraginda gorputza erabat ahuldua eta izpiritua askoz ahulago eta ustelduago dituztenak. Zer egin dezakete gazte gizagaixo, makal eta bekatuaren ximaurretan lohitutako hauek gazte komunista indartsu, langile eta esanekoen aurrean? Ezertxo ere ez, jakina.

Beraz, berehalaxe dugu gerra amaituta eta komunistak munduaren jabe, eliza guztiak erretzeko, kristauak giltzaperatzeko, Ama Birjina iraintzeko eta erlijioa debekatzeko.

Horra, bada, nola erakusten zigun Anaia Martinek, gaiztakeriak itxura asko hartu arren, izatez bat besterik ez dela, eta pornografia eta komunismoa, gazteok genituen bi arriskurik beldurgarrienak, txanpon bakarraren bi alderdiak.

Hori guztia gogoratu nuen han, Anaia Martin erdi hibernatuta zetzan aulkiaren ondoan kokoriko jarrita. Ez dakit zenbat denbora eman nuen oroimenaren gurditik tiraka, eta Anaia Martinek ere ezin ziezadakeen esan, berriz ere lokartua baitzen, baina minduta neuzkan izterretatik bizkarrerainoko muskulu guztiak. Eginahalak eginez zutitu egin nintzen, eta kraskadura bat nabaritu nuen hezur mamietan. Ez dakit altxatzean hotsik egin nuen baina Anaia Martinek begiak zabaldu zituen, eta, irribarre berezi bat zuela ezpainetan, halaxe esan zidan:

– Txinara, e? Txinara...

Nire burutik pasatako guztiak beretik ere pasatu ote ziren susmoa sortu zitzaidan, eta, arrazoia oraindik asmatu ezin izan badut ere, halako lotsa esplikaezin batek gorritu zizkidan masailak. Ez dakit nola, herabetasun txotxolo horren kontrako erreakzio moduan-edo, esaldi honek egin zidan ihes ahotik:

– Bai, badakizu: han ez dagoela pornografiarik eta.

Anaia Martin azkenengo urteetan bizi zeneko lausotasun sorgor hartatik une batzuez erabat li-

bratu zela esango nuke, hain bixia izan baitzen haren begien keinua, eta hain azkarra eta argia haren arrapostua.

– Horrek ez du meriturik. Hemen bizi behar da, hemen, bekatutik ihes egin gabe hari kontra eginez jo eta ke.

Harri eta zur nengoen ni Anaia Martinen piztualdia ikusita, eta ez nekien kontra egin behar ote nion edo arrazoia eman, argitasun harekin segi zezan. Zer esango pentsatzen ari nintzela, berak jarraitu zuen.

– Nik behintzat ez diot besterik eskatzen Jaungoikoari: eman diezadala eguna iritsi arteko bizitza.

– Ze egun? –galdetu nion benetako jakinminez. Horren begi-bistakoa izanda erantzunik ematea ere merezi ez balu bezala begiratu zidan harriturik, eta ondoren, konfidentzietan erabili ohi den doinu leunaz, hala esan zuen:

– Beste horiek iritsiko diren eguna.

Sumatzen nuen barregarri geratuko nintzela berriro, baina, hala ere, egin egin behar izan nuen galdera hori:

– Zein dira beste horiek?

– Zein izango dituk bada: txinoak –bota zidan ziplo, eskuak eta guzti altxatuz, aspaldi hartan izan zuen energia unerik nabarmenenean. Ni hasia nintzen haren pentsamenduaren nondik norakoari zertxobait antzematen, baina oraindik ez nintzen erabat ohartzen zein asmo zebilen haren kaskoan gora eta behera. Horregatik, guztizko inozotzat hartuko ninduela jakinik ere, hirugarren galdera egin nion ahots aztoratu samarrez:

– Baina zertarako nahi duzu txinoak etortzea?

– Martiri izateko, motell, martiri izateko.

Lehen baino harrituago nengoen, eta ezkutatzerik ere ez nuen izan. Anaia Martinek eskolako ikasleei begiratu ohi zien aire berberaz begiratu zidan, eta, arbela falta bazitzaion ere, orduko modu eta tankera pedagogikoaz hasi zitzaidan azalpenak ematen:

– Ez al duzu ikusten? Begira: txinatarrak etorriko dira eta komunismoa ezarriko dute. Orduan, debekatu egingo dute erlijioa, eliza katolikoa bai behintzat, eta apaizok bi aukera izango dugu: edo gure fedeari uko egin, edo martirioa. Orduan ikusiko da, bai, nor den benetako kris-

taua: epelak beldur izango dira, eta edozein gauza egingo dute zigorra bere buru gainetik kentzearren. Benetako sinestunok, ordea, martirioaren bide estu baina argitsua aukeratuko dugu, Jesukristorengana daraman bidexidorra. Horrela, Jaungoikoaren aurrean egongo gara zuzen-zuzenean, santu bihurturik betiko lorian. Zer hoberik?

Eta, azken hitzok pozarren esan ondoren, estasian geratu zen, begiak zabalik kerubinak eta serafinak ikusten ari balitz bezala, eta ezpainen artetik listu-hari fin bat hasi zitzaion irristatzen berriz ere.

Txorien txilio ernegagarriez konturatu nintzen. Erotzeko modukoak ziren, edo halakoak iruditu zitzaizkidan niri behinik behin. Arratsaldea aurrera zihoan eta gauza asko egin beharra nuen oraindik bidaiaren prestaketetarako.

Klaustrotik atera baino lehen azken soa zuzendu nion aulkian jesarrita, mantan bildurik eta burua alde batera eroria zuen Anaia Martini. Ez nuke asmatuko une hartan zenbat eta nolako burutazioak izan nituen esaten, ezta tripetako kilika amorragarri hura adierazten ere. Amesgaiz-

to luze batetik esnatu berria denaren gisa, buru nahastua argitzeko asmoz buelta eman, eta bake pozoitsuzko klaustro hari agur esan nion betiko.

[1987]

Ene dama maite horri azken gutuna

Ene dama maite hori:

Hau da bidaliko dizudan azkenengo eskutitza, eta horregatik eskatzen dizut, hemendik bertatik, bukaera arte irakur dezazula; tartean zernahi topaturik ere, izugarriena nahiz lotsagarriena izan, bihotz izan eta adorez segi dezazula azken lerroraino, horrela baizik ezingo bainaiz lasai gelditu, horrela bakarrik jakin ahalko baitut gutxienik entzun nauzula eta, agian, baita konprenitu ere. Gero, nahi baduzu txiki-txiki egin edo bihotzaren zolan gorde, nik beti gorde izan zaitudan bezala; edozer egin, maitea, baina aurrena utz iezadazu ene egia osoa lehen eta azken aldiz kontatzen. Horrenbeste merezi dudalakoan nago, hainbeste urtetan zehar elkarren maitasun-aitorpenen lekuko eta egile izan ondoren.

Izan ere, neu naiz bai, ongi aski dakizun legez, zeure amodio-nahi eta gurarien urtetako

irakurle saiatu eta bozkariotua; neu naiz bai, nire irrits isil eta irrika gorde guztiak agertu dizkizuna. Horixe naiz ni, bai, baina aldi berean ez naiz zuk uste duzuna. Nola uler liteke ezin adituzko korapilo gaitz hori? Lotsa naiz esateko, ene bizitza osoan inoiz izan naizen baino lotsa eta herabeago, baina halaz guztiz esan beharrean naiz, aitortu beharra dizut, aitorpen lotsagorritu hauxe baita azken gutun honen arrazoi nagusia. Baina... hara: bi hitzetan zirt-zart kontatu beharrean, ene bizitzaren pasarte batzuk azalduko dizkizut, zurekin eta batik bat gu bion hartuemanarekin zerikusi estu-estua dutenak, eta hauek irakurri ahala berehala igarriko diozu ene sekretu lazgarri eta esanezinezko honi.

Herrira iritsi nintzenean, artean ez nintzen ene bizibidearen berezitasunez jabetzen. Egokitu zidaten lehenengo lantokia zen, lehenengo eta azkena, inork ulertu ez baina nik ongixko nekizkien arrazoiak zirela-eta inoiz ez bainuen alde egin nahi izan beste guztientzat hiri handiagoetarako iraganleku huts besterik ez zen herrixka honetatik. Hasiera hartan nik ere lehenbailehen alde egitea nuen amets, ezerk ez ninduen lotzen

denboraren joanean neure esku-ahurrak bezain ezagun eta begi-niniak bezain ezinbesteko bihurtu zaidan leku galdu honetara. Etxez etxe zaku baten garraio ibiltzea ogia irabazte aldera egin beharreko lan nekagarria besterik ez zitzaidan egun haietan, baina aurki deskubritu nuen zakuan ogi truke garraiatzen nuena ez zela ikatz beltza, irina bezain paper zuria baizik; paper horrek, gainera, paper gehiago zeramatzan barnean, paper hutsa baino askoz gehiago zirenak: gizakumeen egitate eta sentimendu, beldur eta nahikundeen agerpena. Langile huts eta hitsa izan beharrean, gizon garrantzitsu sentitzen hasi nintzen, jendearen arteko lokarri eta mezulari nintzelako. Ez zitzaidan gehiegi axola jende horrexek ni aintzat ez hartzea, ene lana sats-biltzailearena baino areago ez estimatzea, nire baitan banekielako haien denen bizitzen gaineko nolabaiteko aginpidea nuela, zelan edo halan guztien bizitza nik neuk gobernatzen nuela. Eskura nuen horren froga: aski nuen honek bidalitako gutun garrantzitsua ez igortzea, besteak irrikaz espero zuena galtzea. Jainko txiki sentitzen nintzen hartaz pentsatzean, baina ez nuen

halakorik batere egin, aski baitzitzaidan egin nezakeela jakitea. Bere menpekoak gogortasunez zigor ditzakeela jakin baina erruki izatea nahiago duen errege ahaltsuaren antzera, nik ere gutunazala eskutan hartu, zer ote zekarren une batez gogoan erabili, eta bere bidean uzten nuen, eskuzabal.

Zu ezagutzearekin aldatu zen hori. Dena aldatu zen zu ezagutzean. Hasieran ez zinen izen bat baizik, gutunazal batzuetako aurrealdean eta besteen gibelaldean agertu ohi zen izena, baina handik laster, izen hori behin eta berriz errepikatzen zela oharturik, aurrez aurre ikusteko gogoa piztu zitzaidan. Ez zen zaila, noski, eta itsu izan behar zen, ni neu lana ez zen beste edozertarako nintzen bezala, lehenago ez erreparatzeko. Zure ibilera airos hura, zure eskuen kadentzia emea, burua makurtzeko eraren malenkonia... Eta begien distira, ilearen kizkurra, lepoaren segaila, gerriaren liraina, besoen zuria, masailen gorria, aurpegiaren obaloa, bularren gordea, dena nuke goresgai, behin eta birritan kantatu eta famatu dizkizut, baina ez dut azken aukera hau pasatzen utzi nahi beste behin bederen

azaldu gabe, zenbateraino maite eta miresten zaitudan.

Amodioaren ziztada zu ikusi orduko sentitu banuen ere, maitasunaren sua pixkana-pixkana goritu zen ene bihotzaren labean. Jakin-minak ikusmina eta honek maitemina ekarri baldin bazuten, maitasunak berriro eraman ninduen jakinmin are irrikatsuago batera. Zenbatero idazten zenuen begiratu, zenbatean behin jasotzen zituen erreparatu, eta azkar aski konturatu nintzen, axola gutxiko beste hainbat eskutitzekin batera, hamabostean behin iristen zitzaizula gizonezko berak igorritako gutun bat, eta bizpahiru egunen buruan, hutsik egin gabe, hamabostero bidaltzen zeniola zeurea gizon berberari. Haren helbidea sarri-sarri ez bazen ere lantzean behin aldatzen zen; zurea, berriz, beti bera, betikoa. Jakin-minak baino gehiago bekaitzak jaten zizkidan erraiak. Izan zitekeen harreman profesionalen bat, aspaldiko adiskidetasuna, edota deituren loturarik gabeko ahaidetasuna. Izan zitekeen, bai, baina ene barrenak maitasunezko gutunketa zela esaten zidan, eta goganbehar ho-

rrek iltze baten antzera zulatzen zizkidan bihotz-buruak.

Halako batean, zuretzako gutuna neramaki-zula, bidean erori eta min hartu nuen. Ez zen is-tripu larria izan baina, ahal nuen moduan, etxe-ra joan nintzen zurera segitu beharrean. Gauean, hobeto nengoela-eta jaiki nintzenean, patrikan neraman eskutitza etorri zitzaidan go-gora. Atera banuen, atera nuen: zure izena ida-tzita ikusteak erre egiten zizkidan begiak; erre, halaber, gutun hura ukitzen zuten behatz-ma-miak. Amorruak eraginda, gutunazala urratzeko-tan egon nintzen, baina eldarnio-uneetan ere bada barne-txinparta bat argi egiten diguna. Er-negazioa bideratu eta, hotz-hotzean, hautsi gabe zabaldu nuen sobrea. Ez dago azaldu behar-rik nola. Gure lanbidekook beti jakin izan dugu horrelakoak egiten. Ireki nuen bada gutunazala, eta nire susmo txar guztiak hantxe zeuden, kru-delki egiaztaturik, gordinki haragiztaturik. Itsu-menak gutuna hautsiarazi zidan ia-ia baina, ez dakit zerk eraginda, kalkulu maltzurrak ala lanbi-dearen ardurak, bere tokira bihurtu nuen gutuna eta txintxo-txintxo eraman nizun biharamunean.

Lehen bekatua omen da larriena, atea zabaldu ondoren aldapan behera joatea bezain erraza omen da bide makurretik segitzea. Halatsu nire kasuan ere: handik bi edo hiru egunera, gutun batekin etorri zinenean, kontzientziako kargu handirik gabe gorde nuen patrikan, gero irakurtzekotan. Baita egin ere, nire gelako bakardadean. Maitasun sutsu eta egartsuz zipriztindutako hitz bakoitzak bihotz-zimiko bat egiten zidan, min ematen zidan eta hala ere jarraitu egin nuen. Jarraitu ez ezik, behin eta berriz irakurri nuen, silabak banan-banan aletuz, lerroz lerro ahogozatuz, ele eder haiek denak besterentzat ez baina niretzat balira bezala. Amets-lilura hartatik itzartzean purruskatua nuen bihotza, lur joa bizi-gogoa, eta herrixkatik beste norabait bidaltzeko eskatu nien agintariei. Funtsezko arrazoirik eman ezean ezinezkoa zela erantzun zidaten, eta, egiazko arrazoia aitortu ezinezkoa zenez gero, isilik geratu eta hementxe segitu nuen, nire eguneroko lanean.

Nire eguneroko lanean eta hamabosteroko arakatze bikoitzean. Ia oharkabeko ohitura bihurtu zitzaidan, zuregana zihoazenak nahiz zu-

regandik zetozenak, komentu eta kartzeletan egiten omen den bezala, aldez aurretik nik irakurtzea. Horrelaxe jakin nuen harreman horren nondik norako zehatza. Lanean zebilen bera, handik hona, munta handiko gorabeherak esku artean nonbait, eta beti zuregana etortzeko asmoz, azkenik ezkontzeko irrikaz. Zu, berriz, egun hori noiz iritsiko zain, zuek biok behingoz elkartzea afera horiek denak baino garrantzitsuagoa zelakoan. Behin eta berriz errepikatzen ziren bateko eta besteko tira egite horiek, maitasun irakinaren adierazpenekin eta eguneroko txikikerien kontaketarekin batera.

Postaren taburik behinena hautsita, bestelako aldrebeskeria batzuk ere egitekotan izan nintzen: adibidez, bataren zein bestearen gutunen ordez nik neuk idatzitakoak sartzea, hartara, bati aurrena susmo txar eta gaitzespen txiki batzuk asmatzen banizkion, hurrengoan besteari hoztasun moduko bat egokituko nion, eta hala, apurka-apurka, bien arteko amodio noizbait bero izandako hura epeldu egingo zuten urruntasunak eta nire trebeziak, izoztu gero, eta, izotzpuska bat bezala, azkenean aiztoa indarrez sartu

eta mila zati egingo nuen. Gaizki eginaren damuak ez baina beste zerbaitek geldiarazi ninduen: batetik, pixkanakako maitasun-hozte horren eraginez, urrun zebilen gizona ez ote zen bat-batean han agertuko, edo zu harengana joango, gaizki ulertuak konpondu eta okerrak zuzentzeko asmoz; bestetik, bestearen letra bai, imitatzen aise ikasi nuen arren, zeure idazkera biribil polit hori irudikatu eta antzeratu nahian egindako saio eta ahaleginak erabat ustel irten zitzaizkidan. Hori dela eta, gutun faltsuak asmatzeko beldur izan nintzen, eta zuen arteko egiazkoen irakurle huts, ikusle mutu izaten jarraitu nuen.

Bazen lasaitzen ninduen beste alderdi bat ere: zure eskutitzak beti bezain grinatsu eta benazkoak baziren ere, bestearenak berriz, nire pentsamendua igarri balit bezala, apur bat epelago ez ote ziren bihurtzen ari. Maitasun-aitortzak han ziren betiere, itzultzeko borondate errepikatuarekin batean, baina formula eta formalismo antza ikusten nien nik, eta gure lanbidean urrundik dakigu konplimendu burokratiko horiei antzematen; haren bizilekuak, berriz, negozioek

hartaratuta, hurbildu beharrean urrundu egiten ziren denbora igaro ahala, eta, bere eguneroko bizitzaren xehetasunik batere ez kontatzea maiteagandik bereizitako bizimodu hura interesgabetzat jotzearen adierazgarri izan bazitekeen ere, neure artean egiten nuen, ez ote zen aitortu nahi ez lukeen zerbaitetan ari. Hortaz, hamabostean behingo betebeharrari huts egiten ez bazion ere, betebeharra zelako ez ote zen pentsatzen nuen, eta itxaropen izpi bat erne zen ene baitan.

Izpiak izpi, ez nuen inondik inora espero egun batean jaso nuen hura. Zuretzako gutuna zen, besteak bezalakoa. Besteak bezalakoxea ez ordea, pisuan bertan igartzen baitzitzaion besteetan baino paper gutxiago zekarrela. Nik ezer susmatu ez, ordea. Etxera iristean, beti bezala atea itxi eta beste ezer baino lehen gutunazala zabaldu nuenean, hura ustekabea! Beste batekin ezkontzen zela, urrutiko lurralde haietan, eta hortaz hautsi egiten zituela zurekikoak. Aurrerantzean ez zizula besterik idatziko eta zuk ere alfer-alferrik izango zenuela hari idaztea. Barka-

tzeko hitzik ere ez, sentitzen zuela soil-soilik, bi hitzetan eta eskutitz amaieran.

Zerua zabaldu zitzaidala uste izan nuen lehen unean. Amarrukeriaz nahi izan nuena hantxe neukan, berez-berez etorrita. Zure lehengo lokarri hura hautsita, libre neukan bidea. Baina, ez zen lokarri hura hautsiko zen gauza bakarra: zure bihotza ere erdi bi egingo ote zen beldur izan nintzen. Ez hori bakarrik: pentsatzen jarri eta, zer aukera izan ote nezakeen nik zure maitasuna eskuratzeko? Zu horren polita eta ni berriz honen ziztrina. Itxuraren ederra alde batera utzita ere, gizarte maila garaiagokoa zinen zu, eta ni berriz funtzionario txipi, ilun eta arrotza. Gainera, zure mila dohainen aldean jartzeko, nik ez nuen ez jendetasun, ez ondasun, ez edertasun, ez sarritan behartsuen bertute izan ohi den alaitasunik ere. Edonorentzat oharkabean pasa ohi diren gizon gris horietakoa naiz, inoiz inori eta ezergatik deigarri izan ez zaion horietarikoa. Nondik nora begiratu nahiko zenidan? Zer dela eta maiteko ninduzun? Nobeletan izan ohi da bataren kemena bestearen bihotza bereganatzeko

dina; baina ni, nobelen egian ez sinesteaz gain, ez nintzen sentitzen zuretzako duina.

Lehengo zerua zulo, bide zabala amildegi. Aurkitu nuen halere nondik irten. Ez nituen ahaztuan haren idazkera imitatzeko saioak, eta neke handirik gabe neureganatu nuen haren letra, antzaldatze handirik gabe jarri nuen eskua haren mugimendu eta bihurtzeetara. Hark ohi zuen baino sutsuago jardun nuen nik lehenengo imintzio aldi hartan, neure bihotza bailitzan mintzo zitzaizuna. Eta halaxe sentitu nintzen zure erantzuna jasotakoan ere, alegia, hari ez baina niri ari zintzaizkidala, nik esandakoen oihartzunak ageri baitzenituen nonahi. Alde bakarra, haren izena hartzen zenuela etengabe luman eta ahotan.

Bi aste iragan eta, noski, ez zen haren gutunik iritsi. Zalantza handirik gabe ekin nion berriz ere idazketari, gehiegi pentsatzeke, langa altxatu eta neure baitako isuriari bidea libre utziaz. Behin eta berriz errepikatu zen egintza bera, behin eta berriro jasotzen nituen zure erantzunak. Bestearen izena agertzea ez zen jadanik oztopo, begia ere ohitu egiten baita, eta hura ikusi

orduko neure izenaz ordezkatuta iristen zitzaidan burura. Bestearen idazkera itxuratu beharra ere ez zitzaidan batere kostatzen, errazago egin ahal izateko egunero-egunero jarduten bainuen horretan, eta, azkenerako, ez dakit berea baino neureago ez ote nuen. Oztopoak beste nonbaitetik zetozen. Zuk ekin eta ekin zeniharduen, itzul nendila eta elkar gintezela behingoz. Nik ere horixe nahi baina... Beste haren itxurakeriarik eta zurikeriarik gabe, nolabaiteko aitzakiak asmatu behar zure deiari jaramonik ez egiteko, biharamunean bertan atean izango ninduzula ez erantzuteko. Aterabide sinesgarri bakarra aukeratu nuen: ihesa, urrunago joatea.

Laneko nahaste-borraste harrigarri bat asmatu nizun, urrun joanarazten ninduena. Xehetasunik ez nizun eman, eta bai erregutu, ordea, zuk ere ez eskatzeko halakorik, esan gabe baina aditzera emanaz gorabehera ilun samarren batean sarturik nengoela. Harrezkeroztik, munduko bazterrik urrunenetatik hasi zitzaizkizun iristen gutunak: batean Bangkok bestean Chicago, aurrena Melbourne hurrena Calcuta, Camagüey ez bazen Badem-Badem, Shangai utzi eta Kinshasa

jo. Inoiz ez bi hilabete baino gehiago toki berean, eta, egia osoa esaten hasita, ezin ukatuko dizut jolas alaia ere bazitzaidala hara-hona etengabe hura, munduko posta-zerbitzu guztietako seiluak lortzea eta zigilu-markak itxuratzea jostagarria ez ezik neure lanbideko batentzat erronka modukoa baitzen. Zu, berriz, mugimendu jarraitu hark izutua, noragabeturik gelditu zinen, lege kontuetan sasiko nenbilela erabat sinetsita; eta, gertatzen zena gertatzen zela, bihotz-bihotzez maite ninduzula eta bai maiteko ere errepikatzen zenidan oraingoan bai eta hurrengoan ere bai. Zeruko doinua zen hura nire belarrientzat, eta aspaldiko zure maitale ustel haren faltsukerien ordez nire barrengo sentimenduak bururatu ahala husten nizkizun, ezer gorde gabe, idazketa-une haiek baitziren biok bat egiten genuneneko bakarrak.

Zalantza-uneak ere izan nituen, egia esan. Ez niregatik, nire poza bete-betea baitzen zureak jaso eta neureak igortzen nizkizunean; luzamendu bakarra, berriz ere hurrengoa bidali arteko itxarote hura izaten nuen, eta, bi asteko epea laburtzeko asmoa behin baino gehiagotan burura-

tzen bazitzaidan ere, pentsatzen jarrita, urrun haietatik joan-etorria egiten azkarrago ibiltzea ezin sinetsizkoa izango litzaizukeela ondoriozta-tzen nuen; epeari zintzo-zintzo eusten niola-eta, nola ez ote zenuen susmorik, harritzen nintzen ni, baina hola hobe. Esan bezala, zalantzak ez ziren niregatik, zuregatik baizik: benetako maita-sunik ez izatera zigortzen baitzintudan, kaiolatik ihes egindako txoriaren gisa joan zitzaizun haren ordez paperezkoa ez baina hezur-haragizko beste gizaseme bat bilatzea eragozten. Paperez-ko kaiola baitzen zure inguruan ehotu nuena. Baina zuk kaiola hartan horren pozik eta zorion-tsu zenirudien! Inoiz ez zenuen duda-mudarik ñi-miñoena ere azaldu, ez neke-arrastorik ez asper-dura-zantzurik. Aitzitik, etengabe berritzen zeni-dan aspaldi emandako maitasun-zina, eta nik hona etortzerik ez banuen zu niregana joango zi-nela ziurtatzen zenidan. Nik, noski, ezetz esan behar, nire bizia arriskupean zegoela eta ez nuela inola ere nahi zuri ezer gertatzerik. Biziki sentitzen nuela zu horrela, bakarrik, eduki behar-rra, ez bainekien noiz arte ibili beharko nuen ba-tetik bestera ihesi, eta, beraz, askatasuna ema-

ten nizula, harreman hura hautsi nahi bazenuen inongo gupidarik eta gaizki eginaren damurik gabe hala egiteko. Berehala iritsi zen zurea, besteetan baino zoliago, esanez ezen zuretzat ez zela nitaz beste gizonik, eta beti itxarongo ninduzula, baita urtetan zain egon behar bazenuen ere.

Urtetan... Zenbat urte igaro ote dira harrezkero? Asko... Zuk beharbada galdu duzu kontua, jakin ezinik, gainera, noiz arte idatzi zizun estreinako maitale gezurtiak eta noiztik aurrera zure benetako gurtzaile honek. Nik, berriz, ondo gogoan dut, eta gogoan ez banu ere esku artean ditut, neroni idazten hasi nintzaizunetik bidali dizkidazun guztiak. Paper horixkatuak dira dagoeneko, denboraren joanak eta eskuztatze sarriak gastatuxeak, zaharrenak behinik, baina behin eta berriz jotzen dut atzera berauek irakurtzera. Berrirakurketa horretan ematen ditut nire txolarteak, zure aldamenean nagoela sentituz, urte hauetan guztietan elkarren ondoan bizi izan bagina bezala. Eta neurri handi batean halaxe izan delakoan nago ni. Berdin izan ote da zuretzat? Baiezkoan nago, kalean pasatzen ikusten zaitu-

danean ez baitaramazu neskazaharren itxura alferrikaldua, lizuntzen utzitako jakiarena; aitzitik, lehengo ibilera airos hura apur bat mantsotu bada ere, bere hartan dituzu eskuen kadentzia emea, burua makurtzeko eraren malenkonia. Urteak pasa dira, bai, baina beti bezain maitemindurik naukazu eta lehen egun hartan bezain liluragarri ikusten zaitut: begien distira, ilearen kizkurra, lepoaren segaila, gerriaren liraina, besoen zuria, masailen gorria, aurpegiaren obaloa, bularren gordea... Inoiz besotan estutu ez izana dut pena bakarra, baina honezkero ez du merezi horretaz arranguratzea, irudimenezko mundu batean bizitzen ohitu naizelako batetik, eta, bestetik, nahita ere nire besarkada ez litzatekeelako nik nahi adinakoa, zuk merezi bezalakoa.

Hortaz, orain ere zure haragia nire haragiarekin, zure ahoa neurearekin bat egiteko esperantzarik ez badut, zertarako hau dena idatzi? Zertarako hautsi orain arte horren ongi gordetako kutxa sekretu honen sarraila? Neronek ere ez dakit ongi. Baina badira arrazoiak, noski. Bata, berehalaxe hartu behar dudala erretiroa, eta, lantokitik urrunduta, ezingo ditudala zureak jaso,

ez neureetan zure esanei erantzun. Agian joan ninteke bazter urrun batera, handik idatzi eta bertan jaso zureak. Baina, zu ezin ikusia gogorra izateaz gainera, medikuek esan berri didate gaitz alu batek jan didala barrena, eta denbora gutxiko bizia geratzen zaidala. Geratzen zaidan apur hau zurekikoa kitatzeko aprobetxatu nahi izan dut. Hau dena jakinda, iruzur batean bizi izan zarela pentsa zenezake, engainatu egin zaitudala eta alferrik galdu duzula bizitza. Alferrik galtzearena baliteke, iruzurrarena ere bai, baina zaude ziur nik ez zaitudala engainatu, gutun guztiotako maitasun hitz bakoitza benaz eta zinez sentiturik esan dizudala, azken hauek esaten dizkizudan bezala. Merezi izan du zu maitatzeko bizi izatea. Beste horrenbeste pentsatuko ahal duzu nitaz!

Kalte egin badizut, barka nazazu, eta, maitasun zoro hau aintzat hartuz gero, nire oroitzapena gogoan izazu. Dena dela, ez zaitez saia niregana etortzen, alferrik izango baita: gogorregia izan zait hau dena kontatu beharra, nire lanbidearekiko traizioa aitortzea, eta, hau jasotzen duzunerako, medikuek aurreikusi didaten bizial-

di laburrari akabera azkarxeagoa emana izango diot.

Maite izan zaitu,

Postariak.

[1993]

PASTITXE BAT

Pastitxe

– Ane naiz.

Segundo batez, telefonoz bestaldeko ahotsa aurpegi batekin lotzeko, izena erreferentzia batekin identifikatzeko ahalegina egin nuen. Alferrik.

– Ze Ane?

– Txoforen laguna. Ez zara gogoratzen?

Orain bai. Gogora zetorkidan nola antzerki bat ikusten egon eta gero bokadilloak jatera joan ginen eta nola *kitsch*-ari buruzko xinplekeriak esaten aritu ginen. Kundera eta hori guztia.

– Zurekin hitz egin nahi nuen gauza bati buruz.

Eta ondoren kontatzen hasi zitzaidan nola bideo kontuetan hasia zen eta nola zerbait egin nahi zuen eta ea nik gidoia egingo nion. Handik bi egunetarako geratu ginen. Topaleku edo, nik liburu-denda bat jarri nion, tabernez nazkatu samarrik.

– Jo, ez, a ze leku zatarra, toki estetikoago bat... –eta nire lanlekutik gertu geratzen zen taberna baten izena aipatu zidan.

– Konforme –nik–. Bostetatik aurrera libre samar nago. Bostetan, nahi baduzu.

– Bueno, bale. Ez, itxoin, eguraldi ona badago argazki batzuk ateratzeko aprobetxatuko dut. Hobe seietan.

Biharamunean etxera deitu zidan. Zitalekua aldatzeko. Halako tokitan, halako ordutan. Ez zen azaldu. Gau hartan ez dakit nik deitu nion edo berak niri. Azalpenak eman zizkidan, hau eta hori, eta hurrengorako geratu ginen, zazpietan.

– Nire lantokian azaldu zaitez –esan nion.

– Ez zara fidatzen, e? –berak, irribarrea sujeritzen zuen ahotsaz.

– Ez, ez da hori –aitzakiatan ni.

Puntual iritsi zen. Harreran zegoela entzun nuen bere ahotsa, eta hara hurbildu nintzen. Nire bulegoa ez da berez toki estetikoa, eta han ondoan zegoen taberna batera joango ginen galdetu nion. Baietz.

– Aizu, lore horiek ahazten zaizkizu –esan nion.

– Ez, zuretzat dira.

Bromatzat hartu nuen.

– Benetan?

– Bai.

– Baina benetan?

– Baietz.

– Bueno... –eta zer egin oso ondo ez nekiela besotan hartu nuen zelofanetan bildutako tulipan sorta.

Pintore-taberna bat zen. Paretetan koadroak-eta jartzen dituzten horietakoa; itsusi samarrak ordukoak. Zorionez hutsik. Mahai batean eseri ginen.

– Zer hartu behar duzu? –halako opari bat jaso eta gero, gentlemanarena egitera behartua ni.

– Ummm, xanpaina...? Ez, hori gauez. Kafe bat.

Mostradorean ez zegoen inor. Emakumea atera arte itxoin nuen. Eskatu, hartu, pagatu eta mahaira itzuli nintzen.

– Zer da hori, whiskya?

– Ez, mostoa –esan nion basoko izotz puskak klin-klin mugitzen nituela, eta esplikatu nola zer

hartu asmatu ezinik geratzen naizen eta nola halakoetan mostoa eskatzen dudan–. Ezer ez edatea bezalatsu da...

Gero elkarrizketa luze, nahasi bat etorri zen. Madril eta Euskal Herria, jende itxia eta irekia, hau eta hura, sakon usteko topiko kosmopolitenak errepikatzen bera, aldian behin kontrapuntua jartzen saiatuz ni –«ba, ni gero eta kaxeroagoa naiz eta batere lotsarik ez»– baina sekulan kontra egin gabe.

– Nire akatsetako bat ezetz esaten ez jakitea da –esan nion, baina ez zuen harrapatu.

Ez dakit ni izan ote nintzen edo bera, gure gaiari heldu beharko geniola esan zuena. Erlojuari bota nizkion begiradek izango zuten zerikusirik, dena dela. Kapelatik konejua atera behar duen magoaren antzera, prentsako errekorte bat atera zuen.

– *El País* irakurtzen al duzu? –galdetu zidan.

– Gutxitan. Aspertu egiten nau.

– A, bueno.

«Espainol kabroi horien gezurrik ez dudala sekula santan irakurtzen esan behar nioan»,

pentsatu nuen neure artean, baina erreflexuz motela izan.

El País Semanal-eko artikuluxka bat zen, sedukzioaz hitz egiten zuena: joko bat zela, eta ez dakit zer gehiago; lehenbiziko pausoa, batek erregalu bat egitea zela. Lo de menos es que sea caro, dice ez dakit nork gogoratzen dut jartzen zuela, lo que importa es sorprender al otro...

«Ostras, tulipanak!» pentsatu nuen, irakurketa geldituta; begirada altxatu gabe ere neska hura ez zela nire tipoa gogoratu nuen, eta berriro paperari lotu. Txorakeria pare bat zetorren hortik aurrera: nork bere izaerari eustearen eta bestearen nahietara moldatzearen arteko dialektika bat sortzen zela sedukzio-jokoan eta halako topikoak. Bukatu eta papera itzuli nion.

– Polita, ezta? –esan zidan irribarre zabalez.

Baietz esan nion noski.

– Oso historia postmodernoa da, eta nik halako gauza postmoderno bat kontatu nahi dut pelikulan.

Ez dakit bera ere oso postmodernoa zela ez ote zidan esan. Sedukzioaren gaia Moisesen denbora baino lehenagokoa zela esan nion,

baina gaurkotasunik galdu ez duena, gai eternoa. Txorakeriak nik ere, topikoak. Uste dut irakurri berri nuen liburu bat ere komentatu niola, Martínez de Pisónen *Alguien te mira en secreto* edo halako zerbait, baina ez zuen interes gehiegi agertu. Papertxo hura oinarritzat hartuta sedukzioari buruzko gidoi bat idatziko al nion galdetu zidan. Ez dakit ezetz esaten.

– Zenbat denbora iraungo du?

– Ordu erdi. Beharbada berrogei minutu.

– Bueno, saiatuko naiz.

Nire aurreko baserritarkeriez kezkaturik-edo, istorioak urbanoa izan behar zuela adierazi zidan. Niri ez zitzaidan *of course* erantzutea besterik bururatu. Halako batean, nahikoa hitz egin eta gero, altxatu egin ginen.

– Beste mesede bat ere eskatu nahi dizut, inporta ez bazaizu.

– Nahi duzun guztia –eskuzabal ni.

– Protagonista neska izan dadila.

– Protagonistak bi izango dira, ezta? Sedukzio historia batean…

– Bai, baina emakumearen ikuspegitik.

– Osea: emakumea izango da oparia egiten duena.

– Horixe.

Berriro lantokira laguntzeko esan nion, lehendik idatzitako gidoi batzuk eman nahi nizkiola eta.

– Ea gustatzen zaizkizun.

– A, ba, nik ere gustura erakutsiko nizkizuke neure bideoak.

Ondo iruditzen zitzaidala, eta asteburuan deitzekotan geratu zen, bideo horiek noiz eta non ikusiko.

– Ai, neska horri loreak ahaztu zaizkio –esan zidan lankide emakumezko batek hura joan eta gero.

– Ez, niretzat ekarri ditu –esan nion lotsaz gorrituta, eta bertan utzi nituen, zelofan eta guzti.

Etxera bidean buruan jiraka nerabilen sedukzioaren kontu txoro hura, berez oso interesgarria iruditzen ez bazitzaidan ere. Deitu egin nion etxetik, eta bururatu berri zitzaidan ideia pare bat azaltzen hasi.

Nire rolloa etenaz, galdera bat egin zidan zuzen-zuzen:

– Zer egin duzu tulipanekin?

Ez dakit artegatasuna nabaritu zitzaidan.

– Hori… bueno, ikusten garenean kontatuko dizut.

Gabon esan eta ohera joan nintzen.

Biharamunean, utzitako tokian ikusi nituen loreak, harrerako mahaitxoan, zelofan eta guzti. Beste lankide batek galdetu zidan:

– Nork ekarri ditu lore horiek? Ze politak, ezta?

Nondik edo handik txarro bat inguratu eta hantxe jarri zituen. Ondo geratzen zen, loreak gustatuz gero.

Asteburu hartan etengabe erabili nuen gogoan sedukzio istorio hura, nondik heldu ez nekiela. Pentsatzen jarri eta ezer txukunik bururatu ez. Bi hitz idatzi eta berehala trabatzen nintzen. Elementuak banan-banan aztertzen hasi eta esaten nuen:

Neska: 30 urte, itxura onekoa (xehetasunak zuzendariaren esku). Sofistikatua baina ez gehiegi, utzikeria-ukitu ondo estudiatu batzuekin.

Lekua: diskoteka edo pub moderno horietako bat. Argi ugari eta koloretakoak, baina giroa erdi ilun. Zarata handia, musika ozena eta jendea ozenki mintzo.

Mutila. Puntu honetara iristean hasten ziren nire kezkak. Huraxe zen nire behaztopa-harria. Batetik, topikoekin jolasteko pronto nengoen; bestetik, ez nuen tipikoegia ere izan nahi. Neskarena ez bezalako giro batekoa pentsatu nuen sartzea, hartara kontrasteak eskaintzen duen jokoaz baliatzeko eta. Diferentea beraz; nolakoa ordea?

Aukera bat: biajante itxurako bat izatea, traje, gorbata eta gabardinarekin, pub horretan kasualitatez sartu dena. Tipo despistatu samarra izan liteke, eta honen trakeskeria xarmagarri iruditu neskari. Hala ere, ez ninduen konbentzitzen: edo txorrada yupi bat ateratzen zen, edo pelikula espainolen traza guztiak zituen. Fuera.

Beste aukera bat: delako gizon hau gazte bizardun borrokalari bat izan zitekeen. Indar gehiagoko estetika izango zuen, berritasunagatik, koadrozko alkandora eta zamarra handiarekin, eta nolabait ere basapiztien lilura sortuko

zuen neskagan; hala ere, historia postmoderno bat kontatu behar bazen, neskak berera erakarri beharko zuen mutila, koketo bihurtu, *look*-a aldarazi; eta hori dena, niri ez gustatzeaz gainera, pigmalion-istorio berri bat izango zen, eta ez sedukzio zera bat. Beraz, aukera hori ere kanpora.

Halaxe nengoen, bada, aurrera egin ezinik, hasi orduko nazkatuta; hala ere, ez zitzaidan itxurazkoa iruditzen esku-hutsik agertzea, ezer bururatzen ez zitzaidala aitortzea. Aitzakia gisa, zer edo zertan aritu nintzela erakusteko, gogoeta eta zalantza horiek paper txuri batera aldatu nituen, idatzi ahala ezer hoberik bururatuko zitzaidalako esperantza urrunarekin betiere.

Esperantza urrun hori gauzatu egin zen, ordea. Azkenik okurritu zitzaidan sinesgarri irizten nion zerbait. Paperean hasi nintzen bospasei ideia zirriborratzen, baina, ahoz ematea hobe izango zelakoan, geroko utzi nuen. Gainera, telefonoz deitu behar zidan Anek, bere bideoen kontu hartarako.

Asteburua joan zen eta deirik ez. Hobeto, esan nuen neure artean, pelikula eta gidoien

asmo haiek denak ahazturik geratuko zirelakoan.

Astelehen hartan ordea, lanean nengoela Aneren dei bat pasatu zidaten. Asteburuan zain egon nintzela gogoraraztekotan izan nintzen; isildu egin nintzen, ordea; berak ez zuen damu arrastorik, noski.

– Biharko geratuko gara, hortaz, bideoak ikusteko eta hitz egiteko? –bota zidan berriketaldi labur baten ostean.

Bere bideoak ikusteko lekua bilatua zuen eta bertan geratu ginen astearterako, ordu bata eta erdietan, Txofo eta hirurok.

Txofo eta biok agertu ginen lehenak, eta zermoduzka aritu gintzaizkion elkarri Ane agertu zen arte.

Hiru bideo ziren, bosna minutukoak. Zein baino zein penagarriagoak, bitartekorik gabeko hasiberri batenak zirela kontuan eduki ezean. Eta hori kontuan hartuta ere bai.

Makrame-erakusketa baten berri ematea zen lehenbizikoa, «Gaur egun» bateko erreportaje geza izan zitekeena kameraren mugimendu baldresengatik ez balitz. Bigarrenean emakumezko

argazkilari bat ari zen beste emakume bati argazkiak ateratzen. Hirugarrenean arkitektura irudiak agertzen ziren negatiboan, irudi berorien argazkiak tartekaturik.

Bukatutakoan hurbileko italiano batera joan ginen bazkaltzera. Janariak ekarri bitartean gaizki esaka aritu ginen puska batean.

– Bueno... eta bideoak zer iruditu zaizkizu? –galdetu zidan, irrika begietan.

– Kontuz honekin, literatur kritiko zorrotza da eta –bota zuen barrezka Txofok.

– Damekin ez, damei sekula ez diet kritika gogorrik egiten.

Kopan ardoa isuri, tragoxka bat edan, eztultxo bat egin eta, ondoren, neure iritzia azaldu nion, aski leundua, baina horrore bat iruditu zitzaidala ezkutatu gabe.

Esplikazio teknikoetan hasi zen Ane orduan, hau zergatik eta hura nola. Postre eta kaferik nahi ote genuen etorri zen zerbitzaria, neskazahar muturbeltz itxurakoa. Txokolatea helatuarekin nik. Beste biek kafea. Gure proiektuaz hitz egiteko garaia zen.

Asteburuan idatzitako zirriborroa eraman beharko nuen baina, papera ahaztu eta ezer gabe agertu nintzen. Azalpen baldarretan hasi nintzen.

– Bueno, hasteko pentsatu nuen neskak izan behar zuela 30en bat urtekoa, itxura onekoa, sofistikatua baina ez gehiegi...

– Ni bezalakoa... –moztu zidan Anek.

Begira geratu nintzaion: dudarik gabe politagoa beharko zuen.

– Ez, sofistikatuagoa –esan nion.

– Badakit zer nahi duzun: *chica dunia* bat.

– Bueno, bai, ondo. Agian sofistikatuxeagoa hobe.

– A, orduan *chica Mari Claire* bat.

Baietz esan nion. *Chica Mari Claire*-en gaineko nire ezjakintasuna aitortzeko lotsaz, agian.

Gero mutilarekin izan nituen zalantzak eta aukerak kontatu nizkion. Gazte borrokalariak, bere bizar, alkandora koadrodun eta guzti, benetan izutu zuen Ane, eta berreziketa edo erreziklaiaren ideiarekin ere ez zitzaion irenstekoa iruditu. Hobe ahaztea.

Azkenik jenialtzat neukan ideiarekin hasi nintzen.

– Mutila futbolista bat izan daiteke; bai, futbolaria –errepikatu nuen beren aurpegi harrituen aurrean–. Batere intelektuala ez den tipo bat, muskulu hutsa, neskari animalia eder bat iruditzen zaiona. Gainera, irudietan entrenamenduak ikus daitezke, izterretan-eta erreparatuz; gizon objektua, nolabait ere; nik uste dut oso ondo dagoela gizon objektu bat erabiltzea, eta gaur gainera emakumeen eguna izanik...

Orduantxe gogoratu zitzaidan martxoaren 8an ginela, eta Aneri zorionak emateko aprobetxatu nuen.

Aurrena ez zirudien oso konbentzitua, baina geroxeago alderdi onak ikusi eta irrikan zegoen gizon objektuaren kontu horrekin.

Triangelua eratzeko azken osagaiaren berri eman nion:

– Eta gero, neskarekin erdizka dabilen tipoa: hau bai dela intelektual tipikoa, beti liburuez eta pelikulez hizketan, bere bixarrarekin...

– Hippy pijo bat, ezta?

– Bai, horixe. Orduan, neska, tipo honetaz bastante aspertuta dago, eta futbolistarekin rolloa bilatuko du. Eta intelektualari grazia egiten dio: ez zaio batere inporta, eta gainera neskarekin batera joango da futboleko entrenamendu eta partiduetara, futbolari buruzko teoriak eginez.

Aneri ez zitzaion gehiegi gustatu intelektuala jakinaren gainean egon eta axola ez izatea. Zerbait pasionalagoa nahi zuen, keinuen jokoa, ezkutaketarena...

– Bai, baina eske nik tipo hori kontrapuntu moduan erabili nahi nuen, kirolaren sakralizazioaz-eta hitz egiteko, tipo ziniko bat...

Nik azalpenekin segitu nuen, baina zinemak eta zinismoak ezin bat egin nonbait, eta atzera bota zidan ideia.

OTAren ordua iristear zegoela eta, kontua eskatu genion atso motzari. Kotxera bidean, proiektuaz hizketan segitu genuen, irudiak non hartu eta hola. Ez nion kontatu, noski, dudarik gabe sartzea pentsatzen nuen pasadizo bat, neskak mutilari lehenbiziko oparitzat lore sorta ematen dionekoa.

Aste Santuan oporretan Portugal aldera joan behar zutela eta, ea ezer ekartzerik nahi ote nuen galdetu zidaten.

– Ekarri Otelo Saraiva de Carvalhoren poster bat.

Txofok barre egin zuen. Trosko izana zen.

Aste parea pasako nuen ezer bururatzen ez zitzaidala. Ez nuen ahalegin izugarririk ere egin, baina, pentsaka jartzen nintzen bakoitzean, batere ideiarik ez. Juxtu-juxtuan pentsatu nuen, diskoteka edo holako batean hasi beharrean, hobe zela moda-aldizkari batean abiaraztea: neska kazetaria izango zen, eta erreportajea egiteko aginduko zioten delako futbolariarekin, ez kirolaz baizik eta modari buruz, elkarrengandik urrun egon arren mass medietako presentziak hurbiltzen dituen bi mundu horien topagune gisa edo. Makarrada bat.

Hortik aurrera ezer gutxi. Egia da ez nuela inolako beharkizunik, baina neure buruari ezarritako betebeharra zegoen, harrokeria hutsa agian: ez nuen nire ezintasuna onartu nahi, gogorregia zen nonbait ia edozein istorio moldatzeko gauza nintzela sinistuta nengoen honentzat.

Amore eman aurretik gehixeago itxoitea erabaki nuen orduan; eta bitartean, gidoi horren historiarekin ipuin moduko bat egiten hasi. «Hartara probetxu txikiren bat aterako diot, besterik ez bada.»

Denbora ere aurrera zihoan eta Aste Santuko oporren bezperan geunden. Nire gidoiarekin, etsita ia. Leitu berria nuen Quim Monzóren ipuin bat fotokopiatu nuen, «Kalitatea eta kantitatea», voyeurgintza eta sedukzio kontuekin zerikusirik bazuena; jeniala. Kopia horri ohar bat erantsi nion, Monzóren hura bezalakorik ezingo nuela inoiz egin eta ordura artean saiatu arren ia batere ideiarik ez nuela aitortuz; aportazio pertsonal gisa, aspaldi idatzitako ipuin bat erantsi nion, gigolo baten eta ordaintzen zion atso aberatsari buruzkoa; guztia hartu, sobre batean sartu, eta Txoforen lantokira bidali nuen.

Etxean nengoen, besaulkian jarrita, oporretako atseden gozoan behingoz, burua hutsik, baina kontzientzia gaiztoak eragozten zidan alferkeriara guztiz emana egotea: gidoiaren harra berriro hozka. Burua jira-biran, eskema aldaketaren batekin beharbada funtzionatuko zuela pentsatu

eta, bat-batean, zera etorri zitzaidan burura: futbolariari andregaia egokitzea. Bai horixe. Andregai bat jarri eta gauzak beste ikuspegi batez ikusten nituen. Triangeluaren ordez laukia. Horrela bai.

Papera eta luma hartu nituen. Izenbururik ez nuen; hortaz, «**Sedukzio istorioa. Gidoia**» jarri nuen goian, eta papera lardaskatzeari ekin, agerraldiz agerraldi zenbatuta.

* * *

Bat. Moda-aldizkariarekin hasi nintzen. Erredakzioa. Deskribapenetan nekatzeko astirik ez; filmatzekoa zenez, egunkariren batekora joan eta hantxe errodatu. Ezagutzen duenak badaki nolakoa den. Neska –gure protagonista, gogora ezazue, 30en bat urte, sofistikatua e.a.– erredakzio-buruarekin. Gizonezkoa berau. Exekutibo agresibo, yupi nazkagarri, txuloputa tankerakoa. 45 bat urte. Ondo orraztua eta jantzia. Estresatua. Uneoro errepikatzen duen tik edo keinuren bat. Izenik oraindik ez. Jarriko diegu orain? Kaze-

tariari Marta deituko diogu. Ondo doakio. Besteari Jefea deituko diogu, nahikoa da.

Erredakzioko gelatxo batean daude, Jefearen txokoa: kristalezko paretak dituen kaiola. Aurrena elkarrizketak asmatzen hasi nintzen, baina berehala konturatu nintzen aspergarri eta luzeegi joko zuela, eta, beraz, hitz gutxitan adieraziko nuen zertaz ari ziren hizketan, geroago osatzekotan. Neronek, Anek edo dena delakoak.

Kokatu dituzue, ezta? Orain giroaz zertxobait. Zoramena da hura: izugarrizko zarata: jendea, idazmakinak, musika-aparailuren batetik U-2 bezalako zerbait. Egia esan, ez nengoen batere seguru musikarekin: soinu-banda beste batek egin beharko zuen. Kaiolan telebista aparailu txiki bat martxan.

Eta, zertaz ari dira? Jefea bere rolloarekin ari zaio: aldizkariaren linea, moda edonoren bizitzan sartu behar dutela, eguneroko bizitzan txertatu eta ez dakit zer; hori nahi duela publizitateak, eta hortik bizi direla; Martak egiten dituen elkarrizketa eta erreportajeetan ere mezu hori transmititu behar dela, modaren garrantzia, eta ez bakarrik aktore-aktoresen kasuan: jendeak oso

hurbil sentitzen dituen beste batzuen adibideak behar dituela.

Jefea oso hiztuna da, hizketan asko mugitu eta keinu ugari egiten dituztenetakoa, nahiz imintzio horietan nekea eta nazka apur bat sumatzen zaizkion. Martari ez dio hizketarako tarte handirik uzten, aldian behingo hitzen bat salbu. Esate batera, «adibidez?» galdetuko du halako batean.

Une horretan telebistan kirol-berriak ari dira ematen, futbolari bati buruzko albisteak. Gure futbolaria, hain zuzen ere. Izena jarriko diogu? Mikel izan liteke, Mikel Arrese. Telebista ahotsa kenduta dago eta ez dugu entzungo, baina bai ikusiko: entrenatzen ari dela aurrena, gero kazetarien galderei erantzuten, eta ondotik futbol partidu batean.

Bien bitartean, Jefea hizketan.

– Hori adibidez. Ezagutzen duzu?

Martak ez du ezagutzen. Jefeak esaten dio izena, eta nola gazteen idoloa den, eta nola emakume gehienek berarekin egiten duten amets.

– Baita gizonezko askok ere –eransten du ahapetik–. Eta gainera ezkongaia da.

– Baina nik ez dakit ezer futbolaz! –Martak erantzun.

– Ta? –Jefeak arrapostu.

Bitarte horretan telefono-dei bat edo beste izango da, baita kaiolara zerbaiten galdezka azaldutakoren bat ere. Jefeak segituko du esanez garrantzizkoena Mikel Arreseren giza irudia agertzea dela, batik bat arropa eta bestelako moda kontuetako bere gustuak, eta futbolari dagokion zerbait jakin nahi badu bilatuko diotela norbait. Une horretantxe sartzen da kaiolan gure intelektuala, hasierako ustezko triangeluko hirugarren osagaia. Zertxobait aldatu diogu izaera: hippy bat izango da, ez berak nahi bezain guaia: txiki, kaxkar, bizardun, itsusi eta narrasa. Ez dabil Martarekin, baina nahi bai. Aldizkarian ere nonbait sartu behar eta kultur orrialdeetan sartuko dugu, liburuen komentarioak-eta egiten. Hori dela-eta hitz egin nahi zuen Jefearekin:

– Ez dago deretxorik –trumilka eta bultzaka sartzen da bulegoan–, ez dago deretxorik; nork

aldatu dizkit joan den asteko liburu komentarioak, nor izan da kabroi hori...?

– Ni izan naiz –lasai eta serio Jefeak.

– Baina, baina... –bere ernegazioa nola kanporatu asmatu ezinik– Zergatik... Nolatan... Ze eskubiderekin?

– Hau ez da Fakultateko panfletotxoa, hau moda-aldizkari bat da –erasokor orain Jefea–, eta gure publikoa ez dira jipi progreak, ezta sasiletrauak ere...

Eta ondoren, Martari botatako rolloaren antzekoa errepikatzen du, aldizkariaren ideario, helburu eta abarrez. Gure hippya protestan hasten da, aldizkaria utzi egingo duela, ordaintzen dizkioten bost txakurrengatik ez duela merezi, milioiak ordainduta ere ez litzatekeela salduko... Jefeak lasaitasunez aditzen dio, sufizientziazko irribarre batez, jakinik besteak ez duela esandakoa beteko.

Asaskatzen bukatutakoan, hurrengo eginkizunaren berri ematen dio Jefeak: Martaren laguntzaile izango da honek egin behar duen erreportajerako, futbol gaietarako aholkulari, ez baitzuen alferrik egin «Kirolaren alienazioa, edo zer-

gatik den futbola herriaren opioa» izeneko tesina.

Intelektual honi izena jartzea ahaztu zaigu; Txetxu adibidez.

Bi. Hortxe ditugu beraz, Marta eta Txetxu, neskaren kotxean sartuta, estadiora bidean. Beste xehetasun batzuk ere argitu gabe utzi ditugu. Adibidez, Mikel Arrese hiriko futbol taldeko kidea izango da. Hiria eta taldea, zehaztu gabe hobe. Modazko euskal aldizkaririk ere ez dugu, zorionez edo zoritxarrez, baina hau ere asmatu egingo dugu; aldizkaria gizonezkoentzat, andrazkoentzat edo bientzat ote den ere ez dugu esan, erabaki ere ez baitugu orain artean erabaki. Filmeko zuzendari artistikoari legokioke burubidea.

Neskaren kotxean utzi ditugu. Gazte profesional baten automobila, ez handiegia baina berria. Aukerak milaka dira eta ezin hasiko gara ezkutuko publizitatea egiten. Kotxean ditugu, beraz, eta Txetxu berealdiko erretolikan, futbola dela eta ez dela. Ipuina astun geratuko litzateke Txetxuren argudioak hona ekarrita; hitz bitan

esan dezagun, dena dela, bere tesia gutxi gorabehera honakoa dela: futbolak gaur egun erlijio gisa funtzionatzen du, edozein ideologiaren gainetik giza talde orok onartzen eta goraipatzen dutenez gero; iganderoko liturgia du, eta komunikabideen bitartez aste osoan pizturik mantentzen den sua.

Marta bitartean gidari, isilik, batere kasurik egiten ez diola. Bat-batean, plaza baten aurretik igarotzen direla, kotxea gelditu, kanpora irten, eta lore sorta handi bat erosita itzultzen da barrura. Zein lore klase, libre.

– Eskerrik asko... –hasten da Txetxu lerdea dariola, Marta lore sortarekin itzultzean–. Baina ez zenuen zertan... Ez zenuen obligaziorik, nik...

Martak, hitzik egin gabe, atzeko aulkian utzi ditu loreak, eta berriz bere jarlekuan eseri orduko gainean du Txetxu, muxu eman eta besarkatu nahian.

– Behin hasi ginen ba... zerean –Txetxuk dardarka gorputza eta ahotsa–. Badakit ez zela ondo atera, baina asko edan nuen eta...

– Kendu hortik! –Martak bultzaka–. Nork esan dizu muxurik nahi dudanik?

– A, bueno, muxurik gabe egingo dugu orduan –erantzuten du Txetxuk, jertsea burutik kendu eta prakak askatzen hasten dela–. Zertarako muxuak? Utikan erromantizismoa!

Martak arrankatu egiten du eta Txetxu ia-ia atzeraka erortzen da.

– Baina ez al zenuen zera... nirekin nahi? –galdetzen du hippy gaixoak penaturik.

– Txoratuta zaude ala? –Martak umore onez.

– Eta loreak? Zertarako ekarri dizkidazu loreak?

– Eta nork esan dizu zuretzat direnik?

Hiru. Estadioan. Ekipokoak belar gainean entrenatzen, ariketak egiten eta horrela. Harmailetara sartzen dira Txetxu eta Marta, lore sorta besotan bata, eta eztabaida bila bestea.

– Erreprimitu egiten duzu zeure burua. Liberazioaz-eta berriketa ugari, baina uko egiten diozu harreman libre eta sano bati.

Martak moztu egiten dio, luzaroan entzuten nekaturik nonbait.

– Baina zer uste duzu: denak zurekin ohera joateko irrikan gaudela ala?

– Klaro: zuek muskulua besterik ez duten robot horiek desio dituzue, noski.

Txetxuren begirada zelaira zuzentzen da, baita gurea ere, eta izter mardul, aztal sendo, gihar indartsuak ikusiko ditugu puska batean. Marta begiak zuri. Bien bitartean harmailetan behera doaz, zelai ertzeraino iritsi arte. Oin bat belarretan jarri orduko morroi bat datorkie builaka. Zahar samarra, txandalez jantzia, herrena eta oro har xelebrea. Izena ere jarriko diogu: Matxain. Badoakie bada Matxain, herrenka eta oihuka.

– E, e! Aizue! Ezin da zelaian sartu, ezin zarete sartu.

Bi kazetariak hantxe bertan gelditzen dira kieto.

– Ezin zarete zelaian sartu –errepikatzen die arnasestuka Matxainek haiengana heltzean–, ez duzue kirol oinetakorik, eta debekatuta dago kirol oinetakorik gabe sartzea.

Martak zapata takoidunak daramatza, eta Txetxurenak ere, ez dotoreak ez garbiak ez badira ere, ez dira deportiboak.

– A bueno, ba orduan bagoaz –esaten du kontentu asko Txetxuk.

Marta begiak luzatuz ari da, Mikel Arreseren bila.

– Kazetaria naiz –esaten dio Matxaini–; esaiozu Mikel Arreseri etortzeko, elkarrizketa bat egin nahi diogu eta.

– Sentitzen dut baina ezinezkoa da. Misterrak galarazita dauka entrenamenduetan molestatzea.

– Orduan emaiozu lore sorta hau, eta esaiozu nire partetik dela.

Matxain esne-bitsetan urtzen ari da, «bai, bai, bai» marmarka, listua kokotsetik behera, begia Martaren gainetik kendu gabe, harik eta, atzeraka dabilela, estropezu egin eta erortzen den arte. Berriz altxatu eta, hanka motzak uzten dion neurrian, arineketan joango da futbolariengana, atzera begiratuz tarteka. Jokalarien parera iritsi baino lehen entrenatzailea jartzen zaio aurrean. Kazetarien lekutik ikusiko dugu nola en-

trenatzaile horrek, Matxainen esanak entzun ondoren, builaka ekin, loreak zakarki hartu, lurrera jaurti eta gainean salto egiten duen, egundoko malaletxez.

Marta sutan jarri eta zelaian sartzen da, «Aizu!» deiadarka, baina takoiak lur bigunean sartu eta pauso trakets batzuk besterik ez ditu emango. Entrenatzailea ordea –Mister deitzen diote denek eta ez dugu izena jartzeko lanik hartuko–, Misterra, bada, Martarengana doa, suak harturik bera ere. Bereak eta bost esango dizkiote elkarri, ez bata ez bestea ez baitira isilik egotekoak, baina gu oso finak gara eta ez dugu zatarkeria horien guztien xehetasunik jasoko.

Lau. Aldageletan. Entrenatzen aritu diren futbolariak larru gorritan ageri zaizkigu, dutxan, lehortzen, janzten... Barre algaraka ari dira, eta barre-eragilea Mikel izan da: Mikel, eta neska ezezagun horrek ekarri dizkion loreak. Sortako loreak jokalariek hartu dituzte eta elkarri botako dizkiote txantxa artean, maitemin keinuez eta.

Baten batek ilean sartuko du lorea, eta ausartagoren batek sabelpeko ilajean.

– Joder, a ze ligea e!

– Loreak eta guzti!

– Hi, non lortzen dituk halakoak?

– Eta ez al dik ahizparen bat edo?

– Nekatzen haizenean emaiok nire berri.

Halakoak esango dituzte. Mikel bitartean isilik, irribarre herabez, pentsakor edo. Ameskor agian?

Bost. Taberna batean daude Txetxu eta Marta, arrats partean sarturik dagoeneko. Marta batez ere, moxkor-moxkor eginda. Estadioko gorabeherak zapuzturik, bere amorrazioan edanari emana, bere artean «nazkagarri, putaseme hori» eta antzekoak marmarka.

Txetxuk etengabe betetzen dio Martari edalontzi hustu berria, eta, bera ere piripi samar badabil ere, bestearen atxurra zaintzeaz arduratzen da batik bat, aldi berean futbolarien kontra esan ahalak esateko aprobetxatuz.

– Mongolo hutsak dira denak, erremediorik gabeko oligofrenikoak, eta barka nazatela oligofrenikoek konparazioagatik. Ez dute bihotzik, ez sentimendurik, ez pentsamendurik, ez ezer. Muskulu mordo bat besterik ez dira... kaka mokordo bat.

Sei. Mikel agertzen zaigu berriro, bere kotxe dotorean andregaia jasotzen duela: etxe oneko neska pinpirin bat da hau, gaxtea. Kotxean sartu, ohizko muxua eman eta mutturrak okertuz demanda egiten dio Mikeli, mainati.

– Ez didazu ezer ekarri?

– Zer ekarri behar nizun ba? –Mikelek, despistaturik.

– Opariren bat, ez dakit, zerbait, edozer gauza. Inoiz ez zara nitaz gogoratzen, ez duzu detailetxo bat ere izaten...

Mikelek purrustadatxo bat egiten du, halako sesioek asperturik edo.

– Bueno: zuk ere ez didazu oparirik egin.

– Neskek ez dute oparirik egiten –azkar asko andregaiak–. Hori mutilen gauza da.

– Zergatik?

– Hargatik.

Andregaia serio geratzen da, aurrera begira, eta Mikel, motorra abian jartzen duen bitartean pentsakor sumatzen dugu berriz ere.

Andregaiari ez diot oraindik izenik jarri. Maribel izan liteke izen aproposa.

Zazpi. Txetxu eta Marta berriro ere. Marta guztiz mozkortuta, eta Txetxu ere hortxe-hortxe, neskari bere etxera joaten laguntzen diola. Nori dagokio *bere* hori? Euskal gramatikaren legeek ez digute argitzen. Eman dezagun Martarena dela: apartamentu txiki baina txukun eta moño-ñoa. Txetxuk, beraz, Marta erdi arrastaka daramala, «Non ostia ote dago argia?» eta halakoak botako ditu hitzetik hortzera; Marta gaixoa bitartean, mozkorren marmar ulergaitzean.

Nola edo hala komuneraino eramaten du Txetxuk. Zintzilik dagokeen bularretako bat sudurraren aurrera eramaten du Txetxuk txoraturik, baina, une egokia ez dela oharturik, lababoaren kontra jartzen du Marta.

– Bota orain bota beharreko guztia –esaten du Txetxuk, ispiluan bere aurpegiera aldrebesari begiratzen diola.

Marta ez da mugitzen. Burua altxaraziko dio Txetxuk eta bere behatzak sartuko dizkio eztarrian. Brastakoan hasiko da Marta botaka, gonbito batzuk bien gainera ere erortzen direla. Gainerakoa lababo gainean makurtuta botako du, ohizko mugimendu eta hotsez. Txetxuk bitartean txixa egiteko aprobetxatzen du.

Horkoak bukatuta, logelara eramaten du Txetxuk Marta; hobetoxeago dator hau, baina Txetxuk ondo helduta darama, badaezpada ere; ohe gainean etzanaraziko du, eta ondoren eranzten hasi, Txetxu Marta eranzten alegia, botoiak askatzen dizkiola, gero eta berotuago, aldi berean (bera lasaitzeko edo Marta ez konturatzeko) gelditu gabe hizketan diharduela, futbolarien kontrako betiko leloarekin.

Txetxuk zerean aritzeko gogo bizia du, nonbait, baina Marta lotan geratzen zaio.

– E, aizu, Marta, Marta, ez lo hartu –esaten dio, aurpegian zaplaztadatxoak emanez–. Aizu, ez zaitez lotan geratu, Marta…

Martaren logaleari aurre egiteko lagungarriren bat behar-eta, ohe aurrean dagoen telebista-aparailua pizten du Txetxuk.

– Hara, Marta, begira telebisioari, begira txoritxoei, ez gelditu lotan.

Besotan altxatuko du neska, pantaila ikus dezan, eta, begiak zabaltzen dituenean, zer ikusiko Martak eta orduantxe agertzen den Mikel Arrese, goizeko berrietako erreportaje bera ari baitira ematen. Eztitasun aurpegiz geratzen zaio telebistari begira, eta Txetxu koitadua zer egin ez dakiela. Aparailua itzali eta besarkatu egiten du Marta, indarrez.

– Baina zertan ari zara? –botatzen dio Martak, bat-batean itzarri eta bere erdi-biluztasunaz izuturik.

– Ez al duzu ikusten? Ba...

Txetxu esku leunez saiatzen da erantzuten, baina esku zartada latza izango da Martaren arrapostu bipila.

Zortzi. Larru kontuak utzi gabe, Mikel eta Maribel kotxean, eserlekuak atzeraturik, musukaldi

bortitzean. Jarrera dela eta, Maribeli gona altxatu egin zaio, eta argi eta garbi ikusten dugu nola Mikel, erregatean trebatua, eskua txoko kixkurretan sartzen hasten den.

– Geldi –entzuten da zorrotz Maribelen ahotsa.

Eskuak ez du belarririk.

– Geldirik egoteko –are zorrotzago, mugimenduak oro izozturik utziz.

– Baina zergatik? –bidegabekeria izugarria egiten ari zaizkion gaztetxoaren gisan.

– Hargatik –erantzun azkar eta biribiletakoa neskatxa.

– Baina ez al gara gizon eta emakume helduak?

– Bai, baina oraindik ere itxoin egin behar dugu.

– Noiz arte?

– Ez dakit.

Eta azeleradorea indarrez sakatuz arrankatzen du Mikelek.

Bederatzi. Marta bakarrik, negar-zotin emean, maindire muturra hozkatuz, pentsamendu-txinparta bat begietan.

Hamar. Mikel bere ohean, eskuak garondoan sabaiari begira, bularra agerian, gogoetaren printzak begi-ninietan.

Hamaika. Goizean goiz jaiki da Mikel, ohean egon ezinda; telefonoa hartu eta zenbaki bat markatzen du. Telefono bat agertzen zaigu txirrina joka, Misterraren mesanotxeko telefonoa hain zuzen. Misterra une horretantxe bere emaztearen gainean ari da, senarrari dagozkion betebeharrekin konplitzen.

– Segi, segi –esaten dio emazteak.

Misterra, arnasestuka, txirrinaren axolarik ez izaten ahalegintzen da, baina alferrik: kontzentrazioa galduz gero, akabo. Telefonoa hartzen du.

– Nor da? –tximistak eta trumoiak botatzen dituela.

– Mikel... Mikel Arrese naiz.

– A, bueno –apur bat lasaitzen da Misterra, bere mutikoei ia edozer barkatzen baitie–. Eta, zer behar duk, Mikel?

– Bueno, zera, nola atzo kazetari bat agertu zen entrenamenduan...

– Bai. Ta?

– Ez, ba, nik, zera galdetu nahi nizun, alegia, ba, ea ze mediotakoa zen badakizun...

– Eta horretarako deitu didak ordu honetan? Mekauensos! Eta gainera... Mekauenlaletxe! Entzun ezak ondo, mutiko: berriz ere halako alukeria batekin izorratzen banauk, bankilloari brilloa eta guzti atera beharko diok ipurdiarekin, mekauenlaostia!, berdin zaidak direktibak zer esaten duen, kabroi halakoa...

Berehala eskegitzen du Mikelek, «ederra egin diat» bere artean esaka.

Hamabi. Aldizkariko erredakzioan. Jefearen bulegotxoan, hau eta Marta.

– Ez eta ez. Ezetz esan dizut –Marta builaka–, ez dut elkarrizketa hori egingo, ez dut ezer jakin

nahi futbolarekin ez futbolariekin, nazkagarri hutsak dira denak, eta horien moda… sartu dezatela ipurdiko zuloan –begiak itxi eta eskuak burura eramaten ditu; ajearen arrastoak nabari–. Ai, nire burua… lehertu egingo zait!

– Banengoen ba ni. Txetxu txoro horrek konbentzitu zaitu bere ideia xelebreekin…

– Ez zaidazu aipatu zerri hori. Bere erruz daukat gaur buruko min hau. Ez dut ikusi ere egin nahi, zerri alaen hori…

Jefea harriturik dago. Hala ere, ez du berehalakoan amore emango. Hartzen du egun hartako egunkaria mahai gainetik, zabaldu kirol orrialdeetan, eta Mikel Arreseri buruzko erreportajea erakusten dio.

– Ikusten duzu? Mutil hori notizia da. Elkarrizketa hori lortzea boom bat izango da, nahitaezkoa dugu.

– Bidali beste norbait.

– Zu zara ordea onena –esaten dio gozo Jefeak, eskua sorbalda gainean pausatzen diola–, ez daukat zu bezalako kazetaririk.

– Hortaz, beste edozein sailetan ere lan egin dezaket.

– Bueno, hori nahi baduzu –irri maltzurrez–, badut zuretzako lantxo bat.

– Zein?

– Kontsultorio sentimentalean: jendearen galderak asmatu eta zerorrek erantzuten.

Martari ez zaio Mikel Arreseren elkarrizketa onartu beste aukerarik geratu. Beharko onartu.

Hamahirua ez dakit zorte txarreko zenbakia ote den baina ni behintzat hortxe trabatu nintzen lehenbiziko aldiz. Hasteko, Mikel jarri nuen berriz ere telefonoz deika: honakoan estadiora, Matxainen bila, huraxe zelako kazetari ezezagunarekin egon zena. Horretan arazorik ez. Beste zalantza bat nuen ordea. Maribel bere gurasoen etxean utzia genuen: kasu horretan zaila egingo zitzaion ezer susmatzea; Mikelen etxean egonda, ordea, telefono dei horiekin harriturik zerbaiten errezeloa piztuko zitzaion; Mikel bera ere, telefonoz hau esan ez esan kontuz ibiliko zen, eta egoerak, oro har, askoz emankorragoak izan zitezkeen. Beraz, Maribelek Mikelen etxean pasatu zuen gaua. Baina orduan beste izaera bat

behar zuen, eta ez guk jarri diogun ñaño antzeko hura. Bego. Pixka batean pentsatzen jardun ondoren, Mikelekin batera bizi zen andregaia jartzea erabaki nuen. Horrek aldaketa batzuk eragiten ditu, noski: bata, esan dugunez, izaerari dagokiona: helduxeagoa. **Seigarren** eszena ere aldatu egin behar, elkarrekin bizi badira arraroa baita kotxean geratzea elkar ikusteko. Agerraldi hori, hortaz, etxean. **Zortzigarrena** aldatu egingo da, halaber, kotxean daudela eskua hankartetik sartu nahi eta neskak uzten ez dionekoa. Horren ordez, eman dezagun, oheratzen direnean jolasean hasi direla, baina Mikel despistaturik dabilela, Maribel gogogabeturik, eta utzi egiten dutela. Gainerakoak berdin jarraitzen du.

Mikel orduan Matxaini deika jarri dugu. Telefono dei mordoa izango dugu hemendik aurrera, eta komeniko litzateke erritmo gero eta bizkorragoz aritzea parte honetan. Matxain jartzen denean kazetari hura nongoa den ba ote dakien galdetzen dio Mikelek, ea esan zion. Matxainek baietz, esan ziola, baina ez duela izena gogoratzen, moda-kontuak agertzen diren horietako

bat zela, kioskoan ikustetik akordatzen dela azalean kolore asko zituela.

Orain arte egin ez badugu ere, aldizkari horren xehetasunak erabaki beharra dugu. Izena adibidez. Baina izena ebazteko izana ezagutu behar. Andre edo gizonezkoentzat ote zen ez genekiela esan dugu lehen ere. Emakumeentzakoa baldin bada *Andere* dei diezaiokegu, eta gizonezkoentzat izanez gero, *Andros*. Ez dira oso soluzio orijinalak, baina batetik bestera erraz aldatu ahal izatea dute bentaja. Behin-behinekoz *Ander* izan liteke, edo bestela, hobe *Ander's*, txolinberdeagoa bada ere.

Orduan Matxainek «Andere edo Andrex edo antzeko zeraren bat» esan dionean, etxeko egongelako mahaitxoko errebistei begira geratzen da Mikel; bertan, kirol aldizkarien aldamenean, Maribelenak ikusiko ditu, eta tartean *Ander's*. Hara doa, esertzen da, esku artean hartzen du, gainbegiratzen hasten da, eta, une horretan, esku bat jartzen diote sorbalda gainean. Susto txiki bat hartzen du Mikelek, atzera begiratu eta Maribel ikusten du, *deshabillé* polit eta ira-

dokor batez jantzirik. Bere ustekabea agertzerako, neska mintzo da.

– Nori zabiltza telefonoz deika?

– Zera, kazetari bat azaldu zen atzo entrenamenduan, entrebista baterako, eta ez nekien nongoa zen.

– Eta *Ander's*-ekoa al zen? –Maribelek irribarrez.

– E, nola, zer? Ez, ez, ez, kirol aldizkari batekoa.

Eta kontu horiei gogaikarri iritzita, «bainatzera noa» esan eta ibilera kulunkariaz desagertzen da Maribel.

Ez dakit irakurlea edota balizko film-egilea konturatu ote diren pasa berri den elkarrizketaren garrantziaz. Ohartarazi egin nahi nuke badaezpada, hortxe dagoela lehenbiziko gezurra, eta, beraz, litekeen adulterioaren hazia. Lehenbiziko pausoa emana dago.

Filmak aurrera segitu behar, dena den.

Hamalau. Marta erredakzioan, telefonoa eskuan, zenbakiak markatuz. Estadiora deitu du

eta hantxe hartzen dute. Kazetaria dela, halako eta halako tokikoa, Mikel Arreserekin elkarrizketa izan nahi duela eta ea telefonoa emango dioten.

– Sentitzen dut baina Misterrak debekatu egin du futbolarien telefonorik ematea bere baimenik gabe.

– Eta bera enteratu gabe ezin al duzu salbuespenik egin…? –goxo-goxo Martak.

– Ez. Misterrak debekatu du –zakar; Martaren begirada eztia ezin ikusi, nonbait, telefonoaz bestaldetik.

– Eta Mister horren telefonoa emango al didazu orduan, edo hori ere debekatuta dago? –kabreatzen hasita.

– A ba ez, hori ez digu debekatu…

Misterraren telefonoa lortu, antza, eta berriro deika Marta. Beste telefono bat ikusten dugu joka, eta segundo batzuk geroago Misterra dutxatik ateratzen, kabendioska, toalla txiki batez bilduta etxeko zoru guztia zipriztinez blaitu eta kristorenak esaka.

– Nor da? –esaten du, esan gabe ere «kabroi, zerri, putaseme hori» adierazten duen doinuaz.

Martak izena, lantokia eta entrebistarena botatzen ditu ahapeka, apur bat kikilduta.

– Mekauenlaputa! Eta horretarako deitu... Eta zuk, gainera zuk... Besterik ez nuen behar, kauenlaletxe! Badakizu zer esaten dizudan? Bata bestearen ipurtzuloan sartzeko, eta betirako han geratzeko!

Besterik gabe eta kolpe batez uzten du telefonoa Misterrak.

Hamabost. Mikel berriro, *Ander's* oraino eskuetan, erredakzioko helbide-telefonoak dakartzan orriari begira. Telefonoa hartu eta deitzekotan. Sarrerako atea zabaldu da orduan, eta emakume heldu, zartatu bat sartzen da, asistenta, xigarro muturra ezpainetatik txintxilika, egunonak marmarka.

– Joxepi! Zu al zara? –bainugelatik Maribelen ahots gardena.

«Bai» antzeko marmarra asistentaren hortz artetik, kearekin batean.

– Zer izango dugu gaur bazkaltzeko? –Maribel berriz ere.

Erantzunari jaramonik egiteke, Mikelek telefonoa utzi, boligrafo batez aldizkariaren helbideari zirkulu bat marraztu eta janztera abiatzen da.

Hamasei. Marta telefonoan. Estudiora beste behin deitu, lehengo berberak hartu, eta jenio txarrez hasten da.

– Aizu, horko langile batekin hitz egin nahi nuen, zahar bat…

– Hemen asko gara zaharrak.

– Mutur okerra…

– Hori zu izango zara.

– Txandalez ibiltzen dena…

– Hemen gehienak.

– Herrena…

– A, bai, Matxain esaten duzu zuk. Zaude pixka batean, oraintxe esango diot eta.

Jartzen da Matxain telefonoan, hasten zaio Marta gozo-gozo hizketan, emateko faborez Mikel Arreseren telefonoa, arren eskatzen diola, horren gizon jatorra izanda ezin ukatuko diola… Matxain bitartean larri eta harro, harro baina

larri. Aitzakiaka hasi, ezin duela, ikusten badute ez dakit zer, hau eta hura, baina Marta bere mimo eta trikimailu guztiekin saiatzen da eta azkenean Matxainek mahai gaineko agendan begiratu eta eman egiten dio zenbakia.

Hamazazpi. Mikel kalerako ia jantzita, bainugelan sartzen da eta ispilu aurrean orrazten hasi.

– Nora zoaz? –Maribelek bainera barnetik, aparrez inguraturik.

– Kalera.

– Zertara?

– Enkargu batzuetara.

– Baina ez al ninduzun pelukeriara eraman behar? –eta erdi altxatzen hasten da, bere bularrak desnaufragaraziz.

– Hartzazu taxi bat.

– Baina... –promesa borobilak berriz ur azpitan gorde eta muturrak aurreratuz.

Mutturrak goxatu eta adixkidetzeko asmotan, orrazketa lanak bukatzean Maribelgana makurtzen da Mikel, muxu eman nahiz. Horretan dago-

ela, esku-palasta bat eginez mela-mela uzten du Maribelek.

– Nirekin ezer nahi ez baduzu, beste bainugela bat ere baduzu.

Mikel bere alkondara-jaka bustiei begira, zer esan asmatu ezinik geratzen da momentu batez harriturik, eta ondoren, hitzik egin gabe, haserrea begietan, ate danbada izugarri batez joaten da.

Hamazortzi. Martak telefonoa eskuetan. Deitu. Telefono txirrin bat joka. Mikeleneko neskameak hartzen du, beti ere zigarro bat ezpainetatik dingilizka.

– Bai?

– Mikel Arrese hor dago?

Martak ohizko azalpen guztiak ematen ditu.

– Ez dago ba etxean. Oraintxe atera berri da.

Martak dagoeneko ez daki madarikazioka hasi edo besterik gabe telefonoa eskegi, noiz-eta ahots emeago bat iristen zaion, asistenta erretzailearenaz harantzago, «nor da?».

– Neska bat, kazetaria dela eta Mikel Arrese-rekin hitz egin nahi duela eta ez dakit zer komeria –ahotik urrunduta aurikularra.

– Bai, esan. Nor da?

Iritsi zaion ahots berriaren bestaldean sumatzen duen emakume hori nolakoa ote den antzeman ezinik, goiz hartan hamaikatan esana beste behin hasi behar du, etsita, errepikatzen, baina hara non honakoan hasi orduko damutu eta aparailuaren aberia bailitzan ustekabean eskegitzen duen.

Maribel, zutik, mahai gainean lagatako *Ander's* aldizkariari so geratzen da, begirada lausotzen zaio, eta asmatu ahalak igartzeari ekiten dio.

Hemeretzi. Mikel bere kotxean: berri, dotore eta garestia. Gidatzen doala, halako batean gelditu, doblefilan aparkatu, pareko gozotegian sartu, eta segituan, bonboi kaxa handi bat besotan, kotxera itzultzen ikusten dugu.

Hogei. Maribel telefonoarekin. Misterraren etxean jotzen du beste behin. Gosaltzen ari da hau, eta hotsarekin esku artean zuen kafesnetik parrastada bat erortzen zaio, artega nonbait. Badoa suak hartuta telefonoraino eta ohizko trumoikada botako du.

– Maribel naiz, Mikel Arreseren andregaia –korrika ari da, besteari purrustadaka hasteko astirik ez uzteko–; lehen neska batek deitu du beragatik galdezka, kazetaria bera, eta galdetu nahi nizun ea badakizun nor den kazetari hori, ze aldizkaritakoa edo...

– Kaka zaharra zuretzat, Mikelentzat eta kazetari puta horrentzat. Nik ez dakit ze rollo duzuen zuek denok; nahi baduzue elkarri ipurdia miazka aritu, niri bost axola, baina utz nazazue behingoz bakean, nazkatuta naukazue eta...

Besteak egin aurretik Maribelek berak eskegi du aurrena.

Hogeita batgarrenera iritsi gara. Hemen ere berriz sortu zitzaidan problema: Zer egin?, Vladimir Ilitxek esaten zuen legez, zer egin?

Txandakatze horiekin segituz kazetariak atera beharko nituen, baina ez nekien zertan jarri. Gainera hortxe zegoen Txetxu, aspaldian agertu gabe, eta sarbideren bat eman behar hari ere. Nola eta nondik segitu asmatu ezinik, trabaturik nengoen, zalantzaz beterik. Banuen ideiaren bat edo beste. Adibidez, susmo txarrak harturik, Maribel estadiora joaten da, eta Marta ere bai, Mikelen bila biak; bi emakumeek topo egiten dute eta borrokan hasten dira, tximetatik tiraka, elkarri kristorenak esaten dizkiotela. Bitarte horretantxe, Mikel erredakziora iritsi da, berari elkarrizketa egin nahi ziona non den galdetu du, Txetxu aurrean jarri diote, bi hauek ere sesioan hasi dira –Txetxu oldarkor ari baita, beti bezala futbolarien kontra berealdiko txakurkeriak esanaz– eta azkenean Mikelek begiondoko bat emanda alde egin behar izan du, bonboiak bazterren batean utzita. Ez zegoen horren gaizki ere: irudi bisual batzuk bazituen, emakumeen arteko iskanbila batez ere (Matxain bereizten saiatuz tartekatuko zen), baina oro har bortxatuegia zen, paralelismoa muturrera eramana...

Halaxe bada, 21. horretan, paralizatuta. Egun pare batez egon nintzen holaxe. Ez zen gertatzen zitzaidan lehen aldia, ezta azkena izango ere seguruenik. Halaz guztiz amorragarri zitzaidan: hasi-masietan horrenbeste kostatu zitzaidan istorioa bide erdira eraman eta bertan geldi-tu beharra ere. Hasieran, arrankatu ezinik nenbilela, futbolariaren andregaia sartzea izan zen motorra; gero, berriz, ataskatu nintzen hartan, andregai hura gurasoen etxetik atera eta Mikelekin bizitzen jartzea izan zen aurrerabidea. Erreparatuz gero, argi nabari zen, holakoetan aurrera joko bazen atzera egin behar zela lehenik, eta zerbait aldatu. Osterantzean, tematzea harriaren kontra buru joka aritzea zen. Ikusten nuen, baina gauzatzeko modurik sumatu ez. Inspirazioa txorrada bat da, konforme, baina batzuetan zerbait okurritzen zaizu edo ez zaizu okurritzen. Eta okurritzen ez bazaizu ez duzu zer eginik. Baina horretarako erne egon behar, jakina. Zer edo zer aldatu behar hori buruan nerabilela, zera otu zitzaidan halako batean, andregaia senargai egitea, alegia, futbolariaren laguna marikoia izatea, barka esamoldea, hots, biak homosexualak

izatea. Ez zen oso orijinala ere, baina sumatzen nuen aldaketa horren bidez istorioa berriz ere martxan jarri eta bukaeraren bateraino eraman ahalko nuela.

Noski, horretarako aurreko gauza dexente aldatu beharko nuen, eta oro har istorio osoaren tonua, Almodovarren film zaharren estilo kutre hori hartuz nolabait.

Agur beraz Maribel; eta ongi etorri… nor? Nolakoa egingo genuen Mikel Arreseren nobioa? Behin film txotxolo bat egitea erabakiz gero, osorik egin behar txoropito eta groteskoa. Hortaz, maritxu bat jarriko dugu, keinu, hizkera eta imintzioetan emakume trazak eta plantak dituena, garrasi erdi histeriko eta topiko guztiekin. Izena ere halamoduzkoa beharko luke: Iñake.

Eta aurretik aldatu beharrekoak. Ikus ditzagun eszenak banan-banan. **Seigarrenean** agertzen zen estreinakoz Maribel, etxean, Mikel ailegatzen denean, oparirik egiten ez diola eta demandan hasten denean. Nik bere horretantxe utziko nuke. Ordura arte sex simbol gisa azaldu zaigun Mikel Iñakeri muxu ematen ikustea flash bat izango da. Nahiz eta, horreur, konturatu

gabe *Mikelen heriotza* ari naizen kopiatzen; tira, hor konpon. Elkarrizketa zertxobait aldatu beharko da, jakina: «Neskek ez dute oparirik egiten» esanari «eta ni zure andregaia naiz, ezta?» erantsita gordinago geratzen da. Mikelek «Neskek ez dutela oparirik egiten? Zergatik?» eta gainerako guztia berdin.

Zortzigarrena lehen ere aldatu dugu, kotxeko eserlekutik etxeko ohera eramanez: hemen ez dugu zer aldatu handirik, maindire artean gizon-emakumeek egiten dutena eta bi gizasemeren artekoa ez baitira igual-igualekoak baina bai elkarren antz handikoak. **Hamahirugarrenean** *deshabillé*-arekin utzi dezakegu Iñake. **Hamazazpigarrenean**, tamalez, Maribelen titi freskoei adio esan behar.

Mami gehiagoko aldaketaren bat edo beste egingo nuke halere: telefono deien inflazioa iruditzen zait eragin dugula, eta crescendo horrek behar bezalako klimaxik ez duenez, hobe batzubatzuk kentzea: **hamasei**, **hamazortzi** eta **hogeigarrenak**, hots, Martak Matxaini, Martak berak Mikelen etxera, eta Maribelek, edo Iñakek, Misterrari deitzen ziotenekoak. Pena da Misterra

beste behin ikusi ezina baina tira. **Hamalaugarrenean** ere aldaketa: Martak estadiora eta gero Misterraren etxera deitzen zuen; orain estadiora egindako deia bakarrik utziko dugu, eta Misterrarena **hamaseigarrenera** pasako, **hamabostgarrenean** Mikel janztera abiatu ondoren. **Hamazortzigarrena** kendu egin dugu, eta horren ordez Marta eta Txetxu jarriko ditugu. Misterraren purrustadaren ondoren Marta haserre baina bere lana bukatzeko burubidean tematuta, Txetxurengana doa eta estadiora joan behar dutela.

– Pasatu zaizu atzoko ajea? –Txetxuk.

– Ajea bai baina ez malaletxea. Eta gaur autobusez etorri naizenez zure kotxea hartu beharko dugu.

– Nire bolidoa? –ilusionatu egiten da Txetxu–. Ikusiko duzu nola gustatzen zaizun. Txikitxoa da baina martxa handikoa. Ni bezalakoa.

Begitarte eszeptikoa Martarena.

Hogeigarrena ere kanpora bota dugu eta hortxe gaude beraz.

Hogei (berria). Txetxuren kotxean igotzen dira jabea eta Marta. Dyane 6 zahartu eta herdoildu bat, bultzaka erabili beharrekoa dirudien karraka zaharra, bazter guztietan eranskailu, zintzilikario eta antzeko hornizioz apaindua.

– Bueno, hola ikusita ematen du ez dela oso itxurosoa, baina barrutik oso-oso erosoa da.

– Erosoa izan beharko –Martak, atzamar bat gainetik pasatu eta zenbat hauts geratu zaion begira.

Sartzen dira. Eserlekuarekin eta atearekin arazotxo batzuk ditu Martak; dena kili-kolo.

– Hasieran pixka bat kostako zaizu asmatzea –Txetxuk, bere burua zuritu nahian–, baina ohituz gero primeran dabil.

– Lasai, ez dut *ohitzeko* batere asmorik.

Kontaktuarekin puska batean ri-ra aritu ondoren lortu du azkenik Txetxuk arrankatzea.

Hogeita bat. Mikel ziztu bizian gidatuz, erredakzio ingurura hurbiltzen ari da. Norabide galarazia duen kale batetik sartzen ikusten dugu.

Hogeita bi. Marta eta Txetxu kalera ateratzen. Alde batera besterik ez dute begiratzen, abiatu, eta irten orduko kotxe bat gainera datorkiela ikusten dute; Mikelena, jakina, eta hau gelditzen saiatu arren, danba!, txokea ezinbestekoa da.

Ez ikaragarria halere: paratxokea eta faro bana geratu dira hondatuta. Halaz guztiz, suak harturik atera da Txetxu, oihuka.

– Erotuta hago edo zer? Ez al duk ikusi hortik ezin dela sartu, buruhandi alaena…!

Mikel ere atera da, eta futbolaria ikusi orduko are sutuago da metxa handirik behar ez zuen Txetxu.

– Hi izan behar gainera! Txulo arraioa, asesinoa, ostikoak ematen besterik ez dakian astakirtena…

Hitzak nahikoa ez direla, Mikelengana iritsi, paparretik heldu eta astintzen hasiko zaio.

– Lasai, gizona, nire aseguruak ordainduko du dena… –Mikelek apal.

– Horixe, dirua botatzeko barra-barra duzue zuek, eta jendea zapaltzeko ere bai, txuloputa nazkagarri halakoa...

Gainetik ezin kendurik, begiondoko bat ematen dio Mikelek, eta lurrean ziplo utzi.

Marta ere atera da, hurbildu da sesianteengana, ikusi du ukabilkada, eta hitzik esan orduko ateratzen du Mikelek bonboi paketea kotxe barrutik eta eskura luzatzen dio.

– Tori.

– Niretzat? –eta begi zabalduetan pozak txoratzen dagoela nabari zaio Martari.

Hogeita hiru. Jatetxe dotore bat. Ikusmira orokorraren ondoan Marta eta Mikel ikusten ditugu mahaitxo batean, aurrez aurre bazkaltzen. Begiratu eztiak batak besteari. Bazkariaren hondarretan daude, eta Martak tabako paketea –gorria– ateratzen du poltsatik txiskeroarekin batera.

– Nahi duzu? –mahai erdian utziaz.

Mikelek ezetz, irribarre isil batez. Zigarroa hartzeko aitzakiarekin, eskua heltzen dio Martak.

– Gehiegi ari naiz hitz egiten. Kontaidazu orain zure bizitzaren berri.

– Zer nahi duzu kontatzea? –etsipen kutsu bat mutilaren irribarrean–. Normala da nire bizitza. Bueno, hala ematen du kanpotik, baina nik ere izugarrizko problemak dauzkat.

– Ez da egia izango?

– Bai, bai: ikaragarriak.

– Baina nolatan? Dena daukazu eta: dirua, ospea, gustatzen zaizun lanbidea, jendearen maitasuna…

– Bai, horiek denak badauzkat, baina ez dakit ni zer naizen, nor naizen, zer nahi dudan ere…

– Kezka filosofikoak?

– Ez, ez dira filosofikoak.

Hogeita lau. Iñake etxean, bata batez jantzirik, urduri, eskuak bihurrituz batetik bestera dabilela, gelditu gabe hizketa desesperatuan.

– Non ote da? Non ote dabil nire Mikel? Ezer esan gabe alde egin du… Non ote dago orain? Norekin ote dabil? Ai, eta ni hemen bakarrik utzita. Ezta dei bat ere…

Zer ote da hobe: Joxepi neskamea, garbiketak egin, bazkaria prantatu eta alde egina izatea, edo hortxe bertan, Iñakeren solaskide egotea? Ni zalantzan ibili naiz, baina azkenean asistenta narras, zakar eta axolagabe bat maritxuaren konfidente izatea txistosoa iruditu zait eta halaxe utzi dut.

Batetik bestera dabilela, sukaldera iristen da Iñake, ia negarrari eutsi ezinik. Hortxe dago Joxepi, mantala jantzita, ontziak fregatuz zigarroa beti bezala ezpainetan, bazterretan hautsa barreiatuz.

– Beti abisatzen du bazkaltzera ez badator, eta estadioan ere ez da agertu. Nik jada ez dakit zer pentsatu, Joxepi, zuk zer uste duzu?

– Seguru emakume batekin joan dela.

– Hori uste duzu? Ai ene! –ia zoratzear.

– Bai, seguru, hogeita hamar urtean egon naiz ezkonduta, eta oso ondo ezagutzen ditut gizonak. Denak igualak dira: andrea ez beste emakume guztien atzetik gau eta egun.

– Bai? Ai, ez da egia izango! Eta norekin ote dago?

– Auskalo. Joango zen ez titi ez ipurdi ez duten marimutil horietako batekin eta badakizu... –zigarroa bukatzen ari zaiola, eskuak mantalean igurtziz lehortu, paketea atera eta baten kondarraz pizten du berria–. Ez dago dezentziarik, ez dago; martxa honetan ez dakit zer ikusiko dugun.

– Ai, Joxepi, zuk bai arrazoia. Auskalo ze txerri bargastarekin ote dagoen. Eta ez al dizu esan nora zihoan, aztarrenen bat...

– Ezta hitzik ere. Hortxe zegoen, errebista bati begira, eta ezer esan gabe alde egin du.

– Errebista? Ze errebista...

Zapatilla bat bidean utzita, zalapartaka abiatzen da egongelara eta mahaitxotik aldizkaria hartu: zabalduta dagoen orrialdean, *Ander's*-eko erredakzioaren helbidea zirkulu batez inguraturik dator. Telefilm amerikarretako aurpegiera jartzen du Iñakek, «banengoen ba ni» marmarka.

Hogeita bost. Jatetxera berriz ere. Hautsontziko zigarrokinei eta kafe katilu hustuei errepa-

ratuz gero denbora puska bat eman dutela jakin liteke. Lehengo leloarekin segitzen dute nonbait.

– Ez zenuke ulertuko –Mikelek.

– Kontatu…

– Ez, ez, ez nago prestaturik... Hurrengo batean agian.

Hogeita sei. Erredakzioan telefonoak jo, eta hartu duenak oihu egiten du:

– Txetxu, uste dut zuretzat dela, Mikel Arrese futbolariaren konturen bat.

Txetxu agertzen da, begia ubelduta, sandwich bat eskuetan, eta amorratuta esaten du:

– Bai, nor da?

Hariaren bestaldean Iñake ageri zaigu, ahots zakar horrek alaiturik.

– Hara, bueno, zera, horko norbait uste dut zebilela Mikel Arreserekin hitz egin nahian, baina zurekin baldin bazen ez zait inporta.

– Mikel Arrese? Makarra, txuloputa, nazkagarri alu hori? Krematorio batera bota beharko zuten, baina ez, hor joan da berarekin goxo-goxo periodista puta bat, oiloak baino beroago, lerdea

zeriola, sekula santan potro pare bat ikusi ez balu bezala... –geldiune labur bat eginda bere jarioan–. Baina nor ostia zara zu?

– Ez, ba, ni zera, managerra, horixe, Mikel Arreseren managerra naiz.

Telefonoa utzi eta negarrez arrantzaka hasten da Iñake.

– Banekien, banekien... Emaziringa zikin batekin joan da... Eta ni engainatu... eta bakarrik utzi...

Joxepi aldamenean eseri eta burua bere magalean jartzen dio.

– Lasai, mutiko, emakume guztiak igualak dira eta: puta hutsak denak.

Hogeita zazpi. Buelta jatetxera. Giro animatuxeagoan, barrezka sumatzen ditugu Marta eta Mikel.

– Horrenbeste berriketa eta azkenean elkarrizketarako galderarik ez dizut egin. Hurrengo baterako geratu beharko dugu...

Mikelek erlojuari begiratu eta altxatzeko keinua egiten du bat-batean.

– Konturatu gabe pasa zait denbora eta izugarri berandu da: entrenamenduan egon beharko nuke

– Zurekin eramango nauzu? –Martak ere altxatzeko eginez.

– Bai horixe. Aizu –kamareroari–, kobratuko didazu?

– Utzi, utzi, nik egingo dut –biak zutiturik, karteratik visa bana hartuta.

– Ezta pentsatu ere. Nik ordainduko dut.

– Ez, ez, hau aldizkariaren gastuetan sartuko dut.

– Inondik ere ez. Nik gonbidatu zaitut eta nik egingo dut.

– Hori feministen kontrakoa da –kexatzen da Marta.

– Zuk uste?

Hogeita zortzi. Iñake telefonoz deika. Negarrak itota, oso esajeratua. Bera bakarrik agertuko da, telefonoz bestaldekoa ez ikusten ez entzuten ez dugula. Atzeko aldean joan-etorrian, Joxepi.

– Xabi... Zu zara?... Bai, Iñake naiz; ez dakizu zer gertatu zaidan, izugarria, Mikelek utzi egin nau, beste batekin joan da... Ez, neska batekin, hori da okerrena... Ez, oraindik ez, bueno, ez dit ezer esan baina badakit harekin dagoela. Ez dakit zer egin, desesperatuta nago, ai, zatoz hona azkar, bestela ez dakit zer egingo dudan, behar ez denen bat, zatoz lehenbailehen... bai, zain egongo naiz.

Hogeita bederatzi. Marta eta Mikel honen kotxean estadio aldera.

– Eskerrak ezer gutxi izan den. Hala ere, a ze jenioa zure lagun horrek...

– Esan dizut kasurik ez egiteko –mespretxuz–, txoratuta dago. Intelektual horietako bat, badakizu.

– Ba nik uste nuen baketsuagoak zirela.

Momentu bateko isilunea. Irrati-kasetean musika jartzen du Mikelek.

– Ondo iruditzen zaizu entrenamenduaren ondoren elkarrizketarekin hastea? Nik bitartean hantxe itxoingo dizut.

– Ez al zara aspertuko entrenamendua ikusten?

– Ez. Hartara gainera, igual ikasiko dut zer edo zer futbolaz.

– Beharra baduzu behintzat.

Biak barrez. Iristen ari dira.

Hogeita hamar. Iñake oraindik telefonoan, lehen bezala bera bakarrik ageri.

– Ritxi? Zu al zara?... Bai, Iñake naiz. Izugarrizko bat gertatu zait...

Eta lehengo berberak errepikatuko dizkio.

– Lehenbailehen etorri... Xabiri ere deitu diot...

Hogeita hamaika. Futbolariak beren entrenamenduan. Estadio barneko telefono batetik Marta deika. Erredakzioan hartzen dute.

– Aizu, Marta naiz; jarri nazazu Jefearekin.

– Esan –Jefeak jartzean.

– Marta naiz, estadioan nago. Mikel Arrese entrenatzen ari da, baina entrenamendua buka-

tzean egingo diot elkarrizketa. Bera konforme dago, baina argazkilari bat behar dut. Lortu ezazu baten bat eta bidali lehenbailehen.

– Okei, nire esku. Zu bai neska panpoxa; esaten dizut bai, zu zarela onena.

Martak telefonoa eskegi eta bere artean esaten du: «koipetsu halakoa».

Hogeita hamabi. Mikel eta Iñakeren etxean, egongelan jarrita, Iñake, Xabi eta Ritxi. Xabi maritxu hutsa da bere keinu, janzkera eta abarrekoetan. Ritxi berriz, sasoi ederreko morrosko gazte, bibotedun, baldarkotea. Iñake, negarretan, bere zoritxarraren kontaeraren amaieran.

– Eta horixe da dena. Neska horrekin joan da, eta seguru asko ordu honetan ohe batean egongo dira… biluzik, elkar besarkatuta, muxuka… A! Ze nazka! Hau zoritxarra!

– Lasai, Iñake, lasai –Ritxi bere ahots sendo eta beso sendoagoez laguna trankiltzen saiatzen da–. Itzuliko da, denak itzultzen dira.

– Eta kontrako bazterrekoa bihurtzen bada?

– Ui! Hori ez –Xabik–. A ze gauza nazkagarria!

– Eta okerrena da ezin joan naitekeela bere atzetik. Nola futbolaria den, eta famatua, ez du inork gure rolloa jakiterik nahi.

– Eta ze onak dauden gainera futbolistak –Xabik, beheko ezpaina hozkatzen duela.

Joxepi bere gauzak hartuta azaltzen da.

– Bueno, Iñake eta konpainia, bukatu ditut hemengo lanak eta banoa. Bihar arte.

– Ai ez, Joxepi, zatoz, jarri hemen gurekin ea denon artean zeozer sumatzen dugun.

– Eta zer egingo dut ba nik?

– Ez dakit. Asmatuko dugu zerbait. Ekartzazu horko whisky botila.

Hogeita hamahiru. Erredakzioan. Jefea idazkari batekin hizketan, edo errietan hobe.

– Baina nola? Argazkilari guztiak okupatuta daudela? Ez dagoela batere libre? Eta Felix?

– Felix umeen moda jaialdiko erreportajea ari da egiten.

– Eta Jaime?

– Lehendakariaren bisitako argazkiak egiten.

– Kabroi horiek denak plurienpleatuta daude eta. Itxoin, itxoin, eta Joana? Joana libre egongo da ba?

– Oporrak hartu omen ditu.

– Deituiozu halere.

– Deitu diot, eta Egipton dabilela esan didate.

– Puta halakoa. Norbait bilatu behar dut halere... Aber, aber...

Pentsakor geratzen da momentu batzuez, hara eta hona paseatzen dabilela; halako batean zerbait bururatu eta idazmakina batean gogo txarrez tekleatzen ari den Txetxuren aurreraino doa.

– Aizu, Txetxu, uste dut zu Argazki Talde batean zabiltzala, ezta?

– Nenbilen –zipotz.

– Eta izango dituzu argazki... artistikoak, ezta?

– Bueno, bai, batzuk.

– Eta zer irudituko litzaizuke aldizkarian zure argazki horietako batzuk agertzea, orri betean?

– Tira –gero eta ilusionatuago–, aspaldikoak dira eta ez dakit merezi duten...

– Berriak ere egin zenitzake, ezta?

– Bai horixe!

– Tresnak behar, akaso...

– Ez, ez. Beharrezko makina eta aparailu guztiak etxean ditut –pozak gainezka.

– Zoragarri orduan. Hasteko, datorren alerako erreportaje bat egingo duzu.

– Zer? Nola?

– Bai, entrenatzeko. Elkarrizketa bateko argazkiak.

– Ze elkarrizketa? –moskeatzen hasita.

– Martak Mikel Arreseri egin behar diona.

– Ezta erotuta ere. Inondik ere ez: nik kabroi zerri, biolento, matxista, faxista, putaseme horri...

Jefeak barrenak husten uzten dio, eta bukatzen duenean kontsultorioko sailarekin mehatxatzen du. Protestaka baina argazkiak egitera joaten da Txetxu.

– Nik ez dakit zergatik dioten halako beldurra kontsultorioari –bere artean Jefeak–. Nik primeran pasatzen dut eskutitzak asmatu eta erantzuten.

Hogeita hamalau. Egongelako mahaitxoaren inguruan, Iñake, Xabi, Ritxi eta Joxepi, elkarrizketa bizi-bizian. Whisky botila erdiraino jaitsia, edalontziak erdizka beteta, oliba eta kakauexak platertxo banatan.

– Nola, nola esan duzu? –Iñakek.

– Horixe bada –Joxepik–. Estadiora joaten gara… eta Mikel ateratzen denean, segitu egingo dugu.

– Baina non? –Iñakek.

– Nire furgonetan –Ritxik.

– Errepartokoan? –Xabik–. Barazki ustel kirats horrekin?

– Bai, bai, bai –Joxepik–, furgoneta primeran datorkigu plan honetarako.

– Bueno: segitzen dugu, eta zer? –Iñakek.

– Nora doan ikusi –Joxepik.

– Eta maripurtzil horrekin elkartzen bada? –Iñakek.

– Sekuestratu egingo ditugu –Joxepik, segurtasun osoz.

– Sekuestratu? –besteek.

– Bai: sekuestratu, bahitu –Joxepik.

Bai eta ez, ez eta bai, eztabaidan hasiko dira, baina denak agertzen dira berehala bahiketaren alde. Xehetasunei kasu gehiegi egin gabe, berehala abiatzea erabakitzen dute, eta badoaz laurak ate aldera.

– Zu ez, Joxepi –esaten du Iñakek–. Gera zaitez hemen gu itzuli arte.

– Baina nik ere joan nahi dut.

– Norbaitek geratu behar du erretaguardian, etxea zaintzen.

– Nire ideia izan da eta...

– Ez. Hau gizonen gauza da –Iñakek serioserio, solemne ia.

Ikusgarria da nola generoa hautatzeak erabat kutsatzen dizun istorioa, nola sartzen zaizkizun topiko eta klixeak ia-ia konturatu gabe: pelikula almodovartarra egitea erabaki eta hara non, sartze aldera sartua nuen asistenta, Chus Lampreave bera bihurtu zaidan. Aupa esperpentoa, biba kitsch-a!

Hogeita hamabost. Estadioko harmailetan Marta futbolariei begira, freskatzen hasi duenez

eskuak galtzarbeetan sartu eta pauso txikitan gora eta behera dabilela. Izkina batetik Txetxu agertzen da, argazki-makina, flash eta halakoak lepotik zintzilik.

– Zu? –begiak zabalik Martak–. Zu al zara bidali didaten argazkilaria?

– Nik ez nuen nahi baina Jefeak...

– Zu Mikel Arreseren argazkiak atera behar dituzuna? –Martaren haserreak ez dio bestearen aitzakiei kasu egiten uzten.

– Baietz, laletxe, baina behartu egin nauela Jefeak. Zu gustura ez bazaude, ni gutxiago; badakizu nazka eta gorrotoa besterik ez diedala txuloputa horiei. Begira zer egin didan goizean, begira –begiondo ubeldua erakusten diola.

Biak ere bero, baina Martari profesionaltasuna gailentzen zaio.

– Nahikoa dugu, e, nahikoa dugu! Argazkiak egitera etorri bazara, argazkiak egin eta kitto.

Txetxuk ere onartu du proposamena, hasi da tresnei begira, argia eta urruntasuna neurtzen eta halakoetan.

– Behera noa, entrenamenduko argazki batzuk egitera.

Zelaira hurbildu orduko, Misterrak bukatutzat eman du eguneko saioa.

– Aldageletara.

Hogeita hamasei. Aldageletan. Futbolariak dutxatzen, orrazten, lehortzen, janzten, eranzten... eta denak Mikeli adarra jotzen.

– Joder, Mikel, egunero atzetik daukak neska hori.

– Aspertzen haizenean pasa telefonoa, e!

– Ni horrekin ez nintzateke puska batean aspertuko.

– Ze ona dagoen: ikusi duzue zelako izterrak...

– Eta titiak...

– Nik ere egingo nioke erregalotxo bat.

Hogeita hamazazpi. Ilunabarra. Iñake, Xabi eta Ritxi estadioko aparkalekuaren aurrean, furgonetan sarturik, banan-banan atera eta izugarrizko kotxetzarretan alde egiten duten futbolariei begira.

– Begira, begira horri –Ritxik.

– Ze ona dagoen! –Xabik.

– Horiekin ibiltzeagatik ni ere sartuko nintzateke futbolista –Ritxik.

– Eta gero gainera aldageletan... –Xabik, ia txaloka.

– Ze marikoiak zareten –Iñakek–. Besterik ez duzue pentsatzen.

– Jesus! –Xabik–. Katekista sartu al zara? Ba hemen zu zara futbolistaren bat harrapatu duen bakarra.

– Ai, Mikel! –Iñakek berriro, ia malkotan–. Eta oraindik ez da azaldu...

– Ez –Ritxik–. Eta bera izango da falta den bakarra.

– Beharbada ez da etorri –Xabik.

– Non ote dago orduan? –Iñakek.

– Neska horrekin edo –Xabik.

– Oi, ez...

Iñake arrantzaka hasi eta besteak kontsolatzen saiatzen direla, estadioko atetik agertzen dira Mikel eta Marta, besotik helduta, neska hizketan, eta atzeraxeago Txetxu, argazki-makinez kargatuta eta piperra baino serioago.

– Hara, hortxe datoz –Ritxik.

– Ai, neska batekin –Iñakek.

– Eta besotik helduta –Xabik.

– Arrazoia nuen! –Iñake, erdi histeriko–. Neska horrekin hasi da. Beste espaloira pasatu da. Hau lotsa! Hau pena!

Negar-zotinka eta dardarka hasten da berriro, eta lagunek beste behin bizkorrarazten dute.

– Ezin ditugu hola joaten utzi –Ritxik.

– Ez horixe –Iñakek–. Zigorra merezi du, zigor latza. Eta esplikazioak eman beharko dizkigu. Bai horixe.

– Goazen, goazen –Xabik.

Ritxik arrankatu, faroak piztu, eta une batean beste hiruren aurrean frenatu dute. Labana bana eskutan ateratzen dira.

– Geldi hor minik hartu nahi ez baduzue.

Marta, beldurrak airean, diru guztia emango diela esaten hasten da, baina minik ez egiteko, faborez.

– Nik ere emango nizkizuen makinak –Txetxuk dardarka– baina asko kostatu zaizkit; beste egun baterako geratu eta aldizkariko aparailu bat emango dizuet; konforme?

– Ixo! –Iñakek, labana luzatuz–. Sartu denak furgonetaren atzeko aldean, txintik atera gabe.

Ritxik zabaldu eta hantxe sartzen dituzte Txetxu, Marta eta Mikel. Barazki hondarrek nazka eman diote Martari, baina Mikeli besotik heldu eta eutsi egiten dio higuinari, aldi berean beldurrak eraginda galdezka hasten dela. Dena oso azkar.

– Baina zer egin nahi diguzue: sekuestratu? Oker zabiltzate, guk ez dugu milioirik, langile hutsak gara.

– Ni apolitikoa naiz –Txetxu ere etengabe hizketan–, eta gainera zuen alde nago, bai, beti egon naiz zuen alde. Futbolaren etsaiak zarete? Ni ere bai. Gorroto diet futbolariei: begira zer egin didan goizean kabroi zerri honek… Eta diruz josita dago alu alaena…

– Ixiltzeko, puñeta! –Iñake berriz, gogor orain–. Ritxi, arrankatu. Zertarako hartu zaituztegun jakin nahi duzue zuek biok, ezta? Galdetu ba Mikeli, hortxe dago-eta, txokoan isilik, hitzik egin gabe. Mikel, maitea, esaiezu zure lagun hauei nor naizen.

Txetxuk eta Martak harriturik begiratzen diote Mikeli, eta honek, buru-makur, ez du ahorik zabaltzen.

– Hauekin ere gezurretan, Mikel? –Iñakek segi–. Nik uste nuen ni bakarrik engainatzen ninduzula. Zenbat gezur eta hitz-erdi, eta dena puta nazkagarri honekin joateko. Zer du ba honek nik ez dudanik, e, zer du? –gogorretik samurrera zuzenean igaroz–: Mikel, maitea, ez nazazu utzi, nik maite zaitut, zoriontsu egingo zaitut, ikusiko duzu ze ondo biziko garen elkarrekin, ze ondo pasatuko duzun nirekin, titi-tente xixtrin honekin baino hobeto, Mikel, nik maite zaitut, ahaztu al zaizkizu elkarrekin pasatako hainbat eta hainbat momentu goxo…

Holakoak esaten dituela furgonetaren atzeko aldera pasatuz joan da, Mikelengana hurbildu, eta aurpegian laztan goxoak egiten hasi. Mikel uzkur, mutu, lurrera begira beti, eta Txetxu eta Marta aho zabalik, zer pentsa ere ez dakitela.

– Nora goaz orain, Iñake? –Ritxik.

– Ez al dakizu etxerako bidea?

Hogeita hamazortzi. Mikelen etxeko garajera iritsi eta furgonetatik jaisten dira denak: aurrekoak aurrena, eta atzeko atea zabaldutakoan hortxe daudenak.

– Segi aurrera –esaten du Iñakek, eta Ritxik bultzaka lagundu.

Txetxu arrenka, beldurrak ia zoraturik.

– Nora goaz? Nora eraman behar gaituzue? Zer egin behar diguzue? Ez hil mesedez, oraindik gaztea naiz. Ni beti egon naiz gay mugimenduaren alde. Benetan. Beti!

Azentsorean sartu dira denak. Mikel Martaren aldamenean jarri da, eta barkamen eske bezala begiratzen dio.

– Orain badakizu zein zen nire sekretua –esaten dio ahapeka, eta Martak eskua ematen dio.

– Zer? Elkarri kontu txikiak esaten? Eta eskua emanda, lehenaz gainera? –Iñakek, haserre; etsita gero–. Lotsagabe halakoak, nire aurrean gainera.

Txetxu, bitartean, Xabik egiten dizkion desirazko begiratu likitsekin gero eta urduriago.

– Baina zer egin behar diguzue? Zer nahi duzue? Ni birjina naiz. Eta gizona gainera, oso-osoa.

Xabiren irribarre maltzurrari Ritxirena gehitzen zaio.

Hogeita hemeretzi. Mikelen etxera iritsi bide dira. Txirrinak jo eta Joxepi hurbiltzen da.

– Nor da?

– Gu –Iñakek–. Zabaldu, Joxepi.

– Eskerrak etorri zareten –zabaltzen duela–; ez dakizue ze urduri nengoen. Ia-ia poliziari deitzeko zorian.

– Poliziari? –Ritxik.

– Zuek eseri sofa horretan –Iñakek bahituei.

– Munizipalei bakarrik. Kaixo Mikel.

– Zu ere saltsa honetan?

– Konprenitu behar duzu ez dagoela batere ondo Iñakeri egin diozuna, horrenbeste urtetan nobiotan ibili eta gero. Hau al da orduan neska famatua? Ez da ba hartarainokoa. Eta beste hau, nor da?

– Ez, ni ez naiz inor –Txetxuk–. Huts bat da hau dena; ni etxera noa.

– Geldi hor, maitea –Xabik, gerritik eusten diola.

Garrasika askatzen da baina Ritxik berriz heldu eta sofaren ixkina batean jartzen du. Marta dago erdian.

– A, ez –esaten du Iñakek–. Neska hau erdian nire Mikeli xirriak egiteko? Ezta pentsatu ere. Jar dadila bizardun hori bien tartean.

– Nik jarriko dut –Xabik.

Xabik heltzen dio Txetxuri, hau ikaratu eta, bahitzaileari bultza eginda, aterantz abiatzen da korrika bizian. Xabi, Iñake, Ritxi eta Joxepi atzetik; atera iritsi aurretik harrapatzen dute, eusteko ahaleginak egiten dituzte, baina Txetxu zoro moduan dago eta borrokan hasten da.

Zalaparta hori aprobetxatuz, Martak Mikeli begiratu, eskutik heldu eta ziztu bizian alde egiten dute. Iñake da ohartzen lehena eta ate aurrean jartzea lortzen du, baina Martak poltsarekin burutik beherako bat eman eta lurrera botatzen du.

– Lagundu, lagundu –esaten du beso eta hanka guztietatik loturik daukaten Txetxuk, beste biak etxebizitzatik kanpora doazela ikusiz.

Esan beharrik ez dago bahiketa hasi denetik abiadura gero eta bizkorragoz gertatzen direla hemengo guztiak, eta erritmoa azkartuz gainera: pisuan sartu direnekoa arin-arin jazo da, eta orain datorren ihesa are arinago.

Berrogei. Mikel eta Marta, eskutik helduta, azentsorera iritsi dira baina, okupatuta dagoela ikusirik, eskaileretan behera abiatzen dira.

– Zenbat pisu dira? –Martak.

– Hamar –Mikelek.

– Ene –arnasestuka.

Besteak Txetxuri nola-hala eutsi nahi eta ezinean daudela, Iñake abiatzen da iheslarien bila. Azentsorera joan eta une horretan atso bat ateratzen da bertatik zakur handi batekin. Zakurra zaunkaka hasten zaio eta Iñake bildurtu.

– Ixo, Txiki –atsoak–. Ez al duzu ikusten Iñake dela? Ez al dituzu bizilagunak ezagutzen? Baina Txiki, geldi! Ez egin koska, ez dizu minik egin

nahi eta. Ai, barkatu, Iñake, badakizu: altan dago eta. Ixo, Txiki.

Marta eta Mikel atariraino iritsi dira eta kalean behera alde egiten dute.

Berrogeita bat. Iñake bere pisura sartzen da, etsirik, triste, negar-malkotan hasteko zorian.

– Joan egin dira. Ihes egin dute, eta biek elkarrekin gainera.

Aurrean, ordea, Joxepi dago bakarrik.

– Eta besteak? –Iñakek harriturik.

– Ui! Ez dakizu zuk ze festatan hasi diren. Niri nazka eta guzti ematen didate. Gizasemeak elkarren artean hola ibiltzea ere... Jesus, Maria eta Jose. Martxa honetan alaba guztiak neskazahar.

Aiuma eta aieneak entzuten diren gelako atea bultzatu, eta hantxe ikusten ditu ohe gainean etzanda, Xabi eta Ritxi, Txetxu erdian dutela, denak erdi biluzik, besarkada eta laztanetan bihurriturik.

– Joan egin dira –esaten du Iñakek ahapetik.

– E, Iñake –Ritxik, zerbait entzunik–, zatoz hona.

– Joan egin dira –errepikatu.

– Eta zer inporta dio? –Xabik–. Gizonak joan eta gizonak etorri. Beste hau berriz, gureetara bildu da.

Eta muxu luze eta igurtzialdi bortitzean galtzen dira Xabiren mihi-eskuak.

Berrogeita bi. Gau betean, kale hutsean zehar pasieran dabiltza Marta eta Mikel, honen besoa haren lepoan, eta neskak gerritik heltzen diola.

– Eta ez nuen inork jakiterik nahi –esplikazio luze bat ari da amaitzen Mikel–; orain zuek prentsan agerrarazten baduzue, jende guztiak jakingo du eta ez dakit zertan gelldituko den nire karrera; agian pikutara joango da, oso matxista baita futbol-mundua; baina beharbada hobe: nekagarria da bizitza osoan maskara batekin ibili behar izatea.

– Lasai. Gure arteko kontua izango da hau, eta inork ez du hitzik esango.

– Zuk ez agian. Baina zure lagun horrek? Badakizu amorrazio izugarria didala.

– Utzi nire kontu. Erretxin hutsa da baina nik badakit nola manejatu.

Bakarrik eta isilik doaz espaloian barrena; lata zahar bati ostikoa ematen dio Mikelek.

– Eta orain zer egin behar dut nik? Ez dakit etxera itzul naitekeen ere, Iñake hor erdi txoratuta dagoela.

– Zatoz nire etxera. Badago biontzako nahikoa leku.

Irribarre zabala egiten du Martak eta Mikel ere hasten da bere aurpegian irri moduko bat marrazten baina zalantzazko keinu irristakorra eratzen zaio.

Berrogeita hiru. Iñakeren logelan, Xabi, Ritxi eta Txetxuk jira eta buelta segitzen dute. Iñake ohera hurbiltzen da. Bazter batean, arropekin nahasian, argazki-makina. Iñakek jaso egiten du makina eta esku artean erabili. Handik pixka batera, oheko panoramari begiratu eta ar-

gazkiak egiten hasten da, plano desberdinak bilatuz, handik eta hemendik.

– Ez, ez, fotorik ez –oihuka hasten da Txetxu ohartzean–, mesedez, zer esango dute bestela nire lagunek ikusiz gero.

Iñakek mespretxuz begiratzen dio.

– Denak igualak zarete: erreprimitu hutsak –eta fotoak egiten segitzen du.

Berrogeita lau. Martaren apartamentura sartu bezain laster, muxu luzea ematen dio etxekoandreak Mikeli. Futbolaria dardarka, urduri, azalpenetan urtzen dela.

– Ni, zera, nik ez dut inoiz emakumeekin... Ez dakit ahal izango nukeen...

– Bueno. Proba egingo dugu. Eta hasteko ni ez naiz maisu txarrena, ezta?

Halako sedukzio keinu pikaro bat egiten du Martak, eta amaitu da.

* * *

Bai: amaitu da istorioa. Kostatu zait, baina tira. Kutrea da, topikoa da, gayen kontu hori bereziki merkea atera zait, aintzat hartuz gero iraingarria eta guzti, baina bueno, hala beharko du honezkero. Sedukzio bat dago, horretan betetzen dut hasierako asmoa, neska da sedukzio horren «protagonista», eta bukaera ere, Anek nahi zuen bezala, airean geratzen da. Airean baina nolabait ere ondo amaituz. Horrek ere halako poxa ematen zidan. Izan ere, ni ez bainaiz sekula ixtorio bati amaiera zoriontsua emateko gauza izan. Bazirudien gauzak ondo bazeuden oraindik ez zela bukatu, benetako amaiera tragediak edo gutxienez etsipenak ematen duela. Edo bukaera zoriontsuak belaxkak direla, inozoak.

Hori guztiori izan zen Aste Santuko opor laburretan buruan taxutu eta gutxi gorabehera harilkatu nuena. Hala ere, eskema narras zirriborratu bat izan ezik, ez neukan besterik idatzirik, erredaktaturik. Ezta idazten hasteko asmorik ere.

Oporren bezperan gutun hura bidalia nuen, alegia, nire ipuin bat eta Monzóren beste bat zeuzkana, ezer itxurazkorik bururatzen ez zitzaidalako oharrarekin. Orain bai, banuen zerbait

buruan, baina zain gelditu nintzen. Deitzen bazidaten ondo eta bestela hobeto.

Bestalde, argi ikusten nuen nire gidoi proiektuak Aneri ez ziola ia ezertarako balio. Aurretik pare bat bideo xixtrin egin eta orain zerbait luzexeagora pasatu nahi zuen, istorio batekin, pertsonaiekin eta elkarrizketa batzuekin. Baina nirea konplexuegia zen: oso luzea, pertsonaia mordoa, lekuak ere gehiegi... Modu kaxkarrean eginda ere diru dexente beharko zen, ezer ateratzekotan. Hor konpon: nik neurea egin nuen eta ez nuen aldatzeko asmorik. Neurri batean ondo pasatu nuen, eta ipuin bat egiteko argumentua ari zitzaidan ematen, enkargu hari buruzko historia osoa jasoko zuen kontakizun hau alegia, nahiz eta une horretan ipuin honen amaierarekiko zalantza izugarriak izan. Gutxienez beste deiren bat izan arte itxoin behar.

Bi aste beranduago, gauez etxera iritsitakoan enkargua eman zidaten.

– Ane delako batek deitu dizu.

– Eta?

– Ezer ez. Deituko dizula berriro.

Biharamunean, lanean nengoela pasatu zidaten deia.

– Ane naiz.

– Bai, ezagutu zaitut, ahotsagatik.

– Aizu, jaso nuen zure eskutitza, eta irakurri ditut bi ipuinak: asko gustatu zaizkit; batez ere Monzórena.

– Eske zoragarria da.

Kontatu zidan, istorio horrekin zerbait egitea pentsatua zuela. Ez dakit harira datorren, baina nola oso polita den eta nire istorio hau bestela ere edozer bitxikeria sartzeko bezain zoro ateratzen ari den, kontatu egingo dizuet, ahalik laburren, Quim Monzóren ipuina.

Mutil bat dago. Sarritan neskalaguna ekartzen du etxera, afaltzen dute eta ohera joan. Bakarrik dagoenean, leihoan geratzen da batzuetan, pareko etxeei begira, eta konturatu da neska bat hasi dela hor aurrean bizitzen: neskak ez du gortinarik leihoan, eta mutilak mugitzen, janzten, eranzten, lagunekin, ikusten du. Gero eta gehiago gustatzen zaio neska ezezagun horri begira geratzea (ozta-ozta daki bere neskalagunaren enpresa berean lan egiten duela, honek

behin iragaitzaz aipatu zionez) eta, oharkabeko prozesu batez-edo, lehen baino kasu gutxixeago egiten dio neskalagunari. Hobeto begiratzeko teleskopio bat erosten du eta gutxiagotan ekartzen du neskalaguna etxera, lanaren aitzakiarekin. Holakoetan teleskopioa instalatu eta arratsalde osoa ematen du begira: pareko neskak bi gizonezko lagun ditu, txandaka baina egun jakinik gabe etxera eramaten dituenak. Egun batean, pareko neska leihoan dagoela eta bera teleskopiotik begira, neskak ikusi ote duen erreze-loa egiten zaio, eta izutu egiten da. Horrekin batera, ohartzen da aspertzen ari dela beti gauza bera ikusten, eta, hortik aurrera, neskalaguna sarriago ekartzen hasiko da berriro, eta teleskopioa gutxiago ateratzen; tresna honi behin betiko jubilazioa ematea erabakitzen du eta, ospatzeko-edo, neskalaguna gonbidatzen du afaltzera; afaria prantatzen amaitu du, eta, neskalaguna etortzeko ordu erdi falta denez, asperduraren kontra azkenekoz ateratzen du teleskopioa, despedida gisa; aparailua muntatu, txulotik begiratu eta... hara non ikusten duen pareko neska berari teleskopio batez begira. A ze flasha! Gau

hartan, ohi ez bezala leihoko gortinak zabal-zabalik uzten ditu neskalagunarekin ohera joatean, eta inoiz baino hobeto jarduten saiatzen da. Hortik aurrera, txandaka ateratzen dute teleskopioa auzo biek eta txandaka eskaintzen ikuskizuna, paktu mutu bati jarraiki. Halako batean neskak bi mutil eramaten ditu batera ohera. Lehia bat eratu dela sentitzen du mutilak, eta desafio horri behar bezala erantzun behar diola. Behar adina lagunik izan ez, ordea, eta bi puta kontratatzen ditu. Egiten dute egin beharrekoa, baina mutilari susmoa geratzen zaio, neskak negozio ordainduari antzeman ote dion. Hurrengo egunetan neskak espektakulurik eskaintzen ez duenez, garbi geratzen da oraindik ere mutilaren erantzunaren zain dagoela. Adiskide batekin hitz egiten du, noizbaiteko neskalagunez oroitu, eta bi bikote batera oheratzen dira (ohizko neskalaguna ez). Hori duk erronka! Biharamunean neskalagunarekin geratua zegoen, baina, pareko neskak zer egingo zain dagoenez, deitu egiten dio neskalagunari lantokira. Lana duela eta betiko aitzakiak. «Kasik hobeto» erantzungo dio neskalagunak, «nik ere banuen zereginen bat». Arra-

tsalde horretan, teleskopioa instalatu, pareko neska atea zabaltzera joan, eta zeinekin etorriko eta mutilaren neskalagunarekin.

Borobila, ezta? Beharbada nik ez dut ondo kontatu baina jeniala da. Bueno, hori duzue ipuina. Anek esan zidan marrazkiak sartzea pentsatua zuela, ze bestela oheko kontuak zailak zirela.

– Baina benetako aktoreekin hobeto, ezta? –nik.

– Bai, baina... ez da erraza bilatzen.

– Ni prest egongo nintzateke, baina andregaiak ez dit uzten.

– A, ba nik esan diot Txofori ateratzeko. Eske ni oso liberala naiz.

Bai noski. Bera oso-oso zera zen. Problema ez zen momentu batean konpontzekoa, halere: dozena erdi neska eta beste horrenbeste mutil behar ziren gutxienez. Ni ere bilatzen laguntzekotan geratu nintzen, konbentzimendu handirik gabe baina. Berak Madrilgo lagunen artean bilatuko omen zuen, hemen baino aukera gehiago ikusten baitzuen. Bestela, marrazkiekin etsi behar.

Ane gidoi teknikoa egitekotan geratu zen, eta gero niri pasatuko zidala. Esatekotan egon nintzen, ipuin horrek egile ezagun bat zuela, eta ezin zuela, hori eta horrenbestez, haren historia hartu eta pelikula bat egin. Isildu egin nintzen ordea. Bera pozik baldin bazegoen, ni gehiago. Niretzat bukatua zen komeria hura dena. Hala ere esan nion:

– Sedukzioaren zera horretarako pentsatu nuen beste istorio bat, baina luzeegi atera zitzaidan eta konplikatuegi. Eta gainera oraindik idatzi gabe daukat.

– Bale. Hori hurrengorako. Baina idatzi, e!

Doblajeaz hitz egin zidan gero. Bikoizketa egin beharko zela eta abar.

– Dena den –esan nion–, ez dago hitz egiten duen pertsonaje askorik. Bisuala da gehienbat.

Nik ez nekien erdaraz grabatu eta euskaraz bikoiztea pentsatzen zuen edo zer, baina momentu hartan ideia bat etorri zitzaidan burura:

– Bestela zera egin dezakezu: batzuek euskaraz hitz egin dezatela eta besteek erdaraz, Saizarbitoriaren *Ehun metro*-n bezala edo. Adibidez,

mutilak euskaraz egin lezake neskalagunarekin, baina putekin erdaraz.

Ez zegoen batere konforme. Planteiamendu arrazista edo ez dakit zer iruditu zitzaion. Nik errealismoaren zera aipatu nion, eta Saizarbitoriaren izena berriro, nire burua estali eta bekatua beste norbaiti egotzi nahian. Berak Parisko puten erdiak euskaldunak omen direlako kontuarekin erantzun zidan. Gehitxo.

Eta besterik ez. Gigoloaren ipuina ere oso polita zela adierazi zidan, agur esan, eta kitto. Buruhauste harekin akabo. Lasai geratu nintzen. Saltsa hartatik atera nuen bakarra istorio honexen eskeletoa izan zen. Bitarte hartan guztian idazten ari nintzena edo naizena. Kezka bat nuen, halere, eta ez txikia: nola demontre bukatuko dut hau? Anek Monzóren istorioarekin pelikula egin arte itxoin behar ote nuen? Gidoia pasatu arte? Eta gero zer? Beharbada amaiera egokiren bat bururatu bitartean zain gelditzea izango nuen onena. Baina ez neukan pazientziarik.

Ipuina idatzi nuen bada, azkenean nobela labur bihurtu zitzaidana. Bukaerarik gabe segitzen nuen, ordea. Halako batean, handik hilabe-

te batzuetara, berriz hots egin zidan. Ez dago esan beharrik nork.

– Egin dut.

– Zer?

– Pelikula. Egin dudala.

– Monzórena?

– Ez, zurea.

Une batez futbolariaren istorioaz ari ote zen pasa zitzaidan burutik, baina ezinezkoa zen: inork ez zuen ezagutzen eta.

– Nire zer?

– Gigoloarena.

Ia ahaztua nuen. Gigoloaren istorioa, eskutitzean bidalitako nire ipuina. Filmatuta. Ez nekien poztu behar ote nuen edo zer.

– Oso ondo gelditu da, pasako dizut kopia bat.

Baietz nik, herabe. Inon elkartzeko biok lanpetuegi, toki jakin batean utziko omen zidan bideoaren kopia bat, handik egun batzuetara. Kasik nahiago nik. Lotsatuta bainengoen. Lotsatuta edo. Batetik, harrotasun pittin bat nuen, nire istorio bat iruditan grabatu zutelako. Bestetik, beldur itzela, zer geratu zen ez nekielako,

eta produktuaren emaitzaz zalantza dexente nituelako.

Bideoa jaso aurreko egunetan handitu besterik ez zen egin nire irrika, nire ezinegona. Aldizkari eta egunkari pare batean atera zen Aneren bideoaren berri, laster egitekoa zen jaialdi edo lehiaketa batean aurkeztu behar zuela-eta. Bistan zegoen Anek oso ondo zekiela bere buruaren promozioa egiten. Ni ez ninduten ia aipatzen, eta hartara hobeto, ez bainekien ume haren aita zein neurritan ote nintzen: nik txuriaren gainean beltza jartzen nekien, hitzak harilkatu eta esaldiak osatzen alegia, eta kamera, mugimendu, musika eta antzezpen kontu haiek ostera... Gero, berriz, erreportaje eta elkarrizketa haiek denak ikusita, bideoa benetan ona ote zen bururatu zitzaidan, eta orduan penatu, nabarmenago agertzen ez nintzelako: azken batean, argumentuaren sortzailea nintzen, istorioaren egitura niri zegokidan, halaxe esaten nuen neure artean, neure buru hanpatu-harrotua Hollywood-en ikusten nuela.

Azkar amaitu zen jakin-mina ordea. Jaso nuen kopia. Eskutan nuen azkenik, nire antzik gabeko

hilaur zatarra ala aitaren lumaren oinordeko jatorra ote zen ikusteko. Non ikusi ordea? Orduantxe gogoratu zitzaidan ez nuela bideo aparailurik. Lagun bati hots egin nion.

– Hi, Koldo, ni nauk. Hik baduk hor bideo aparatu bat, ezta?

– Bai.

– Pelikula bat ikusi nahi diat eta.

– Pornoa ala? –adar joka Koldo.

– Ez; bueno, ez zekiat. Kontatuko diat. Orain-txe bertan joaterik ba al zeukaat?

– Bai, motell, etorri lasai. Hi, baina... zer duk: Beta ala VHS?

– Ez zekiat ba. Itxoin ezak. VHS, hori jartzen dik hemen –eskerrak.

Edaria atera zuen Koldok bideoa hasi bitartean. Eskertu nion. Urduritasun punttu bat bainuen, irri murritzez estali nahi nuena. Zabarkeria hutsa izango zela esaten nion lagunari. «Bodrio bat», hitz horixe erabilita. Gero ikusten hasi ginen. Nire lehen filma abian.

Irri murritza utzi eta barre algarari eman nion. Beharko, negarrez hasiko ez banintzen. Uste baino askoz okerragoa zen. Musika, plano-

ak... dena desastre hutsa. Baita aktoreak ere, beste lan batzuetan ikusi eta txukunak baziren ere, izatez. Pelikulatxo hartan, aldiz... Bueno, hobe isiltzea.

Koldo eta biok ez ginen isildu ordea. Hitz eta pitz segitu genuen. Kalera atera eta tabernaz taberna hasi ginen, garagardoa edaten. «Bodrioaren ospakuntza» deitu genion hari.

Eta besterik ez. Bi ondorio atera nituen anabasa hartatik. Bata, nire eta zinemaren arteko harremanak ez zirela kuttuntasun eredu, idaztea zela nire arloa. Eta bigarrena, banekiela nola bukatu kontakizuna, Anerekiko istorioa bukatu zen bezala. Kitto.

[1988]

ETA HIRU VOYEUR ISTORIO

Orense bar

Traspasoan hartu nuen taberna. Merke. Herri osoan ez zegoen merkeagorik. Herri osoan ez zegoen aldrebesagorik ere: txikiteo nahiz paseorako alderdi guztietatik urruti, ez zerurako ez lurrerako. Bazter-auzo hartako etorkin galiziarrak zituen bezero bakar, karta-partidak luze eta kontsumizioak labur.

Izena eta izana loturik daudelakoan, bata bestearen ondorengo traspaso sorta haren madarikazioari amaia emateko izena aldatzea pentsatu nuen lehenbizi. Txartel berrirako ere dirurik ez hala ere, eta gerorako utzi nuen, diru pixka bat irabazten hasten nintzenerako. Irabazi beharrean galdu egiten nuen ordea, kaxako sarrera urriak ez baitzuen argindarra eta alokairua estaltzeko adina ematen.

«Hasi orduko ez diat etsiko», esan nion neure buruari, eta zirt-zart, etxea utzi eta tabernan bizitzea erabaki nuen, hartara alokairu bakarra ordaintzeko sikiera. Bizikiderik ez nuen eta hobe hala. Koltxoi zaharra zabaldu mostradore au-

rrean eta bertan luze etzanda geratzen nintzen tabernako pertsiana itxitakoan. Hala ere, tabernan bakarrik gelditzeak ito egiten ninduen, eta azken galiziano moxkortzioari debalde ematen nion edaten bere penak eta morriñak konta ziezazkidan, besteen dohakaitzaz goxatuz nire egonezina, istorio zaharrekin atzeratuz nire loezina.

Bakardadearen mamua uxatzeko, bideoak hasi nintzen alokatzen. Film onentsuenak aurrena, arruntagoak hurrena, zegoen guztia azkena, eta zegoentxo horretan bideo pornoak ziren nagusi, ikusiaren ikusiz berotu ere gehiegi egiten ez nindutenak, baina gaua azkarrago pasatzen laguntzen zidatenak.

Eguna urratzerako esnatzen nintzen askotan, eta taberna goizean goiz zabaltzen hasi nintzen. Beti izaten zen parrokianoren bat, lanera bidean sartu eta pattar kopakadaz gosaltzen zuena. «Oruxoak zizareak akabatzen ditik», esaten zuten gailegoek.

Halako batean, bideoa artean piztuta neukan eta gustatu egin zitzaion pattarzaleari. Leopardo-larruzko berokiarekin jantzitako emakume bat ageri zen pantailan, hoteleko gela batera

deika. Gizonezkoak ireki bezain laster, emakumeak, hitzik egin gabe, berokia zabaldu eta bere biluztasun ederra jarri zuen bistan. Hortik aurrera, espero zitezkeenak.

Hiru kopa edan baraurik eta, berandu fitxatuko zuelako marmarka eta gogo txarrez alde egin zuen azkenean gailego goiztiarrak.

Biharamunean bi lagunekin azaldu zen, besteetan baino goizago. «Zer: gaur ez al dugu pelikularik?»

Egunez egun gehiago etortzen ziren goiz parte horretan, eta egunero jarri behar izaten nien bideo berria. Pornoak beti, ez baitzuten bestelakoekiko interesik. Goizean egiten nuen eguneko irabazia, gainerakoan hutsik segitzen baitzuen. Langile goiztiarrek beharrera alde egindakoan lotara etzaten nintzen pixka batean, eta ondoren bideo berrien bila abiatu, bizpahiru dendatan hartzen bainituen, bakar batean aski ez eta.

Bazkalondo batean lau emakume sartu ziren, koadrilan. Umeak eskolan utzi berriak, itxuraz, kafearen aitzakian maiseaketan ari zaleak. Jar-

dun luzerik gabe eskatu zidaten harakoan: «Hi: pelikula pornoren batzuk omen dituk hemen».

Lotsagabeenak esan zuen, ozenki, eta beste guztiek irri-karkailari eutsi ezinik erantzun zioten. Nik uste gorritu eta guzti egin nintzela, baina negozioa beti negozio, bezeroak beti arrazoi.

Etxekoandre gazteak ere arratsalderoko bisitari bihurtu ziren, gero eta talde handiagoan. Presaka etortzen ziren askotan, haurrak eskolan utzi eta berriz jasotzerako film osoa ikusteko. Nik bideoa sartuta izaten nuen, haiek agertu orduko pizteko.

Aurki gauetan hasi ziren azaltzen gazte koadrilak. Mutilez osatuak gehienak. Ostiral-larunbatetan, afari ondorenetan ugari etortzen ziren, baina bestela ere gauero-gauero osatzen zen lagunarte koxkorra, kopa bat edo beste edan eta, erregaiaren pizgarri, film porno batzuk ikusteko. Handik aterata, askori sumatzen nien norako bidea zeramaten, eta harainoko denbora galdu nahi ez zuen presati batek halaxe esan zidan behin:

«Hi, hor atzean ohe batzuk jarri eta lepatxuriak ekarri beharko hituzke».

«Ezta erotuta ere», esan nion. Oraindik banuen duintasun apur bat, eta diru aldetik orain berriz soberan. Berriro etxea alokatzeko banuen, hobea nahi banuen, baina ordutegi xelebre harekin noiz joan? Bertan lo egiten segitu nuen, eta egunez ere ez nuen ia bertatik ateratzeko astirik: goizeko langileek alde egindakoan erretiratuak agertzen ziren, zaharren etxean baino denborapasa hobea nuela-eta; geroxeago langabetu aspertuak; eguerdi aldean ere, ikasle batzuk izango ziren bokadilo eske, nik ere nola-halako otordua egiten nuen bitartean; bazkalondoan kafea hartzera sartzen zirenak eta hauen ondoren ohizko emakume koadrila; atzetik gazte taldeak agertzen ziren, bikoteka edo taldeka; bikoteak baldin baziren xirriak egiten zituzten eta multzoan etorriz gero builaka ekiten zioten; arratsaldeko poteolari batzuk ere agertzen ziren hurrena; harainoko ibilaldiak ordurarteko baxoerdiak asentatzen laguntzen ziela eta. Denetariko jendea, orotariko edariak, baina guztiek asmo bera: film pornoa ikustea.

Bi txapelgorri ere ikusi nituen sartzen behin batean. «Ostras, itxi egingo zidatek taberna», esan nuen neure artean, baina haiek ere besteen bidetik zetozen nonbait: zerbait eskatu eta berehala sumatu nituen, eskua poltsikoan sartu eta, txanponak bilatzeko aitzakiaz, taketa zuzen jartzen.

Niri, ordea, ez zitzaidan aspaldian tente jartzen. Filmen gehiegiak kontrako eragina egin balit bezala, haragi biluzia hiltegiko okela bailitzan ikusten nuen. Ezta ikararik ere. Kilikatu egiten ninduten, hala ere, filmaren aurrean zeudenen jarrerak, begiradak, ezinegonak: gaztetxoen begi-niniak nola zabaltzen ziren pantailako hankarteekin batera; onenak emandako emakumeak, soinekoaren eta are azpikogonaren azpian ere, izterrak elkarren kontra nola igurzten zituen berez-berez; ondokoak, aldiz, ikuskizun umelaren aurrean ahoa lehortu eta mihia ezpain artean nola zerabilen, ia oharkabean. Hori hasieran. Gero, berriz, ikusleen ikuskari hartara ere jarri eta ez zegoen ni kitzikatuko ninduenik. Txixatarako besterik ez zidan balio saltxitxa antzeko zera barregarri hark.

Ez neukan horrekin kezkatzen ibiltzerik hala ere. Beti tabernan sartuta, mezulariek ekartzen zizkidaten bideo berriak eta ikusitakoak eramaten. Edari-banatzaileak ere bertara etortzen zitzaizkidan eta eskura ordaintzen nien beti, ez bainuen bankuetarako modurik, ez ordurik. Pilatzen ari nintzen dirua, ordurako mordoxka, koltxoi-zulo batean sartu eta aurrera.

Koltxoia ere gero eta gutxiago ukitzen nuen. Etengabeko jendearen joan-etorri harekin lotarako astirik ez. Azken gautxorien eta egunsentiko beharginen arteko ordu txiki hura otordu lasaia egin, egunean zehar zikinduak garbitu eta neure burua ere zertxobait txukuntzen ematen nuenez, afal garaia geratzen zitzaidan libre. Baxoerdizaleek alde egin eta afalostekoak agertu bitartean, atea itxi, ohatzea paratu eta hantxe geratzen nintzen, bi orduz-edo erdi lo.

Abaildura logaitza baino handiagoa zen batean gertatu zen. Behingoz lo zerraldo nengoen, zurrungaka beharbada, eta neure ametsean aldarriak entzuten nituen; gero haiek handitu eta, erdi esna, atean kax-kax ari ote ziren iruditu zitzaidan. Lozorrotik esnatzera doan bide lauso

horretan, gandu artean sumatu nuen ate joka ari zen itzal bat, eta eztarri lakarrez esan nion: «Itxita dago». Ateaz bestaldekoak deika segitzen zuen hala ere, eta neure ahotsa entzuteak gehiago iratzarri ninduenez, jaiki eta atera jo nuen, desorduko tabernazale hura madarikatzen. Atea erdizka ireki eta makarrek erdizka irekitzen besterik uzten ez zidaten begiez emakume gazte bat ikusi nuen neure aurrean, ezezagguna, gabardina batean bildua. Nik «itxita dago» ahoskatzerako, ez dakit «utzi sartzen» esan ote zidan edo begirada errukarri-urragarri harekin agindu. Nolanahi ere, nik ireki orduko bera sartu eta gabardina zabaldu zuen: azpitik biluzik zegoen. Larrugorritan.

Hura bera beste noizbait ikusia neukan errezeloa egin zitzaidan. Hain irreala zen, hain sinestezina, ametsetan ari ote nintzen otu zitzaidan, baina bururatu orduko neskak bultza eta koltxoira bota ninduen. Bera gainera. Holakoak ere mila aldiz neuzkan ikusiak: prakak eranzten dizkizutela, azazkal gorriz saihetsak eta bizkarrezurra goitik behera harramazkatzen dizkizutela, ahoan gozo hartzen dizutela... Ezberdintasunak bi

ziren: norberaren larruan diferente sentitzen dela eta, garrantzitsuena, pelikuletan ez bezala altxatu egin zitzaidala. Horrenbestez, ni ere ezin egongo nintzen geldirik. Bideo-eskola hartan ikasitako batzuk praktikatzen saiatu nintzen. Zerorrek egitean beti gelditzen da lardatsago, baina hala ere ondo. Dudarik gabe, oso ondo.

Beste ate-danbada batzuek esnatu ninduten. Burua altxatu, ate atzean gaueroko gazte pornozaleak barruntatu eta aurreko ametsa ahogozatuaz joan nintzen irekitzera. Haiek esan arte ez nintzen ohartu larrutsik nengoela, eta orduan konturatu lehenxeagokoa egia izan zela.

Orduan, eta koltxoi-zuloko dirua desagertu egin zela ohartzean.

Orain, berriro ere, traspasoan dago taberna. Merke. Lehen baino merkeago.

[1993]

Informazio sexuala

ipuin anti-erotikoa

Seigarren, zazpigarren eta zortzigarren ikasturteetan segidan jarri ziguten diapositiba-sorta bera (anaia Pedrorekin, anaia Jazintorekin, anaia Jabierrekin). Beti saio bera, eta berbera ez bazen biki izpirituala, edo klonikoa, gaurko egunean esaten den bezala.

Lehenengo argazkia naturako panoramika zabal bat izaten zen: mendi-zelaiak egunsentian, edo itsaso eta basamortuak, izadiaren eta haren sortzailearen handitasuna adierazteko. Zeru-lurrak sortu zituenak sortu zituen munduko bizidun eta bizigabe guztiak ere, eta honen agergarri azalduko ziren argazkietan erleak eta loreak, edo zaldiak eta behorrak, edo gorilak eta tximinoak, eta, guztien gainetik, egilearen emaitza gorena: gizakia.

Hitzaurre moduko bat besterik ez zen hura, diapositiba-gelako iluntasuna aprobetxatuta jolasean eta txorakerietan ari ginen bitartean: au-

rreko lerrokoren bati kaskarreko bat eman, lehenengo ilarakoei paper-bolak tira eta halakoak. Fraidea bitartean (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier), ixo eta ixo, indar handirik gabe baina.

Laster hasiko zen mamia. Gure Jainkoak ar eta eme egin gintuen, esango zuen off-eko ahotsak, eta pantailak orduan haur biluzi biren argazkiak erakutsiko zituen, urtebete ingurukoak, txintxilikarioa eta txuloa agerian zituztela. Orduan hasiko ziren lehenengo txisteak, oihuak, irriak, baita fraidearen lehenengo errietak ere:

– Isilduko zarete, ala klasera itzuliko gara bestela? Gezurra ematen du...

Klasean egotea baino hobea zen hura, eta isildu egingo ziren gure orroak, momentuz, fraideak (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier) hurrengo filminari paso emateko bederen. Aurki hasiko baitzen onena. Ahots modulatu hark zioenez, pubertarora iristearekin batera, zenbait aldaketa izango zituzten geure gorputzek, hala nola ileak haztea aurpegian, besapeetan edo sabelpean...

– Txemari atera zaizkio, kristoren ile pila! –esango zuen Txufik, eta beste guztiok algaraz erantzun.

– Isilduko al zarete? Umeak ematen duzue!

Pixkanaka isilduko ziren gure barreak; ez hala ahopeko komentarioak, ileen kontu hura axola handikoa baitzen guretzat. Tamalez, argazkiak ez zuen inongo bixarrik ageri: babalore bat agertzen zen, jantzita noski, arratsean hodeiertzari begira, zera baino inozoago. Penagarriagoa zen ordea hurrengoa; nesken aldaketak komentatzen ari zen betiko ahots koipetsu hura: ileak haztea gorputzeko zenbait aldetan (non zehaztu gabe), bularrak handitzea (hemen gure barre txoro eta imintzio nabarmenak), eta argazkiak, neska bargasta bat bere ederrean erakutsi ordez, tuntunpaela ilehori bat ageri zuen, margarita bat eskuan, pentsakor, hostoak kenduz maite nau / ez nau maite ari balitz bezala edo. Beste zer edo zer nahi genuen guk, beste zer edo zer espero, eta hori adierazi nahi zuten gure marruek.

– Ixo! –fraideak.

– Iñakiri ere titiak atera zaizkio –bota zuen Txufik, eta denok barrez jarri..

– Hoa kaka egitera –Iñaki klaseko potoloak, minduta.

– Zufiaurre, hurrengoan kalera.

Denok apur bat baretu arte itxaron zuen fraideak (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier), saioaren muin zientifikoa baitzetorren hurrengo azalpenenean: marrazkitxo zenbaiten laguntzaz off-eko ahots orojakileak azaldu zigun gure guruinek (zer ote zen hori) substantzia berezi batzuk jariatzen zituztela, gure hazkundea eta aldaketak eragiten zituztenak; guruin sexualak diferenteak omen ziren neskentzat eta mutilentzat. Gure kasuan espermatozoideak sortzen ziren; neskenean, berriz, obuluak. «U, u, u» egin zuen baten batek, baina laster isildu zen, handia baitzen beste guztion jakin-mina.

Zelulen argazkiak eta marrazki eskematikoak tartekatuz, han agertu ziren txalburu buztanluzeak, barrabiletik zakilerainoko tutuak, obulutegiak eta umontzia, Falopioren tronpa eta guzti, nondik ibiltzen baitira txangoan obulu izeneko pilota txiki, bigun batzuk. Barre txikiak ziren

gure artean, une jakin batean ozen eta nabarmen bihurtu zirenak, hain zuzen ere ahots neurtu hark (Jainkoaren ahotsa ote?) esan zuenean ezen zakila, gorputz porotsua izanik, odolez bete litekeela eta bigunetik gogorrera igaro, espermatozoideak bertatik igarotzeko.

–A ze kanpai jotzeak, e Fermin? –bota zuen Txufik, denen algaren artean.

– Zufiaurre: zoaz oraintxe bertan kalera –esan zuen fraideak.

– Zergatik?

– Zaude isilik eta atera kanpora, zartako bat ematea nahi ez baduzu.

– Baina egia da: Fermin akolitoa da parrokian, eta berak jotzen ditu bertan kanpaiak.

Danba!, kristoren zaplaztekoa eman zion fraideak (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier), gure barregurak derrepente eten zituena.

– Ea hemendik aurrera isilxeago zaudeten –esan zigun fraideak Txufik alde egin ostean, eta proiektorea berriz martxan jarri aurretik sermoitxoa botatzeko aprobetxatu zuen–. Gezurra ematen du: zuen hobe beharrez ekarri hau ikustera, hazitxoak zaretelakoan, eta horra, umeak

baino okerrago. Informazio sexualik ez daukazuela esango duzue gero...

Lasaitu zen halako batean fraidea (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier) eta aurrera segitu genuen diapositiba-saioarekin. Eskemak utzi eta jendearen argazkiak genituen aurrean berriz ere: hamazortzi urteko neska-mutil batzuk eskutik helduta; gero beste bikote bat, elkarri gozo begira; hurrena beste bat (edo lehengo bera, ez zegoen jakiterik) besarkatuta, atzean ilunabarraren gorria ikusten zela (ilunabarra zen, bistan zegoenez, Jaungoikoaren unerik gogokoena, edo sexualena, edo argazkietarako aproposena). Bien bitartean, goiko ahots hark azaldu zigun nola, adin batetik aurrera, elkarrenganako joera dugun gizon eta emakumeek, Jainkoak hala nahi izan duelako, eta nola elkartzen garen bikoteka, eta nola sentitzen dugun arimaz ez ezik gorputzez ere bat egiteko desira, gure jaunak bedeinkatua.

Ez fraideak egundoko errieta egin zigulako baina isil-isilik geunden une hartan, aho barneko listu-irenstea besterik aditzen ez zela, ondoren

etorriko zelakoan zereko zera, alegia, pin-pan-puna, denok espero genuena.

Etorri, etorri zen, baina ez argazkiz, ezpada marrazkiz. Ez oso marrazki kilikagarriekin gainera: zirriborro batzuek adierazten zuten nola zakila ematutuan barrena sartzen zen, eta nola espermatozoideak pozez saltoka ateratzen ziren, barrualde haietan obulu bakartiaren bila.

Egundoko borroka zen hura: denak korrika, eta bakar batentzako tokia bertan. Olinpiadetako ehun metroko lasterketa balitz bezala geunden gu denok, arnasari eutsiz, hura dena nola bukatuko.

Bukaera, jakina, hurrengo argazkiak eman zigun: emakume bat ageri zen bertan, egundoko zoriontasun-aurpegiarekin, bere sabel loditua laztantzen, atzean gizona zuela, emakumeari eta honen sabelari samur-samur begira. Bistako ondorioa zen hura, eta ezaguna, baina hala ere halako frustrazio-sentipen bat sortu zigun denoi barruan, airez betetako globoa bat-batean lehertu edo hustu balitz bezala, edo, zehatzago esanda, gure gorputz porotsuek istant batean bere odol guztia galdu balute bezala.

Ondorengoa ere jakina zen, eta anti-klimax hura areagotu besterik ez zuen egin: erditze baten irudia ikusiko genuen («bizitzaren miraria», ahots ahalguztidunaren hitzetan), ama hori haurrari titia ematen gero, eta amaitzeko beste panoramika zabal bat, ilunabarra ez bazen egunsentia oraingoan. Jainkoaren xedeak buruturik geratzen ziren horrela, bere planak zehatz beterik eta zikloa berriz ere hasieratik abiatzeko prest. Eta halaxe sentitzen zen fraidea ere (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier), elizaren irekitzeak eta garai politiko berriak eskatzen zuten modernizazioaren aitzindari, inkisizioaren oskurantismo zapaltzailea behin betiko itzalpera bidali duen goiaingerua iduri. Gu denok aski isil eta apaldurik ikusita, gainera, diapositiba-saioaren mezu sakona barneraino sartu zitzaigula eta geure baitan hausnartzen ari ginela pentsatuko zuen, gizajoak.

– Tira, goazen gelara –esango zuen fraideak argiak piztuta.

Protestaka eta marmarka hasiko ginen gu orduan, klasera itzultzeko nagiz.

– Hurrengoan jarraituko dugu, sexualitatea Jainkoaren dohain gisa sakonago aztertzen –esan zigun fraideak (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier).

Eta kontsolamendu ttiki horrekin geratuko ginen gu, hurrengo filmina-sortan zerbait kilika-garriago ikusteko esperantzan.

Pasabidera irtetean Txufi topatu genuen, belarriondo gorritua eskuarekin igurzten oraindik, baina irria ezpainetan eta jakin-gosea begietan.

– Ta? Zerbait ikusi al da?

Eta gu zalantzan geratuko ginen, egia aitortu ala gezurren bat asmatu, eta aldi berean kalkuluak egiten nor bere artean, ikusitako argazki xixtrin eta geza haiek baliagarri izango ote zitzaizkigun, geure bakarkako fantasia sexualak ernatzeko.

[1998]

Porroia

snuff-movie

– Kontaidazu ipuin bat.

– Ez.

– Ipuin zerri bat.

– Nahiko zerria ez al da, nire egoera hau?

– Ipuin lizun bat, ni berotzeko.

– Ez dakit zer kontatu. Nire postura hau ez da aproposena ipuinak asmatzen hasteko.

– Ez al zaude gustura, maitea?

– Zure desirak gero eta konplikazio handiagoak behar ditu kilikatzeko. Aurrena bideoak ziren; gero, haiekin aspertuta-edo, bibragailuekin ibili behar izan genuen jolasean; ondoren, hauek nahiko ez nonbait eta larruzko uhalak hasi ginen erabiltzen. Eta orain, lehenaz gainera, jarrera xelebre honetan naukazu loturik.

– Nahi al duzu jarrera aldatzea?

– Ez: nahi dudana da behingoz bukatu eta askatzea.

– Horretarako ipuin bat kontatu behar didazu. Ipuin likits bat, nire libidoa kitzikatzeko.

– Hau absurdoa da.

– Absurdoa ipuintxo berde bat kontatzea?

– Absurdoa da sexuan gero eta sofistikazio gehiago behar izatea, berez gauza naturala izanda. Lehen aski izaten zen izter bat ikustea, edo bizkar bat, norbait berotzeko. Ondoren gehiago ikusi behar izaten da; eta biluztasun osoa erakusten denean ere beste zerbait nahi da gero: konbinazio diferenteak, tresna arraroak, osagai harrigarriak...

– Segi hizketan, maitea, berotzen ari naiz eta.

– Bide horretan lortzen den bakarra, perbertsioaren maldan behera erortzea da, eta azkenean frustrazioa besterik ez da gelditzen.

– Ni ez nago frustratuta, laztana, oso gustura nago.

– Baina iritsiko da. Perbertsioen katalogoa ere mugatua da. Gero eta zerrikeria handiagoak eginda ere, azkenean topea jotzen duzu eta aspertu egiten zara.

– Nik ez dut oraindik topea jo.

– Oraindik ez, baina zer etorriko da gero? Film pornoetan bezala da hau, berdin-berdin.

– Zer da film pornoen kontu hori?

– Aurrena erotismo xamurra izaten da. Gero erotismo esplizitua eta larru jotzeak. Ondoren zupaketak eta bariazio tipikoak, eta horiekin aspertutakoan hasten dira gauzak bihurritzen, animaliekin zerrikeriak egiten, edo snuff-movie zikin horietakoak egiten.

– Zergatik dira zikinak snuff-movieak? Ez al dira ba «naturalak», zuk nahi duzun bezala?

– Egiazko bortxaketak eta hilketak filmatzea? Hori ez da naturala; hori, hori... erokeriaren eta nazkagarrikeriaren zuloan sartzea da hori.

– Zelako atsegina ematen didazun horrela haserretzen zarenean...

– Bizioaren amildegian erortzea.

– Segi, segi...

– Baina azkenean, horiek ere aspertu egiten dira.

– Ez izan gogaikarria, zure aspertze kontu horrekin.

– Egia da eta. Hilketak, bortxaketak... dena asmatuta dago.

– Dena?

– Den-dena. Errepikatu besterik ez dute egiten.

– Ez nago ba konforme. Hilketak edo bortxaketak egiteko ere, beti asma litezke modu berriak.

– Ezinezkoa da dagoeneko ezer berririk asmatzea. Arma mota guztiak probatu dira: mailuak, labanak, pioletak, pistolak, guraizeak... Zein baino zein bortitzago eta nazkagarriago.

– Errefinamendu pixka bat ere badago bilaketa horretan...

– Bai zera! Basakeria da baliabide bakarra: tortura-mahaiak, dentistaren aulkia, ginekologoen ohe hau...

– Ez al da erosoa?

– Bisturiak ez direnean aizkorak. Iltzeak ez badira daratuluak. Motozerra izan zen garai batean azken asmakizuna, baina hori ere agortuta dago eta dagoeneko ez da ezer berririk sortzen.

– Ba, oker zaudela esango nuke nik.

– A bai?

– Oso oker gainera. Irudimena uste ez den bidetik irteten da, eta beti sortzen du zerbait berria; berria, diferentea eta, hortaz, kilikagarria.

– Izango duzu orain ere, Interneteko pitokeriaren bat edo.

– Ez, ez. Ez da behar azken puntako teknologiarik. Aski da tresna xume bat, etxeko sukaldean ahazturik dagoena.

– Bai: danbolina, kanpaia jotzen ikasteko.

– Ez, ez. Oso hotz zabiltza. Eta ni gero eta beroago. Ireki itzazu hankak gehiago. Gehixeago. Horrela, oso ondo.

– Ai.

– Min eman dizut? Lasai, ohitu arte izango da. Ikusiko duzu zein ongi, prestatu dizudan sorpresarekin.

– Ze sorpresa?

– Etxeko tresna arrunt bat, esan dizut.

– Benetan ari al zinen?

– Jakina. Bene-benetan.

– Ze tresna?

– Begira nola jartzen nauzun, begira.

– Ze tresna?

– Ez zaitez horrela ikaratu, lasai.

– Ze tresna?

– Esaten badizut ez da sorpresa izango.

– Mesedez, ez etorri orain sega edo igitaiekin, mesedez.

– Lasai. Ez da ez sardea, ez aihotza, ez ebakitzen duen beste ezer ere. Baina ez itxi hankak.

– Zer da?

– Jakin nahi duzu?

– Bai!

– Tira. Esango dizut. Edo erakutsi egingo dizut bestela. Hara.

– Porroia?

– Bai: porroia.

– Tresna erotikoa?

– Ikaragarrizko posibilitateak dituena gainera. Begira.

– Ai.

– Erlaxatu. Ez uzkurtu giharrak. Goxo-goxo sartuko zaizu.

– Ez dut nahi. Askatu.

– Ezin dut. Jolas bakoitzak bere legeak ditu.

– Ez dut gehiago jolastu nahi.

– Alferrik duzu orain protestatzea. Loturik zaude.

– Ai!

– Ikusten? Txulo txikia bada ere, zabalduz-zabalduz doa pixkanaka, porroiaren muturra ondo sartu arte.

– Kendu zikinkeria hori hortik. Honek ez du ez graziarik, ez ezer...

– Nola ezetz? Ni oso ondo ari naiz pasatzen. Eta hau hasi besterik ez da egin.

– Ez didazu mutur osoa sartu nahiko, ezta?

– Ez. Oso jolas basatia litzateke hori. Gainera, bideo pornoetan-eta askotan ikusi ditugu horrelakoak: gero eta zera handiagoak sartzen, gero eta barrurago, azkenean dena lehertu eta odoletan gelditu arte... Isilik zaude. Beldurtu egin al zara? Esan dizut ez ditudala pelikula zaharrak berritu nahi. Zerbait desberdina bilatzen nuen, eta porroiak eskaini dit.

– Mesedez...

– Begira: porroiaren txulo txikia zure barruan sartuta daukazu. Zulo handia, berriz, hemen kanpoan, nire aurrean. Nik orain likidoren bat botako banu hemendik, dena zure hesteetan barrena sartuko litzateke. Zer iruditzen zaizu?

– Nahikoa da...

– Ez jarri aurpegi triste hori. Kamera bat dago nire atzean. Hor: ikusten? Eta dena ari da grabatzen.

– Ez da egia izango.

– Zuk aipatu dituzun snuff-movie horietan bezala.

– Erotu egin zara.

– Jolas bat besterik ez da, baina jolas guztiak azkeneraino jolastu behar dira. Begira: ikusten dituzu hiru botila hauek? Zilar-paperean bildu ditut eta kanpotik berdin-berdinak ematen dute, baina barrukoa diferentea dute hirurek. Jakin nahi duzu zer daukaten barruan?

– Mesedez, joan egin nahi dut...

– Gogaikarria zara gero! Ni ondoen pasatzen ari naizenean... Hara, esan egingo dizut. Botiletako batean ura dago, ur naturala besterik ez. Hori barruan sartu, eta bera bakarrik aterako da gero. Barrenalde hori garbitzeko ere balioko dizu igual. Beste botila batean, ez dakit hiruretako zeinetan, olioa dago. Oliba-olio birjina gainera, dendako onena erosi dut. Honek ere garbitzeko balioko dizu, baina gehiegi agian: kakabeherako ederra etorriko zaizu botila osoa porroian husten

baldin badut. Eta hirugarren botila, nik ez dakit zein den baina, hirugarrenean garbitzeko beste gauza bat dago, atzealdearekin zerikusia duena baina diferentea: komun zuloak garbitzeko likidoa da, eta ontzian jartzen zuenez arriskutsua, azidoa duelako, eta erre egiten omen du.

– Zu... Zu... Utzi! Utzi! Askatu, utzi joaten!

– Alferrik ari zara. Lokarriak sendo jarrita dauzkazu, eta porroi muturra ondo sartuta.

– Mesedez, nahikoa da, utzidazu joaten.

– Oraintxe. Baina aurrena jolasa bukatu behar dugu. Zuk botila bat aukeratu, nik porroian hustu, eta kitto.

– Erotuta zaude. Erotuta! Erotuta!

– Alferrik ari zara oihuka. Hemen ezin digu inork entzun.

– Mesedez, aska nazazu.

– Botila bat aukeratu ondoren. Begira: hementxe dauzkazu hirurak. Bat, bi eta hiru. Zure eskubikoa bat, erdikoa bi, eta ezkerrekoa hiru. Bat, bi eta hiru. Nik ere ez dakit zein den zein; hortaz, joko garbia da.

– Psikopata bat zara. Hiltzaile nazkagarria!

– Ez da egia. Posibilitate asko dauzkazu onik ateratzeko. Hirutik bi. Eta komun zuloko likidoa botata ere, ez da segurua heriotza; beharbada ospitale batera garaiz joanez gero... Dena dela, ez dezagun txarrena pentsa. Aukera gehienak dauzkazu salbu gelditzeko, edo beherako txiki batekin. Baina zer da ba hori, egiazko snuff-movie batean atera eta gero? Ea: zer diozu? Zein botila nahi duzu?

– Ez dut ezer nahi. Ez dut bat bera ere aukeratuko.

– Jo! Horrela bere xarma guztia kentzen diozu jokoari. Zuk zeuk izan beharko zenuke zeure patuaren erabakitzaile. Bestela zer egin behar dut nik? Aliritzira aukeratu edozein botila? Ala hirurak hustu banan-banan...? Ez, hori krudelegia litzateke, noski. Baina... zertan ari zara? Negarrez? Gaixo hori, polit hori, zer egin dizut ba nik negarrez hasteko? Lasai, maitea... Ai! Koska egin didazu! Orain bai hustuko dizkizudala hiru botilak...

– Ez, ez, ez... Eeeeeeeez!!!

* * *

– Hirurak ziren ur botilak. Baina ondo egon da trukua, ez?

[1999]

Istorio bakoitzak du bere historia

(hitzatzea)

Sei ipuin amodiozko 1986 hasieran argitaratu zen lehenengoz, Susa bilduma zaharraren 29. zenbakiarekin, Alvaro Matxinbarrenaren azal eta marrazkiez horniturik. Sei urte geroago, 92an kaleratu zen berriro, Susa narratiba bilduma berriko 7. zenbakiaz, testuak apur bat orraztuta eta azala aldatuta (Aurelio Artetaren «Maitasuna kirol zelaietan»), barruko irudiak gorde ziren arren. Matxinbarrena eta Artetaren segida Ubedak hartu du orain, hamar urteren buruan hamar ipuin berri eransten dituen edizio honetan. Lehen ediziotik 16 urte pasata, 16 ipuin.

«22 ebaki» da nire ipuin zaharrenetako bat, 83an idatzia eta urte bereko *Susa* aldizkariaren 9. alean kaleratua. Bere makabrotasun horretan badu, nonbait, erakarpenen bat, lagun askok azaldu izan baitit begiko duela. Seinale, eite biri-

bilduaz gain, badela hor zoro-punturen bat jende franko harrapatzen duena; idazlearentzat ez ezik, katartikoa izan zela irakurlearentzat ere.

Liburuko gainerako bost ipuinak 1985ean idatzi nituen: lau udan, eta azkena udazkenean. Sariketaren bat edo beste eskuratu nuen haietako batzuei esker, baina, liburua osatzeko asmoarekin sortu nituelako edo neure lehen liburua plazaratzeko presa nuelako, ez zuten izan liburuaz kanpoko argitarapenik.

«Udak dakarrena udak daroa» delako istorioak parodia edo omenaldia egiten dio subkultura espainolaren agerpen jakin bati: udako abestiei alegia; gustatu edo ez, gure erreferentzietako bat izan baita (eta *da*, beste kantu eta kontu batzuekin, gaur egungoentzat). Aitorpenekin hasita, kutrerako zaletasun hau azaldu da geroztik ere nire beste obra batzuetan.

«Nenufare zuria (edo Ishmir eta Guzmuden ipuin zorigaiztoko eta moralexa mingotsa)»: neure buruari galdetzen diot, zer dela-eta orientalismorako joera hau. Sarrionandiaren hasierako exotismoak euskal literaturan utzitako arrastoa izan liteke. Dena dela, ipuin tradizionalekin

jolas egiteko hautatu nuen molde hori, eta orain-dik ere kezkatzen nauen arazo moral bat dago sakonean, hots, naturaren berezko injustizia, konpondu ezineko diskriminazioa.

«Perla beltza», maitasun *fou* edo zoroaren inguruko alegoria bat izateaz gainera, ariketa linguistiko bat izan zen: neure buruari –eta besteei– erakutsi nahi nien, nonbait, zenbaterainoko esaldi luze eta korapilatsuak egin nitzakeen. Gaur egun lotsatzen nauen nabarmenkeria, eta gorroto dudan estiloa. Hala ere, halaxe egin nuen bere garaian, eta koma batzuk eranstera eta hitzen ordena txukuntzera mugatu naiz orain, irensgarriago egiteko.

«Un petit cadeau pour madame (korte askotako pelikula)» zinema-kutsu agerikoz ez ezik, topikoekin jolasteko asmoz ere jaio zen; idatzi nuenean ezin asmatuko nuen kamera aurrean izango zuen segida bitxia, bilduma honetako beste ipuin batean azaldua dudana.

«Amuña Margarita» ipuinak ez ninduen ase egin nuen garaian; hala ere, badu ezaugarri bat geroztik ere landu izan dudana: ahozko hizkeratik abiatzea testu literario bat sortzeko.

BESTE SEI PERBERTSIO atalean bildu ditudan ipuinak garaitsu hartan idatziak dira gehienbat, lehentxeago edo geroxeago, eta aurrekoekin nahiko bat datoz gai, giro eta idazkeraz.

«Sudurraren dardara» da nire ipuin guztietan zaharrena, argitaratu dudan zaharrena behinik, honen aurretik armairuan gelditutako dozena bat folio izango bainituen. 1983ko udaberri aldean idatzi nuen, karrerako lehen urtean nengoela, eta *Susa* aldizkariaren 8. alean kaleratu zen. Dibertimendu bat da beste ezer baino gehiago, baina, aurrekariei erreparatzen ari naizen une honetan, bitxia da ikustea baserriaren munduak –karikaturarako besterik ez bada ere– aspaldidanik erakartzen ninduela.

«Melodrama»: hau ere goiztiarra da, 1984 aldekoa, eta Susa argitaletxearen liburu kolektibo batean ikusi zuen argia: *Aurten ere diferente izanen da*. Bolada hartan erdaraz idatzi nuen poema bat datorkit gogora (halako bekatuak ere egin nituen, bai, gero argitaratzera iritsi ez banintzen ere), horrelaxe amaitzen zena: «Yo hacía

como que estaba muy triste / cuando en realidad / la verdad era que estaba muy triste».

«Demagun sexua komunikatzeko beste era bat baino ez dela» film laburretarako gidoi moduan jaio zen: Azpeitiko Zine Klubak halako gidoientzako lehiaketa bat antolatzen zuen garai hartan, eta sarietako bat irabazi zuen honek. Nik uste parte-hartzaileak bi besterik ez zirela izaten: Juan Luis Zabala, behin baino gehiagotan, eta ni, urte hartan. Aitorpenekin hasita, sariak ere apalak zirela adierazi behar: mila duro irabazleak, edo horrelako zerbait. 1986an idatzia dela esango nuke, eta *Susa* aldizkariaren 19. alean kaleratu zen; *Future / No Future* zen ale haren izena, eta zientzi fikzioa gaia; hala ere, nire lan honek ez zuen futurista izateko inongo asmorik: ikuskizun komiko bat eskaini nahi zuen soilik, esperpento sozial bat.

«Telebistarik ez, inkomunikazioa dakar eta»: aurrekoarekin batera sortua, asmo berberarekin: film laburretarako gidoi bat egitea eta Azpeitiko Zine Klubekoen lehiaketan parte hartzea. Topiko progre baten lepotik barre egitea beste helbururik ez zuen honek ere. Bestalde, orain arteko

guztiak ez bezala, lan hau guztiz argitaragabea izan da gaur arte. Arrazoia? Erdarazko zati ugari zituela, eta beraz ez zela egokia euskal aldizkarientzat.

«Txinoen esperoan» izango da, liburu osoan, sexu nahiz amodio gutxien duen ipuina, fraideetxe bateko pasadizo xume eta eldarnio erraldoi bat kontatzen baitizkigu. Ze justifikazio dago, beraz, hemen sartzeko? Surrealista frantsesen bilera batean, norberaren perbertsiorik ezkutuena aitortzera jarri omen ziren halako batean, eta orduan, bere lagunak epatatu nahi zituen batek bota omen zuen, kastitatea zela bere perbertsioa; denek onartu omen zioten ez zegoela hori baino perbertsio makurragorik. Bitxikeriazale eta konspirazio-teorien maitaleentzat erantsiko dut, kontakizuneko fraideak azaltzen duen paranoia politiko-erotiko hori ez dela neuk asmatua, baizik eta Beasaingo La Salle ikastetxean anaia Martin Esnalek 77-78 inguru hartan ikasleoi botatzen ziguna, gu komunismoaren eta onanismoaren atzaparretatik babestearren. Hark kontatzen zizkigunak berriro hausnartuz konturatu naiz *Bultzagilleen* teoriak zirela irakatsi nahi zizkigunak;

dena dela, ez da hau talde antimarxista haren perlak aletzeko plazarik egokiena. Ipuina 1987an idatzi nuen eta *Susa* aldizkariaren 21. alean argitaratu. Neure obraren analisi diakronikorako, hauxe izango da elizgizonak sartu nituen lehenengo testua.

«Ene dama maite horri azken gutuna», amodio guztiz platonikoaren inguruko ipuina, perbertsioen seikotea osatzearren sartu dut hemen, izatez beste aldi batekoa den arren: 1993an idatzi nuen, ordurako ipuingintza utzi samarra nuela, eta 1996an kaleratu nuen, Enbido Txikira liburu txiki eta merkeentzako bilduma ahaztu hartan; *Ene dama maite horri* zeritzan liburuxka hartako hitzaurrean argitzen dut nola sortu zitzaidan ipuin hartarako ideia, bazkalondo bateko lagunarteak akuilatuta: «Berriketan hitz eta pitz ari ginela, han ere etorri zen harira perpausa, postariaren lanbidea guztiz ogibide literario eta kilikagarria zela, horretan oinarrituta hainbat ipuin asma zitezkeela, eta ea zergatik ez genuen han bildutakook bana egiten».

PASTITXE BAT izendatu dut beste atal bat, aparte, «Pastitxe» ipuin luze, nobela labur edo dena delakoa aparteko eta berezi samarra delako. 1988an idatzi nuen, baina inoiz ez nintzen argitaratzera animatu, nahasi antxekoa iruditzen baitzitzaidan, kaotikoegia edo. Eta zergatik orain? Tira, bere txantxa giroan umore punttua baduela onartu behar, tarteka zakar eta matxista eman dezakeen arren; bestalde, hau bezalako bilduma oparo baten barnean ez da nabarmenegi egiten, ikuspegien zabaltasunean laguntzen du; eta, azkenik, neure buruarentzat besterik ez bada ere garrantzia duen kontu bat: hementxe ageri da lehenengo aldiz azken urteotako idazlanetan oparo erabili dudan teknika bat: idazleak berak (ez pertsonaiak) lehen pertsonan idaztea eta egiazki gertatzen zaizkion gorabeherak eta sortzen zaizkion zalantzak kontatzea; kasu honetan, «Un petit cadeau pour madame» istorioa film labur bihurtzearen inguruko kontuak. Egiazko pertsonen izenak, gainera, lehen idazketan gezurretakoak baziren ere, benetakoak paratu ditut orain. Ez ahal zait inor haserretuko...

Eta HIRU VOYEUR ISTORIO datoz azkenik, liburua ixteko, nahiz eta hiru hauek baino gehiago diren voyeurismoarekin zerikusia dutenak.

«Orense bar», arestian komentatu dudan postariaren istorioa bezala, 1993an idatzia da, *Ene dama maite horri* liburuxkan argitaratua, eta, lehenxeagoko hitzaurre berak dioenez, Santo Tomas bezperako lankideen arteko afari-ondoko giroak bultzatua: «Han, lan-kontuak behingoz ahaztuta txorakeriak esaten genbiltzala, sortu zen solasa, idatzi behar genuela denok ipuin erotiko bana. Bukatu ziren oporrak, eta bitarte horretan, itxuraz, denek izan zituzten ipuin txatxu bat asmatzea baino zeregin premiazko eta probetxuzkoagoak. Nik, berriz, idatzi nuen zer edo zer, erotikotik deus gutxi izango du baina».

Erotismo eskasa, edo erotismorako ezina, liburu osoaren ezaugarria da, begiradaren garrantziarekin batera, konturatuko zen honezkero irakurlea; hala ere, bilduma ixten duten hurrengo bi ipuinak antologia erotiko banatan argitaratu ziren: Juan Martin Elexpuruk Txalaparta argitale-

txearentzat zuzentzen duen Literotura sailean, hain zuzen.

«Informazio sexuala» 1998an idatzi nuen, Elexpururen eskariz, sail horren abiaburuko *Euskal idazleen ipuin erotikoak* liburu kolektiborako. ‘Ipuin antierotikoa’ eman nion azpititulua, halakoxea baita izan ere. Sasoi hartan idatzi berria nuen *Nerabearen biluzia* liburu autobiografikoa, eta haren oroitzapen-giroan egin nuen ipuintxo hau ere.

«Porroia», liburua ixten duen *snuff-movie* hori, Basauriko ipuin erotikoen lehiaketarako idatzi nuen 1999an. Ez zuen saririk eskuratu, baina irabazleekin batera argitaratzeko aukeratu zuten 2001ean kaleratu zen *Bero hezeak* bilduman. Zinemaren erreferentziarik jolasten da hemen ere, baina izatez juxtu kontrakoa da hau: irudiaren ukazioa, ipuinean ez baitago inongo deskribapenik ez kontalariaren hitzik, protagonista bien hitzak soilik. Film bat begiak itxita ikustea legez, edo okerrago: jokalarien sexua zein zen ere ez baitzaigu esaten. Irudimenerako bidea, hausnarrerako gonbita, jolas hutsa...

Zer besterik esan dezaket? Sentipen arraro bat sortu zait hamasei ipuinok berrirakurtzean: aspaldiko testu horien egilea ni neu nintzen, noski, baina arrotzak egiten zitzaizkidan aldi berean. Aspaldiko ezagun bat berriz ikustean bezalako errezeloarekin begiratu diet batzuetan; senide bati norberaren keinu bat antzematen diogunean bezalako harridurarekin besteetan. Eta ironiaren distantzia hori beti: igual izango da esperientzia erromantikoa barregarri suertatzen dela XXI. mendeko gizon-emakumeon begietan, edo igual izango da ironiaren makulua behar dugula maitasunezko istorio zahar-berriak kontatzen segitzeko.

X.M.E.

Beasainen, 2002ko irailaren 16an